ASTELEHENEKO
# Goienkaria

2009ko abenduaren 21a > Astelehena > VI. urtea > 259. zenbakia > Euro 1

www.goiena.net TOKIKOM

"Gizarte honetan, adinean aurrera goazen heinean, boterea galtzen dugu"

**Pili Legarra**
Familia bitartekaria > 08



**G2a** Txalaparta, ikuskizunaren protagonista > 29

**KOMUNIKABIDEAK**
'Egunkaria'-n lanean ibilitako debagoiendarren testigantzak > 04

**OMENALDIA**
Aramaioren izena munduan zabaldu izana eskertu, Undari > 11

**KROSA**
131 korrikalariren artean Ezpeleta azkarrena Santamas proban > 23

**ERAKUNDEAK** > FINANTZAZIOA

# Mankomunitateko aurrekontua %6 jaitsiko da hurrengo urtean

**MURRIZKETA** 2010eko aurrekontua 10.035.522 euro da eta 2009koa, berriz, 10.770.687 euro izan zen

**INGURUMENA** Sail guztien artean, Ingurumenakoarendako dago diru partidarik handiena: ia lau milioi beharko dituzte

**HONDAKINEN KONTSORZIOA** Zaborrak Gipuzkoako kontsorzioak hartuko ditu; horregatik gastu igoera > 05



## Urtarrilera arte, irakurle!

Hurrengo zenbakia urtarrilaren 11n argitaratuko dugu. Urteko azken Egubakoitzeko Goienkaria eta Urtekaria, berriz, abenduaren 23an. Urte berri on!

## Debagoieneko Kirol Sariak banatu zituzten Oñatin

Bigarren urtez Debagoieneko Kirol Sariak banatu zituzten egubakoitzean. Aurtengo ekitaldia Oñatiko Santa Ana aretoan egin zuten.Guztira, 15 sari eman zituzten; hain zuzen ere, Alberto Altube eta Pedro Mari Elkorobarrutia; Aramaioko sokatira taldea; Oihana Kortazar; Jose San Miguel; Marisol Ramos; Josune Odriozola; eskubaloiko Verkol Aloñako neskak; Jone Muxika; Joxe Eskibel; Manolo Muñoz; Reyes Azkoitia; hirugarren mailako UDA futbol taldea; Maider Unda; Jonathan Perez; eta Soraluze Kooperatiba saritu zituzten. > 24-25




**SARIDUNAK** Talde argazkia egin zuten ekitaldiaren bukaeran saria jaso zuten kirolari guztiek. JOSETXO ARANTZABAL

**AURKIBIDEA**

**Debagoiena** > 04-06
**Auzoak** > 07
**Elkarrizketa** > 08
**Iritzia** > 10
**Herriak** > 11-20
**Kirola** > 21-28
**Kultura** > 29-33
**Sailkatuak** > 34-35
**Denbora-pasak** > 36
**Telebista-Irratia** > 37
**Berri-zakua** > 38-39

UGARTE
K-21
AROZTEGIA-ALTZARIAK
arotz lanak orokorrean • horma-armairuak • altzariak • leihoak • ateak



**altzari denda**
ikerleku zeharbidea • bergara
tel.: 943 03 46 30

**erakusketa eta tailerra**
san juan 1A • bergara
tel.: 943 76 54 91 faxa: 943 76 08 04

## Opari hauek irabazi nahi?

Zoaz 22. orrialdera



# Abantailaz betetako kluba!

Goiena kluba

## Ongi etorri Goiena Klubera

Goiena Komunikazio Zerbitzuak Goiena Kluba aurkezten dizu.
Orain arte **Asteleheneko Goienkaria**-ren harpidedun izan zaretenok Goiena Klubeko bazkide izango zarete aurrerantzean.

## Goiena Klubeko txartela

Bazkide-txartel personalizatua jasoko duzu etxean. Bazkide-txartelarekin harpidetzak dakarren abantaila eta onura esklusiboetan parte-hartzeko aukera izango duzu. Askotariko ekitaldi eta zerbitzuetan bazkide-txartela erakutsi, onurak aprobetxatu, eta gozatzera!




## Goiena Klubeko bazkideen abantailak

Asko dira Goiena Klubak eskaintzen dituen abantailak.

- **Goienkaria** astelehenetan eta ostiraletan etxeko postontzian jasotzea
- Goienak antolatutako ekitaldi eta ikastaroetan prezio berezia
- Goienak kaleratzen dituen produktuetan prezio berezia:
  DVD kopiak, CDak, kamisetak, Goienkaria-ko Sailkatuak, eskelak, ekitaldietarako sarrerak...

**eta orain, opari eta deskontu paregabeak lortu ditugu zuretzat**

## Deskontu bereziak

Goiena Klubeko txartela aurkeztu, eta ondorengo enpresetan deskontu eta abantailak izango dituzu.

### BARCELÓ BIDAIAK
**BERGARA/ARRASATE**
- **-%5** pakete konbinatuetan 600 eurotik gorako erosketagatik (eskaintza berezietan izan ezik).

### LILURA EDERTZE INSTITUTUA
**BERGARA (Bazkidearentzat eta lagunarentzat)**
- Laser depilazioa: hanka osoa + izterrondoa **-%15** + opari besapekoak (axilak).
- **-%20** elikagai-intolerantzia proban.
- **-%10** mikropigmentazioan: begietan, ezpainetan edo bekainetan.
- **-%10** fototerapia bidezko aknearentzako tratamenduan.

### NAREN FISIOTERAPIA ZENTROA
**ARETXABALETA**
- **-%15** zerbitzu guztietan.

### IKER SUKALDEAK
**ARRASATE/OÑATI**
- Sukalde osoa erosita, etxetresna elektriko bat opari.

### LARRAÑAGA AUTOESKOLA
**BERGARA**
- **-%15** matrikula ordaintzean.

### ESTACIÓN DE SERVICIO ARRASATE (MECA)
**ARRASATE**
- **-%2** gasolindegian erregaia erosita.
- **-%2** dendako produktuetan.

### MONDRAGON LINGUA
**ARRASATE /OÑATI (18 urtetik gorakoentzako bazkideentzat)**
- **-%15** ingeleseko eta euskarazko ikastaroetan, SISTEMA KONBINATUAN. Ikasturte osoan.
- **-%15** aurrez aurreko eskoletan. Eskaintzaren epemuga: 2010/03/01

### AUTOBERRI
**ARRASATE/AZPEITIA/ELGOIBAR/IRUN/TOLOSA**
- **-%5** konponketetan, ez bada prezio itxia edo promozioa.
- **-%25** saltzen ditugun pneumatikoetan, urte osoan.
- Ordezkapeneko autoa **20 euro**.
- Erosketetaren momentuan, goian aipatutako deskontua baino handiagoa badago, bezeroari deskontu handiena eskainiko diogu.

### CLINICA DENTAL BERGARA
**BERGARA (Bazkidearentzat eta familiako batentzat)**
- **-%10** zerbitzu guztietan
- **-%15** inplanteetan.
- 120 eurotik gorako tratamenduetan garbiketa doan.

### ZIENTZIEN KUTXAGUNEA
**DONOSTIA**
- Bi erosi eta bat ordaindu

### AQUARIUM
**DONOSTIA**
- Bi erosi eta bat ordaindu

### TXURI-URDIN IZOTZ JAUREGIA
**DONOSTIA**
- Bi erosi eta bat ordaindu ostiraletan, ez bada jaiegun, jaiegun bezpera, zubia edo oporraldia.
- **-%20** larunbatetan eta igandeetan, ez bada zubia edo oporraldia.
- **-%10** zubi eta oporraldietan.

**Eta gainera, Goiena Klubeko zozketetan parte hartzeko aukera izango duzu**

Informazio gehiago: Goiena Kluba
Telefonoa: **943 08 10 50**
Posta-e: **harpidetza@goiena.com**

**GABONAK** > UMEAK

# Aurtengo zuhaitzek jostailu sinpleagoak hartuko dituzte

**TEKNOLOGIA BAKOAK** Aurtengo eskaerek ez dute teknologia handirik; kanpotik plastikoa eta barrutik hutsik daudenak asko eskatzen dira

**BIRZIKLAPENA** Dirua gastatu barik, bakoitzak etxean duen materialarekin ere jostailuak egin daitezkeela gogorarazi digute Txatxilipurdikoek

**ADINA ETA BEHARRA** Erosi aurretik birritan pentsatu behar dugu: umearen adin eta beharretara egokitutakoa opari egitea gomendatzen dute

**MIRIAN BITERI** > BERGARA

Olentzero lanez lepo dabil egunotan, debagoiendarrek eskutitzen bidez eskatutako opariak gertatzen; umeen kasuan, jostailuak gehienak. Aurreko urteekin alderatuta, baina, bailarako etxeetara iritsiko diren jostailuek berezitasuna izango dute: hain justu ere, Olentzerok ere krisia igarri duela eta, hortaz, jostailu sinpleagoak eta merkeagoak opari eginko dizkiela haurrei.

Jostailu-dendetan, behintzat, hori esan digute. Arrasateko Zur-Lur jostailu dendako Juan Manuel Aspek azaldu digu jendea aurten aurrekontu txikiagorekin doala dendara. Gainera, aipatu digu salmentak ohi baino lasaiago doazela. Dena dela, gainontzeko gauzekin gertatzen den moduan, jostailuak erosterakoan ere jendea azken orduan ibiltzen dela gaineratu du.

Horrekin batera, esan digu ekoizleek orain arte, Gabonetan, teknologikoki konplikatuagoak eta garestiagoak diren jostailuak atera badituzte ere, aurten ez dutela horrelakorik egin: "Ez dira han garestiak; sinpleagoak dira. Teknologia txikiagokoak dira; kanpoan plastikoa eta barruan hutsik daudenak asko eskatzen dira".

Eskaeren artean, Hanna Montanaren jostailuak (patineteak, poltsak...) eta Hello Kittyrekin lotutako produktuak oso preziatuak direla esan du. Hori da erosleek gehien eskatzen dutena. Baina egokiak dira horrelako opariak? Normalean, gurasoek edo gertukoek umearen gustukoa dena opari egiten saiatzen dira eta batzuetan, beste hainbat irizpidetaz ahazten dira.

**17.000 ORDU INGURU JOLASEAN**

Kontuan hartu behar da jolasak umeen jarduerarik gogokoena direla, hezkuntza-tresna naturalak, eta ezinbestekoak direla haurraren garapenerako. Izan ere, bere burua eta ingurua ezagutzeko aukera emateaz gain, komunikazio eta sozializaziorako tresna garrantzitsuak dira. Eroskik egindako txosten batek dio 6 urte eduki bitartean, haur batek 17.000 ordu inguru igarotzen dituela jolasean. Horren harira, jostailuek oso funtzio garrantzitsua betetzen dute, jolasarekin lotuta daude-eta. Horrenbestez, erosi aurretik birritan pentsatu behar dugu zer erosi.



Egunotan jostailuen gaineko hainbat erakusketa eta ekimen egin dituzte bailaran; irudian, Arrasaten egindako jolastruke merkatua. JOSETXO ARANTZABAL

**ADINAREN GARRANTZIA**

Kontuan izan behar dugu jostailuak haurraren adin eta beharretara egokitu behar duela. Horren gainean sor daitezkeen zalantzak argitzeko, Eroskik haurrendako jostailu gida kaleratu du. Lau multzotan dago hori antolatuta, umearen adinaren araberakoa: 0-2 urte bitartean, ukitzen, ezagutzen, arrastatzen, pilatzen eta zupatzen ikasten dute; eta, hortaz, uretako jostailuak, pilotak, gomazko eta trapuzko panpinak, eraikuntza errazak eta auto handiak egokiak direla dio gidak.

2-5 urte artekoendako, berriz, irudimena lantzeko jostailuak hautatu dituzte; hala nola, trizikloak, eraikuntzak eta ahokagarriak, puzzleak, margoak, ipuinak, mozorroak, sukaldetxoak eta garajeak; 6 eta 10 urte bitartekoek eraikitzea, interpretatzea, lankidetzan aritzea, mugitzea, margotzea eta ikertzea dute gustuko, eta, hortaz, honakoak dira neska-mutikoendako opari preziatuenak: monopatinak, baloiak, trenak, auto elektrikoak, musika-tresnak, txotxongiloak eta bideojokoak, besteak beste.

Azkenik, 11 urtetik gorakoak daude. Helduagoak diren heinean zaletasunak ere aldatzen joaten dira; sortzea, lagunekin batera jolastea, asmatzea, lehiatzea, ikertzea eta bildumatzea dute gustukoen, hain justu ere. Hori kontuan izanda, bizikletak, monopatinak, baloiak, muntaketak, adierazpen artistikorako materiala, bideojokoak eta bitxikeriak opari egiten dituenak ez du hutsik egingo. Hori guztiori esan ostean, Olentzerori eskutitza idaztea eta itxoitea baino ez da falta.

BIRZIKLAPENA

## Jostailu klasikoak zein konplexuagoak egin ditzake bakoitzak etxean

Akaso ez dira izango dendetan erosten ditugun bezain ikusgarriak. Baina etxean dugun materialekin jostailu ederrak egin daitezke. Txatxilipurdiko Arantxa Osorok *Saski naski* delakoa zelan egin azaldu digu. Hasteko, jogurt edo plastikozko pote bat hartuko dugu; erraz zulatzen den potea, hain justu. Jarraian, paper zatia moztuko dugu, potearen tamainaren araberakoa, eta gainean itsatsiko dugu eta bakoitzak nahi duen moduan apainduko du. Marrazketa lanekin amaitzean, potearen beheko aldean zuloa egingo dugu artaziekin edo labanarekin. Hurrengo pausoa goma hartzea izango da. Osororen ustez, hor dago jostailu horren gakoa: "Umearen besoaren luzera duen goma zatia moztuko dugu; zati hori oso motza baldin bada, errazegi sartuko du eta luzeegia baldin bada, berriz, oso gutxitan; kasu bietan, umea azkar aspertuko da". Goma poteko zulotik sartu eta barruko aldetik korapiloa egin beharko dugu. Eta kanpoko puntan zerbait pisutsua itsatsiko dugu, hala nola plastilina, intxaurra edo urra. Hori guztiori egin ostean, jostailua probatzea baino ez da falta.

Bestalde, Osorok gaineratu du joko klasikoak ere egin daitezkeela. Esaterako, puzzleak. Horretarako, aurretik eginda eta umeek bertan egindako marrazkia margotu eta, adinaren eta abileziaren arabera, marrazki hori artaziekin moztuko da. Iraupen luzeagoa izan dezan, kartoiarekin itsats daiteke.

**KOMUNIKABIDEAK** > EGUNKARIA AUZIA

# 'Egunkaria'-ri babes zabala, epaiketa bukatu aurretik

*Egunkaria*-n lanean ibilitako Debagoieneko hiru lagunekin izan gara, zapatuko manifestazioa eta hasitako epaiketa zelan bizi duten jakiteko

**IKER BARANDIARAN** > BERGARA

Urtarrilean bukatuko da *Egunkaria*-ren gaineko epaiketa, eta herenegun, zapatua, Bilboko kaleak bete egin ziren *Egunkaria*-ri eta epaiketan auziperatuta daudenei babesa emateko. Zazpi urte pasa dira guardia zibilek euskarazko egunkaria itxi zutenetik, eta *Egunkaria*-n lanean ibili ziren debagoiendar batzuengana jo genuen zapatuan.

"Dei batek iratzartu eta goizean goiz Andoainera jo genuen; justu, Martxelo ateratzen ari ziren. Oporretara joatekoa nintzen, baina *Egunero*-n hasi nintzen. Beldur handia sartu zitzaigun", azaldu zigun orduan Kulturako erredaktore zen Mikel Lizarralde bergararrak.

Arantzazu Arroiabe aretxabaletarra, berriz, Marketing arduraduna zen, eta hura ere ohean harrapatu zuen albisteak: "Dei ugari egin genituen jendea ohartarazteko eta guardia zibilek hanka egin bezain laster, elkartasuna antolatzen hasi ginen, herritarrei konpromisoa eskatu...".

"Irrati-iratzargailuan entzun nuen Gasteizko lankide bat atxiloketen berri ematen eta ziztu baten jo nuen lantokira. Hasieran, komunikabideen eta agintarien esanak batzen hasi ginen, eta egun gutxitara *Egunero*-n hasi nintzen", azaldu zigun Oñatiko Idoia Etxebarriak, orduan Politika saileko erredaktorea zenak.

**BABES IKARAGARRIA**

Lizarralde eta Etxebarria Bilbon izan ziren zapatuan, baina Arroiabek ez zuen joaterik izan eta Internetez jarraitu behar izan zuen manifestazioa: "Etxetik bada ere, hunkitu egin naiz. Orain dela zazpi urte bizi izandakoa gogora etorri zait berriro. Hainbeste jende ikustea ikaragarria da. *Egunkaria* plurala, anitza... zen, eta gaur bildutako jende guztiak hori erakusten du berriro ere. Madrilek ezin du ulertu herritarrek ezeren materialen truke, egunkari baten akzioak erostea".

Lizarralderi ere zirrara handia eragin zion Bilboko manifestazioak: "Bilbon halako jende multzo handia eta auzipetu guztiak pankarta aurrean ikustea itzela izan da. Horrek indar handia eman digu, baina zaila da beldurra alboratzea".

"*Egunkaria* itxi zutenetik, sei urte pasa diren arren, hainbeste jende elkartzea oso garrantzitsua da; hori da guztiok behar duguna", azaldu zuen Etxebarriak.

**EPAIAREN GAINEKO ZALANTZAK**

Herritarren babesarekin pozik daude hiru debagoiendarrak, baina epaiaren gainean galdetuz gero, zalantzak dituzte. Lizarraldek eta Arroiabek bat egiten dute esatean fiskalak ez duela aurrera egiteko ahaleginik egin, baina, hala ere, kezkatuta daude.

"Orain dela sei hilabete kasua artxibatuko zela uste genuen, eta ez zen hala izan. Hori ikusi eta gero, ez dakit zer pentsatu. Urrunegi joan da guztia, nahiz eta ez daukaten benetan zer leporatu", esan zigun Lizarraldek.

Bestalde, Arroiabek, absolbituko dituztenaren itxaropena badu ere, argi dauka azkenean "Estatuak erabakiko duela" zer egin. Eta Etxeberriak gehitu zuen absoluzioa "ezinbestekoa" dela, "justizia dagoeneko ezin delako eskatu".

ESANAK

**"Egunkaria plurala eta anitza zen, eta gaur Bilbon batutako jende guztiak berriro ere erakutsi du hala zela"**

**A. Arroiabe** > Marketing ardurad.

**"Urrunegi joan da guztia, dagoeneko kasuak artxibatuta egon behar zuen, ez daukatelako zer leporatu"**

**M. Lizarralde** > Kultura erredaktor.

**"Auzipetuen absoluzioa ezinbestekoa da, pasatutako guztiaren ostean justizia ezin delako eskatu"**

**I.Etxebarria**> Politika erredaktor.






IKER BARANDIARAN

## Saharako herriaren aldeko kontzentrazioak egin zituzten Oñatin eta Arrasaten

Aminatou Haidar ekintzaile saharauiarra Saharara bidali zuten eguen gauean, Lanzaroteko aireportuan 32 eguneko gose greba egin ostean. Hala ere, Nubi eta Iesbaa elkarteek eguen eta egubakoitzerako iragarritako protesta ekimenekin aurrera egitea erabaki zuten. "Saharako arazoa ez da" inondik inora konpondu: herrialdearen askatasun nahia ez errespetatzeaz gain, 68 preso politiko eta 526 desagertutako daude", esan zigun Agurne Juldainek.

Eguenean, Oñatin, Saharako maratoia izan zuten berbagai hitzaldian, eta horren ostean, kontzentrazioa egin zuten.

Egubakoitzean, berriz, kontzentrazio jendetsua egin zuten Arrasaten. Nubi eta Iesbaako kideek azaldu ziguten Aminatou askatu bezain laster, Marokoko poliziak El Aaiun eta Agachin jende ugari atxilotu, kolpatu eta sakelakoak eta argazki kamerak kendu zizkietela, lekukorik ez egoteko.




Zaborraren kudeaketarako 4 milioi bideratzea aurreikusi dute. ARTXIBOA

**MANKOMUNITATEA** > AURREKONTUA

# Datorren urtean hamar milioi euro izango ditu

Ingurumen sailera lau milioi bideratzea aurreikusi dute; Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak bere gain hartutako zaborraren kudeaketarako gehiena

**MIRIAN BITERI**> BERGARA

Joan den eguaztenean egindako batzarrean, Debagoieneko Mankomunitateak datorren urteko aurrekontuak onartu zituen. Joan den urteko kontuekin alderatuz, %6,83ko jaitsiera izango dute; hain justu, 10.770.687 euro izatetik 10.035.522 izatera pasako da esandako erakundea.

Betiko moduan, gastu arruntetan joango da diru gehien; 5.873.383 euro edo aurrekontu osoaren %59a bideratuko dute. Dena dela, arlo horretan ere %6,08 jaitsi da aurrekontua.

**ZABORREAN, 3,5 MILIOI**

Sail guztien artean, Ingurumenekoarendako dago diru partidarik handiena aurreikusita; ia 4 milioi beharko dituzte hor. Jakina denez, zabor kudeaketaren ardura Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak hartu du bere gain eta horren ondorio zuzena da gastuen igoera nabarmena. Zaborraren kuotatan 2,332 milioi, eta zabor eta ontzien bilketa kontratuan 1,17 milioi gastatzea aurreikusi du. Bestalde, pertsonala ordaintzeko 2.696.827 euro aurreikusi dituzte.

Diru sarrerei dagokionez, esan beharra dago, udalen ekarpenak aurrekontuaren %69 direla.

**Gastu arrunten aurreikuspena, eurotan**

| Saila | 2009 | 2010 | Aldea |
|---|---|---|---|
| Zerbitzu Orokorrak | 295.651 | 223.451 | -%24,42 |
| Ezinduen garraioa | 230.000 | 230.000 | 0 |
| Kirola | 92.401 | 48.800 | -%47,19 |
| Lurralde antolamendua | 31.000 | 5.500 | -%82,26 |
| Ingurumena | 3.910.860 | 3.922.352 | %0,29 |
| Epele | 425.300 | 187.154 | -%55,99 |
| Abere hiltegia | 632.450 | 580.300 | -%8,25 |
| Agentzia | 436.703 | 505.576 | %15,77 |
| Turismoa | 199.350 | 170.250 | -%14,6 |
| **GUZTIRA** | **6.253.715** | **5.873.383** | **-%6,08** |

Iturria: Debagoieneko Mankomunitatea

**etxeko leihotik**



**Usoa Agirre** > 'uagirre@goiena.com'

## Internet oso arriskutsua da; kalea ez?

Jende askoren ahotan dabiltza aspaldion Interneteko sare sozialak. Aspaldiko lagun batekin topo egin edo lagun berria egin eta hizketaldiaren bukaeran askok galdetzen dute: "Baduzu Facebook-ik? Gehituko zaitut lagun moduan". Beste lagunak ez daukala erantzungo dio agian, eta harrituta geldituko da: "Zergatik ez daukazu, bada?". "Ez dudalako beharrik sentitzen" erantzungo dio. Facebook, Twitter, Fotolog, Tuenti... guztiak dira Interneteko sare sozialak. Nahi ez duenak ez dauka zertan egon, baina hor dagoenak jakin behar du non dagoen eta ezin direla edozein modutan erabili.

Internet ez da txarra edo ona; gure erabilpenak egiten du txar edo on. Horregatik, garrantzitsua da heziketa Interneten ere. Ez igo Facebookera etxean erakutsiko ez zenituzkeen argazkiak, berandu baino lehen konturatuko zarelako. Nire lagun batek dioen moduan Facebook kotileatzeko webgune bat besterik ez da. Egia da hori, baina lagunekin gauzak konpartitzeko ere balio duenez, bigarrenarekin gelditzen naiz.

**"Facebook kotileatzeko webgune bat besterik ez da, eta balio du"**

Ez dut Facebooken defentsa sutsurik egingo. Niri balio dit eta kito. Baina garrantzitsua da Interneten edukiren bat igo aurretik, izan Flickr-en, Youtuben edo Fotolog-en, bi aldiz pentsatzea. Beldurrik ez dugu izan behar, baina kontu pixka batekin ibili, kalean ibiltzen garen moduan.

**> Kalean moduan**

**Asteon, berriz, albisteak han eta hemen: nerabeen ehuneko ez dakit zenbatek ezezagunekin harremanak ditu sarean; umeen ehuneko zenbait webgune arriskutsuetan sar daiteke... Kalean moduan, kontuz Interneten ere.**

**> Negozioa**

**Askotan, baina, zenbaki horiek zeinek ematen dituen begiratu beharra dago. Birusen kontrako sistema saldu nahi digunak beti esango du birus asko dabilela eta antibirusa erosteko. Baliteke, gainera, berak sortutako birusa izatea!**

**NATURA** > AURKEZPENA

## Gipuzkoako eta Arabako Aldundiek Aizkorri-Aratz parkearen gaineko lana argitaratu dute

Natur parkearen ondare historikoa eta naturala jaso dituzte liburu batean Iñigo Doriak eta Gema Arrugaetak

**M.B.** > BERGARA

Gipuzkoako eta Arabako Foru Aldundiek *Aizkorri-Aratz Parke Naturala* izeneko liburua aurkeztu zuten joan den astean, ingurune horretako natura eta kulturaren ondarearen arlo aipagarrienak ezagutarazteko helburuarekin. Gema Arrugaeta argazkilari ordiziarra horretarako argazkiak ateratzeaz arduratu da eta Iñigo Doriak, berriz, testuen eta diseinuaren ardura izan du bere gain.

**ZAZPI KAPITULU**

Lanak 199 orri koloretsu ditu. Zazpi kapitulu ditu eta horietako bakoitzean mendiaren izpiritutuetako bati egiten dio erreferentzia Doriak: Lurraren izpiritua, Basoaren izpiritua, Haizearen izpiritua, Uraren izpiritua, Aberearen izpiritua, Gizakiaren izpiritua eta Zeruen izpiritua, hain justu ere. Lehenengo lauretan natur ondareari egiten diote erreferentzia; hala nola, lur azpiko Aizkorriri; zuhaitzei eta basoei; urtaro aldaketei eta zeruetako koloreei. Ondorengo hiru kapituluetan, berriz, parke naturalean bizi diren gizaki eta animaliak bildu dituzte; tartean, artzainak, zaldiak, ardiak eta beste hainbat animalia.

Liburua Gipuzkoako Diputazioaren egoitzan eskura daiteke, eta laster, Arantzazuko santutegiko dendan ere jarriko dute salgai.

**EKONOMIA** > MONDRAGON KORPORAZIOA

## Iaz balantza komertziala hobetzen lagundu zuen

Taldeak nazioarte mailan egindako salmentak 3.791 milioikoak izan ziren

**M.B.** > BERGARA

Mondragon Korporazioko kooperatibek joan den urtean atzerrian egindako transakzioek (esportazioak eta inportazioak) superabit globala lortu zuten, eta euskal balantza komertziala hobetzen lagundu zuten. 2008an egindako esportazio gehienak industri arlokoak izan ziren, eta 2.099 milioi eurora iritsi ziren (horietatik, 1984 milioi Euskal Autonomi Erkidegokoan (EAE) eta 115 Nafarroan). Atzerriko 73 filialen produkzioa eta fakturazioa gehitzen bada, korporazioak nazioartean egindako salmentak 3.791 milioi eurokoak izan ziren.

Eustateko eta Nafarroako Gobernuko datuen arabera, EAEn dauden industri arloko kooperatiben esportazioak, ekitaldi horretan euskal enpresek guztira esportatutakoarekin alderatuta, %11,4 izan ziren.

**OSASUNA** > ELIKADURA

# Urtarrilean etorriko dira Gosari Bihotz-Osasungarriak

Debagoieneko hainbat ikastetxek parte hartzen dute Bihotz Bizi Elkarteak hasi duen kanpainan, eta Auzo Lagun eta Eroski dira laguntzaile batzuk



Donostiako Jakintza ikastolako ikasleek izan dituzte aurtengo lehenengo Gosari Bihotz-Osasungarriak. GOIENKARIA

**LEIRE KORTABARRIA** > BERGARA

Debagoieneko ikastetxeak ere badabiltza parte hartzen Gosari Bihotz-Osasungarrien kanpainan. Debagoienera urtarril bukaera aldera ailegatuko dira gosari horiek. Kanpaina hasi da, eta Donostiako Jakintza ikastola izan da gosari horiek hartu dituen lehenengoa.

Debagoieneko erakundeek ere parte hartzen dute antolakuntzan. Hala, Bihotz Bizi elkarteari eta Okindegien Euskal Federazioari, antolatzaileei, musutruk laguntzen diete Auzo Lagunek eta Eroskik, beste erakunde batzuen artean.

Gipuzkoan, 2000. urteaz geroztik egiten dira Gosari Bihotz-Osasungarriak. Oraingo kanpainan, Euskal Autonomia Erkidegoko 111 ikastetxetan egingo dituzte gosari horiek, eta 3.957 ikaslek gozatuko dituzte. Denetara, 11. edizioa dute Gosariok.

**INFORMAZIOA ETA PREBENTZIOA**

Helburua da bihotzaren gaitzen inguruan informazioa ematea eta haiek prebenitzea. Horretarako, ikastetxean, 09:00etan, ondo gosaltzearen gaineko informazioa ematen dute, hitzaldi batekin edo DVD bat proiektatuta. Gero, gosaria ematen dute jangelan edo ikasgelan, honako osagaiekin: esnea, kakaoa, eztia, indioilarra, fruta, ogia eta olioa. Jarduerak ordu bete irauten du, eta ikasle bakoitzari informazio-liburuxka bat ematen diote. Gosaria bukatu eta gero, ikasle bakoitzak inkesta bat erantzun behar du. Horiek erabiliko ditu Bihotz Bizi Elkarteak EAEko umeen elikadura ohiturak zeintzuk diren jakiteko.

AZTERKETA

## Euskadiko umeen erdiek ez dute frutarik edo esnekirik gosaltzen

Euskadiko 10 eta 12 urte arteko 2.348 ikasleri egindako inkesta baten arabera, horiek ez dituzte behar adina elikadura ohitura onak gosari orduan: hala, ume horien erdiek ez dute frutarik edo esnekirik gosaltzen, eta bakarrik %30ek konbinatzen dituzte modu egokian bihotzarendako osasuntsua den gosari batek eduki behar dituen osagarriak: esnea, zerealak, fruta, olioa eta hestebeteak.

Ikerketa horren arabera, umeen %90ek esnea hartzen dute, baina bakarrik horien erdiek hartzen dituzte esnekiak. Bestalde, %55ek diote ogia jaten dutela, eta gainerakoek, opilak edo zerealak.

Euskadiko umeek azken urteotan gero eta fruta gehiago jaten dutela dio azterketa horrek, baina gaineratzen du umeen erdiek ez dutela frutarik hartzen gosaltzeko.

**OSASUNA** > KANPAINA

# UNICEFen hartz txikiak saltzen dihardute bailarako hiru farmaziak, umeei laguntzeko

Hartz txiki formako giltzatakoak dituzte salgai, 5 eurotan; batutako diruarekin, garapen programak finantzatuko dira

**L.K.** > BERGARA

Debagoieneko hiru farmaziak egin dute bat UNICEF erakundeak eta Gipuzkoako Farmazialarien Elkargoak martxan jarri duten kanpaina batekin, UNICEFen hartz itxurako giltzatako batzuk saltzeko. Arrasateko, Aretxabaletako eta Antzuolako farmazia banak dihardute hura saltzen.

Helburua da umeek osasun ona izateko eskubidea dutela gogoraraztea, eta UNICEFek 150 herrialde baino gehiagotan egiten dituen umeendako bizi-iraupen eta garapen programetarako dirua batzea. Horrela bada, giltzatako horiek 5 eurotan saltzen dihardute farmaziek.

Gipuzkoa osoan dauden 281 farmazietatik 101ek egin dute bat kanpaina horrekin, eta oraindik zabalik dago atxikimendu epea.

**GILTZATAKO BAT, 20 TXERTO**

UNICEF erakundeak gogora ekartzen du urtero 8.800.000 bat ume hiltzen direla munduan "txerto batekin edo edateko ura izanez gero, erraz prebenitu daitezkeen arazoengatik". Hauxe dio erakundeak: "Kanpaina honekin herritarroi gogorarazi nahi diegu egoera hori aldatu egin daitekeela, eta batzuetan, txanpon batzuk gakoa izan daitezkeela: honako giltzatako bat erosteak polioaren aurkako 20 txerto dakar edo malaria prebenitzeko intsektizidaz bustitako eltxoen aurkako gortina bat".



Jose Mari Aldekoa. GOIENKARIA

**EKONOMIA** > AURREIKUSPENAK

# Mondragonek dio krisiak jarraitu egingo duela

Aldekoak dio 2010eko ardatzak izan behar dutela berrikuntzak eta nazioartekotasunak

**L.K.** > ARRASATE

Krisiari buelta ematea ez da datorren urtean izango, edo ez bete-betean: horixe da Mondragon Taldeak 2010. urterako egin dituen aurreikuspenen laburpena, *TU Lankide* aldizkariak argitaratu duen informazioaren arabera. "Krisia ez da bukatu, hainbat urte iraungo du", esaten du Taldeak. Mezu hori bidali zieten arduradunek taldeko kooperatiben gerenteei, urteko topaketan, azaroaren 9an.

Mondragon Taldearen finantza-zuzendari Belen Kortabarriaren esanetan, datorren urtean jarraituko du finantza-berregituraketak, eta Espainian langabezia maila "altuak" izango dira, eta kontsumoa eta inbertsioa, "ahulak". Korporazioko Kontseilu Orokorreko presidente Jose Mari Aldekoak esan zuen 2010erako gestio planen ardatz izan behar dutela berrikuntzak, nazioartekotasunak eta korporazio-kudeaketa ereduak.

> EKONOMIA

### KPIa %0,8 igo da Hego Euskal Herrian; Gipuzkoan, %0,2

Hego Euskal Herrian igo egin zen Kontsumo Prezioen Indizea azaroan; batez beste, %0,6. Lau herrialdeetan igo da: Gipuzkoan, %0,2; Bizkaian eta Araban, %0,6; eta Nafarroan, %0,8. Estatistikako Institutu Nazionalak (INE/EIN) emandako datuak dira. Urte osoan, orain arte, %0,8 igo da KPIa; Gipuzkoan, %1.

> EKONOMIA

### Elkargik 650 milioi formalizatuko ditu abaletan urte osoan

Elkargi elkarrekiko garantia elkarteak 650 milioi euro formalizatu izango ditu abaletan 2009. urtean, eta aurreko ekitaldiko abal jarduera bikoiztu; hura ere, 324 milioitan, zifra historikoa izan zen Elkargiren jardueran.

Azaroaren 30a arte, 595 milioi euroko abalak formalizatuta zituen Elkargik.

> EKONOMIA

### Mondragon Taldeak 35,5 milioi inbertitu zituen elkartasun proiektuetan

Mondragon Taldeak 35,5 milioi euro inbertitu zituen 2008. urtean jendartearekiko elkartasun konpromisoetan, korporazioaren arabera. Hezkuntzarekin, euskararekin, kulturarekin eta Hirugarren Munduarekin zerikusia zuten proiektuak babestu ziren. 2004-2008 artean, 174 milioi inbertitu zituen arlo horretan.

auzorik auzo

**ZALGO** > Aramaio herritik, Ibarra, oso gertu dagoen auzoa da Zalgo. Garai batean herriko eliza eta hilerria zeuden Zalgon; gaur egun, hilerria bakarrik geratzen da. San Martinetan ospatzen dituzte jaiak auzotarrek.

**Imanol Aiastui** > Zalgoko auzo-alkatea

# "Lanbide bezala, esan daiteke auzoan hainbat baserritan frutagintzatik bizi direla"

ARANTZAZU EZKIBEL > ARAMAIO

**Arrasatearra da Imanol Aiastui, baina berak argitu duen bezala bere alabak "aramaioarrak dira". Azkeneko hiru urteetan dabil auzo-alkate Zalgon. Auzotarren kezka nagusiak zeintzuk diren azaldu dizkigu Aiastuik.**

**Zein da gaur egungo egoera Zalgo auzoan?**

Orain zazpi baserri daude, eta beste bi egin berriak; hortaz, guztira bederatzi etxebizitza daude. Denetan bizi da jendea, gainera azkenaldian gazte jendea etorri da auzora; gero eta biztanle gehiago daudela esan daiteke.

**Zeintzuk dira auzotarrek dituzten kezka nagusiak?**

Momentu hauetan ditugun arazoak laster egingo ditugun lanekin bideratuko ditugu.

Saneamendu lanak egiteko proiektua daukagu esku artean; baina Diputazioan dirurik ez dagoelako-edo, proiektuan jasota dauden hainbat lan kanpoan geratuko dira. Asmoa da ur-zikina, ur-garbiak, argia, errepidea... dena konpontzea. Baina dirurik ez dagoenez, garrantzitsuenak bakarrik egingo ditugu.

**Errepidea ere ez dago egoera onean. Badago konpontzeko asmorik?**

Ez dago ondo, baina lehenengo saneamendu lanak egingo ditugu eta gero konponduko dugu errepidea. Gainera, hasiera batean saneamendua errepidetik sartu behar zuten; baina, gerora, erabaki da auzoko lurretatik egitea lanok.

**Ura jasotzeko arazoak izaten dituzue?**

Bai, arazo tekniko batzuk ditugu, Udalak konpondu beharko dituenak. Ura Etxagueneko depositutik jasotzen dugu, baina herria baino gorago geratzen denez Zalgo, presio gutxirekin iristen zaigu.

**Plan orokorraren arabera, nola geratuko litzateke Zalgo?**

Aramaioko auzo guztietako ordezkariak elkartu ginen eta erabaki genuen auzo guztiak landaguneak izatea; diputazioak, baina, aldaketa batzuk egin zituen proiektuan eta Zalgo kanpoan geratu da. Horren arabera, ez ginateke landagune izango.

Aldaketa handiena etxeak egiterakoan egongo litzateke.

**Noiz ospatzen dituzue auzoko jaiak?**

San Martin jaiak ospatzen ditugu, lehengo eliza San Martin zelako. Ez dugu gauza handirik egiten: auzo-bazkaria, umeendako jokoak... hilerri ondoko plaza erabiltzen dugu bilgune bezala.

Auzoan ez dago elkarterik; hortaz, herriko elkarteren batean elkartzen gara auzotarrak.

**Frutagintzatik bizi diren hainbat baserri daude auzoan.**

Bai, bi edo hiru baserri daude frutagintzatik bizi direnak: Sagastizabalen, adibidez, sagardoa egiten dute.

Lanbide konkreturik ez dakit, nik uste dut garai batean nekazaritzatik eta abeltzaintzatik bizi zirela auzotarrak.

ELIZA

## "Aramaioko lehenengo eliza Zalgon zegoen"

Imanol Aiastuik auzoaren historia pixka bat azaldu digu. Aramaioko lehenengo eliza, auzoan bertan zegoela dio Aiastuik. "Hemen zegoen Aramaioko lehenengo eliza; orain hilerria dagoen lekuan zegoen. Eliza bota egin zen, Ibarran berria egin zutenean. Ibarra izan aurretik, herria bera ere Zalgo zen, Zalgoko elizatea zela irakurri izan dut", dio Aiastuik.

Hilerriaz gain, ikusteko moduko etxea Zalgo-garai baserria da. "Ikusgarria da, bi arkurekin. Esaten da Mari gauetan Anbototik Zalgo-garaira etortzen zela lo egitera", azaldu du bitxikeria bezala Aiastuik.



Imanol Aiastui hilerrira igotzeko aldapatxoan. A.E.

**EKONOMIA** > DIRULAGUNTZAK

# Langile autonomoentzat 10,5 milioi bideratuko ditu Enplegu eta Gizarte Sailak

Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak 10,5 milioi bideratuko ditu langile autonomoen laguntza plan baterako

NAROA ODRIOZOLA > BERGARA

Krisi ekonomikoaren ondorioz, langile autonomoek arazo asko izan dituzte. Horren aurrean, Jaurlaritzak +Euskadi 09 plana sortu du urgentziazko ekintzen bidez krisi ekonomikoaren eragina arintzeko.

Gemma Zabaletak Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuak azaldu duenez, aparteko laguntzak "+ Euskadi 09 txokeplanaren barruan kokatzen dira, eta 6.385 langile autonomorengana iritsiko dira".

Programak 12 hilabeteko iraupena izango du. Gemma Zabaletak adierazi duenez, "laguntzak bateragarriak izango dira langile autonomoen jarduera errazteko dauden beste guztiekin, guztien laguntzarekin krisiari aurre egin ahal diezaioten".

Laguntza horiek onartuz, Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak bere laguntza ekarpena egin nahi du eta horren harira azpimarratu du Zabaletak "ekonomiako eta gizarteko sektore garrantzitsu horrek ikus dezan Eusko Jaurlaritzak ez duela bakarrik uzten une zailetan. Enplegu Sailak ez du inor bazterrean utziko eta, gainera, dituzten arazoei buruzko solaskidetza-gune bat sortzeko asmoa du autonomoekin".

**HIRU LAGUNTZA MOTA**

Jaurlaritzak emango dituen dirulaguntzak hiru egoera motatarako zuzenduak izango dira.

Lehendabizikoa produkziojarduerari eusteko bideratuko da. Horren bidez, langile autonomoei laguntza emango zaie Gizarte Segurantzarekiko konpromisoa betetzen laguntzeko. Atal horretarako 4,5 milioi euro emango dira. Hala, langile autonomo bakoitzak 1.125 euro jasoko ditu.

Dirulaguntzen bidez kontratazioa sustatzea du helburu Jaurlaritzak. Langile autonomoei langile berriak gutxienez sei hilabeterako kontratatzeko pizgarria emango die. Horretarako milioi bat euro bideratuko ditu. Dirulaguntzen zenbatekoari dagokionez, gehienez sei hilabetez kontratatutako langunei dagokien eta enpresak ordaindu beharreko gizartesekurantzaren kuotaren %100 emango die.

Azkenik, enpresa-jarduera bertan behera utzi behar izan duten langile autonomoei laguntzeko bost milioi euro bideratuko dira. Onuradunek 480 euroko laguntza jasoko dute hilero.

**EKONOMIA** >2.255 ERREGULAZIO ESPEDIENTE 2009AN

# Aurten baimendutako erregulazio espedienteek, 59.546 langileri eragin die

Aurtengo urtarrila eta azaroa bitartean, 2.255 erregulazio espediente onartu ditu administrazio publikoak

MAIDER ARREGI > BERGARA

Eusko Jaurlaritzak 2009an 2.255 erregulazio espediente baimendu ditu. 43 espedienteri, aldiz, uko egin die eta atzera bota diren enpresak 81 izan dira urtarriletik azaroa bitartean. Guztira, 59.546 langileri eragin diete baimendutako espedienteek. Baina, Jaurlaritzatik adierazi dute, horietako 11.316 langilek egoera horretatik irtetea lortu dutela.

**AZAROKO ESPEDIENTEAK**

Azaroan, euskal administrazio publikoak 196 espediente baimendu ditu. Hiru espedienteri, berriz, uko egin die eta 11 enpresak atzera bota du aurkeztutako EREa. Hala, administrazioaren erabakiak, 3.770 pertsonei eragin die azaroan.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzak azpimarratu du, esandako hilean onartutako espedienteen %90a akordio baten ondorioz lortutako erabakiak izan direla.

**2008AN ESPEDIENTE GUTXIAGO**

Eusko jaurlaritzak 2008an onartutako erregulazio espedienteek 12.794 langilerengan eragin zuen. Izan ere, 496 espediente baimendu zituen Eusko Jaurlaritzak; eta azaldu duenez, %90a pasatxo akordio baten ondorio izan ziren.

Familia esparruan gertatzen diren hirugarren adinaren berezko gatazkak aztertu dituzte Oñatiko Pake-Leku erretiratuen elkartean. Horretarako, Donostiako Cim-Bitartez elkarteko Pili Legarra psikologoa eta Nilda Gorvein abokatuak familia bizikidetza hobetzeko tresnen berri eman dute. Diote gaur egungo gizartean nagusien ahotsa ez dela behar beste entzuten.

**Pili Legarra** > Psikologoa eta familia bitartekaria

# "Gizarte honetan, adinean aurrera goazen heinean boterea galtzen dugu"

ARANTZAZU EZKIBEL > OÑATI

**Bitartekaritza gatazkak modu baketsuan konpontzeko metodo bat da, komunikazioa eta elkarrizketa bultzatuta. Pili Legarra psikologoak Cim-Bitartez irabazi asmorik gabeko elkartean lan egiten du, Donostiako egoitzan.**



Pili Legarra –ezkerrean– eta Nilda Gorvein, Oñatiko Pake-Lekun. A.E.

**Hirugarren adinera iristean arazoak sortzen dira familietan, batez ere dependentzia kasuak daudenean.**

Bizitzako ziklo bakoitzak gatazka bereziak ditu; beti dauzkagu gatazkak, baina hirugarren adinean ikusten da gatazkak bereziak direla, batez ere elkarbizitzak sortzen dituen gatazkak izaten dira.

Elkarbizitzan pertsona batekiko dependentzia sortzen denean, horrek eragina izaten du familia giroan. Ez bakarrik seme-alabekin bizi diren familietan, aparte bizi diren familietan ere sor daitezke arazoak. Zaintza, diruaren gestioa, etxeko obrak… arazo ugari daude. Izan ere, erabakiak hartu behar diren unean arazoak sortzen dira.

**Zergatik sortzen dira arazoak senideen artean?**

Kontuan hartu behar da momentu batean botere aldaketa gertatzen dela. Gu gazteak garenean gurasoek hartzen dituzte erabakiak, baina gero, boterea aldatu egiten da eta seme-alabek hartzen dituzte erabakiak. Eta zer pasatzen da? Askotan, erabaki horietan helduaren hitza ez da kontuan izaten, ez zaio entzuten. Agian, hark ez du gura egoitza batera joan. Horretarako, hain zuzen ere, bitartekaritza erabiltzen da. Haren ahotsa entzuten dugu eta haren hitza errespetatua izaten da.

**Epaitegiekin alderatuta, hemen ez dago irabazle eta galtzailerik.**

Normalean, arazo bat daukagunean epaitegietara joaten gara; baina epaitegietan hirugarren pertsona batek hartzen du zure bizitzari buruz erabakia, zure beharrak eta nahiak zeintzuk diren jakin barik. Epaitegietan beti dago irabazle bat eta galtzaile bat, eta bitartekaritzan hori ez da horrela gertatzen. Gure lana adostea eta akordioak hartzea izaten da.

**Familietan komunikazio falta dagoela esango zenuke?**

Komunikazio txarra dago. Familietan arazoak sortzen direnean, deskalifikazioak, purrustadak… ez da entzuten, berba asko egiten da, baina entzun batere ez. Entzuten gehiago jakin behar dugu berba egiten baino, baina ez gaude horrela heziak.

**Esan daiteke gure gizartean nagusiei ez diegula entzuten?**

Erabakietan ez dute parte hartzen, hori gertatzen da. Guk erabiltzen ditugun tresnekin egiten duguna da hura ekarri elkarrizketa saioetara, eta hari hitza eman, beste guztiei bezala.

**Nagusiei ez entzute hori gizarte osoan gertatzen den arazoa da?**

Egia da gizarte honetan, adinean aurrera goazen heinean, boterea galtzen goazela. Gure ahotsa txikiagoa da, gure erabaki maila txikiagoa da… Hori gizartean gertatzen da, eta familietan, zer esanik ez. Badaude gauzak denon artean erabaki behar ditugunak. Ez baldin badugu berbarik egiten, familian beti egongo da seme-alabaren bat lan guztiarekin kargatuko duena. Beti haserre egongo da, purrustadak botako ditu, ordainduko du zaharrarekin… eta, gainera, ez da gustura egongo. Bada, berba egin dezagun denok. Bitartekariak komunikazioa bideratuko du eta akordio batzuetara iritsiko gara. Akordioak idatzitakoak izaten dira, eta zehaztuak.

BITARTEKARITZA

**"Epaitegietan beti dago irabazle eta galtzaile bat; bitartekaritzan ez da hori gertatzen"**

KOMUNIKAZIOA

**"Familietan komunikazio txarra dago; berba egiten da, baina entzun ez"**

BELDURRAK

**"Nagusi asko ez dira ausartzen seme-alabei esaten ez dituztela bilobak zaindu gura"**

**Familiak aldatu egin dira. Lehen, emakumeak etxean zeuden, baina orain, etxetik kanpo lan egiten dute. Aldaketa horrek eragina izan du familia bizikidetzan?**

Bai, noski, gizarte aldaketa nabaria da. Emakumeok lan munduan sartu garenetik etxean hutsune bat dago. Hutsune hori bete egin behar dugu, baina ardurak denen artean banatuta, ez emakumeengan bakarrik. Gizonezkoek ere badute euren ardura eta bete egin behar dute. Niri iruditzen zait errespetuz jokatzea dela garrantzitsuena.

**Zeintzuk izaten dira nagusien kezka edo beldur nagusiak?**

Denak dira beldur dependentziari. Beste gauza bat asko ateratzen dena da zein kargatuak sentitzen diren biloben zaintzarekin. Hori da gai bat beti ateratzen dena. Hori ere berba eginda konpon daitekeen arazoa da; gertatzen dena da gurasoak ez direla ausartzen seme-alabei esaten bilobak maite dituztela, baina ez dituztela zaindu gura. Euren askatasun hori errespetuz tratatzea izango litzateke gakoa kasu horietan.

**Bizkaian Jaurlaritzak ematen du bitartekaritza zerbitzua, doan. Zenbat familiek eskatzen dute zerbitzua?**

Bilboko zentroa urtean 700 familiak erabiltzen dute. Guk Donostian lan egiten dugu. Bestalde, herentzia kasuetan, batez ere, jendeak epaitegietara jotzen du. Kasu horietan, erlazioa hautsi egiten da, baina bitartekaritzaren bidez ekidin egin daiteke.


Kutxa Aurreikuspen Planak
Zeure burua zenbat eta gehiago maitatu gaur, orduan eta hobeto biziko zara bihar.
Gaurdanik zeure buruaz arduratzeak etorkizun patxadatsua dakarkizu. Kutxa Aurreikuspen Planei esker, aurrea hartuko diozu erretiroari. Gaur zeure burua maita, eta biharko etorkizun oparoa ziurta.
I ME
zer nahi duzu bihar?
www.kutxa.net
kutxa

**kale inkesta**

# Nola uste duzu amaituko dela 'Egunkaria'-ren auzia? Epaia justua izango dela uste duzu?



**Nagore Jimenez**
Langilea
Bergara

Auzia ondo bukatzea gustatuko litzaidake, baina beldurra ere badaukat; izan ere, edozer gertatu daiteke. Kuestionatzen dena funts gutxikoa eta oso harrigarria da. Uste dut gehiegi luzatu dela Egunkaria auzia.



**Hilario Manzanedo**
Langilea
Bergara

Aurrekariak ikusita, zaila ikusten dut garbi absolbituta irtetea denak. Bestela, Espainiak erantzukizuna hartu beharko du. Gainera, 'Egin'-eko auzia ere 11 urtean isilik dago. Gizarte oso bat da kaltetua zalantza gabe.



**Maika Mujika**
Langilea
Bergara

Martxelo Otamendik esan duen moduan, euren eta Guardia Zibilaren arteko borroka bat da. Eta Poliziak ez du onartuko hanka sartzea egin dutela. Alde horretatik oso zaila daukate denak libratzea.



**Saioa Zumelaga**
Langilea
Bergara

Nik uste dut denak absolbituko dituztela. Izan ere, ez da inolako frogarik azaldu eta ez dago pisuzko arrazoirik auzi honekin aurrera jarraitzeko. Sozialki pisu handia hartu du, eta uste dut denak libratuko direla.

**irakurlearen txokoa**

# 943 25 05 05

goienkaria@goiena.com

ARRASATE ETA OÑATI

**> Okorotegiko biribilgunean eta Arantzazuko errepidean zulo handiak daude**

Irakurle batek Arantzazurako bidea oso egoera txarrean dagoela kontatu digu. Zuloez gain, asfaltoa ere jasota dagoela dio. Euria eta elurrarekin errepidearen egoera dezente okertzen da; eta gaineratzen du, horren toki turistikoa izanda Diputazioak laguntza handiagoa eman beharko lukeela. Arrasaten, Okorotegiko biribilgunean, aldiz, gurpila zulatzeko moduko zuloa dagoela esan digu.

DEBAGOIENA

**> 'Egunkari'-aren aldeko manifestaziorako autobusak**

Herritar talde batek 'Egunkari'-aren aldeko manifestaziora joateko autobusa antolatu dutenei eskerrak eman nahi dizkiete. Hainbat autobus irten ziren bailaratik *Egunkaria Libre!* lelopean, zapatuan Bilbon egin zen manifestaziora.

OÑATI

**> Gabonetako argirik ez da egongo**

Oñatiar batek deitu digu esanez, oso ondo iruditu zaiola aurten Gabonetako argirik ez jartzea. Gaineratu du, Gabonetako zuhaitza herriko plazan izatea nahikoa dela. Krisi garairako neurri ezin hobea iruditu zaiola eta eskerrak eman nahi dizkiela neurria hartu eta aurrera eraman duten udal agintariei.

**usteak uste**

**Arritxu Barruso**

# Uste dut eta espero dut

Sinesten dut adierazpen askatasuna oinarrizko eskubidea dela; uste dut *Euskaldunon Egunkaria* ixtea zentzugabekeria eta bidegabekeria bat izan zela; uste dut euskararen eta euskara maite dugunon aurkako eraso bortitza izan zela; badakit euskararen alde lan egiten duen guztia ez dela ETA; seguru nago ez dela sekula *Egunkaria* eta ETA lotzen dituen zentzuzko frogarik agertuko; ziur nago honez gero egindako kalteak konpontzea ezinezkoa dela, baina espero dut Espainiako Auzitegi Nazionalak Egunkaria auzia bertan behera uztea eta ahal den neurrian egindako kalteak erreparatzea.

Zapatuko Bilboko manifestazioaren ostean azken hausnarketa geratzen zait egiteko; uste dut *Egunkaria*-ri adierazi diogun elkartasun bera adierazi beharko geniokeela behingoz Euskal Herriari. Uste dut eta espero dut.

**zorroztailea**



**Joxemari Muxika**

# Hiztunen arteko harremanak

"Arraroa egiten zait jendea hemen euskararik gabe bizi ahal izatea. Hemen erdaraz ala euskaraz bizi, bi mundu bereizten dira, eta nire erreferentziak euskaldunen munduan daudenez, arrotz sentitzen naiz Euskal Herriko erdaldunen artean, ez dut non nagoen jakiten."

**Kartzelako urteak (...)**
Argia > 2009-12-20


«Kartzelako urteak nire biografiaren parte dira»

Euskara guztion ondarea da, munduaren altxorra beste hizkuntzak bezala eta euskararen kasuan euskaldunok bakarrik hitz egiten dugunez geuri dagokigu erabiltzea eta ondorengoetaratzea, euskarazko kultura garatzea geure gozamenerako eta mundu guztiari eskaini ahal izateko. Ondarea dela aitortzen duten askori ezinezkoa zaie euskara gordetzea ez dutelako ezagutzen. Hala ere hauei guztiei eta munduko erakunde guztiei euskara garatu dadin bitartekoak jartzeko ahalegina egitea eskatzen diegu.

Hizkuntza bat erabiltzen dutenak ezin dira hiztun kopuruan oinarritu beste hizkuntza darabiltenen gainetik jartzeko. Berdintasunean espresatzeko askatasuna nahi bada guztiek ahalegindu behar dute bestearen hizkuntza ezagutzen; hala egin ezean norbaiten askatasuna lapurtzen da.

Aniztasun handia dago gure herrietan: jatorri, erligio, azal kolore, kultura eta hizkuntza ezberdinetako pertsonak bizi gara bertan. Ezin dugu jarraitu elkarrekin arrotz izaten: egunkari ezberdinak irakurtzen, telebista saio ezberdinak ikusten, liburu ezberdinak irakurtzen, ekitaldi ezberdinetara joaten, mundu isolatuetan bakoitza bere aldetik diferente gisara bizitzen. Horixe dio Petra Elser hernaniarrak goian aipatutako elkarrizketan. Onartu beharra daukagu batak bestea eta gutxieneko erreferentzia berdinak izateko modua egin. Elkarrekin bizi ahal izateko batak bestearena ezagutzea esan nahi du horrek.

> **" Hiztun bakoitzak bere eleanaiztasun propioa izan dezakeen arren, euskarak guztiok konpartitzen dugun ondarea izan behar du "**

Kultura, erlijio eta hizkuntza ezberdinetako komunitate bakoitzak berea garatzeko eta gozatzeko bitartekoak jarri behar dira, baina horretaz gainera herri honetako euskara eta gaztelania hizkuntzak ezagutuz bakarrik lor daiteke elkarren berri jakitea eta benetako elkarbizitza izatea. Berdintasunean bizitzeko askatasuna nahi bada derrigorrezkoa zaigu guztioi gutxienez elebidunak izatea. Batzuk euskaldun eleanitzak izan nahiko dute eta beste batzuk gaztelaniadun eleanitzak, hirugarren batzuk urdu eleanitza edo katalan eleanitzak edo galego edo aimara eleanitzak, ... baina euskara guztiok konpartitzen dugun ondarea izan behar du.

ASTELEHENEKO Goienkaria

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Iker Barandiaran **Erredakzioa** Mireia Bikuña, Maider Arregi, Arritxu Barruso, Naroa Odriozola **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Diseinu arduraduna** Iñaki Iturbe **Maketazioa** Kepa Martelo **Publizitate arduraduna** Mireia Larrañaga **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazio arduraduna** Agurtzane Gaintzarain

**EGOITZA NAGUSIA**
**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00
Posta-e: arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** SS-0088/04 • **ISSN:** 1697 3542 • **Tirada:** 5.000 ale • **Difusioa:** 4.383 ale

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

ASTELEHENEKO GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen IRITZIA orrialdean edo kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria

Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

# Herriak

**Arrasate** > 14 **Bergara** > 16 **Oñati**> 18 **Aretxabaleta** > 19 **Eskoriatza** > 19
**Antzuola** > 20 **Aramaio** > 20 **Elgeta** > 20 **Leintz Gatzaga** > 20



**> ARRASATE**
Aurten sekula baino Gabonetako argi gutxiago jarriko dituzte herriko kaleetan **> 14**



**> OÑATI**
Azkoagaingo iturritik hasita, abiadura moteltzeko elementuak jarri gura dituzte **> 18**



**> ESKORIATZA**
Santa Ana antzokia egokitzeko lanekin 2010ean hasteko asmoa du Udalak **> 19**



Asier Agirre alkatea eta Maider Unda Patxi Uribarren eta Jose Mari Velez de Mendizabal seme kutunekin. A.B.



Herritar asko hurbildu zen Sastiña ermitaren aurpegi berria ikustera. A.B.



Alkateak euskal makila eman zion Maider Undari. ARRITXU BARRUSO

**ARAMAIO** > SASTIÑA ERMITAREN INAUGURAZIOA

# Aramaioren izena munduan zehar zabaldu izana eskertu diote Undari

## ALABA KUTUN

Borrokalari oletarra Aramaioko lehenengo alaba kutuna bihurtu zen atzo

**ARRITXU BARRUSO** > ARAMAIO

Maider Unda borrokalaria da, eta beste behin erakutsi du gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren aldeko borrokan eredua dela.

Aramaioko lehenengo alaba kutun bihurtu zen atzo. Goi mailako kirolaren munduan egin duen bezalaxe, oraingoan ere, gizonezkoak nagusi diren munduan bere tokia lortu du eta bere izena hizki handiz idatzi. Honen atzean bere betiko aldarrikapena: "Lana eginez gero eta gogor saiatuz gero, emakumeok ere lortu ditzakegu sariak".

Aramaioarrek eskerrak eman nahi izan dizkiote Undari Aramaioko izena mundu guztian zehar zabaldu izanagatik eta zorionak eman lortutako guztiagatik.

Sastiña ermitan ekitaldi xumea baina hunkigarria egin zuten atzo. Aramaioko azken seme kutunak, Patxi Uribarrenek, izendatu zuen Unda alaba kutun; Uribarrenek borrokalariaren nortasuna eta indarra azpimarratu zituen. Asier Agirrek, berriz, euskal makila eman zion oroigarri moduan. Ekitaldia Aramaioko beste seme kutun baten emanaldiarekin amaitu zen: Bixente Goikoetxea abesbatzaren kantuekin.

**SASTIÑAREN INAUGURAZIOA**
Domekako ekitaldiarekin Sastiña ermitaren aurpegi berri ezagutu ahal izan genuen. Konponketak egiteko urtebete pasatxoan itxita egon ostean, dotore geratu da. Udalak kulturaren elkargune bilakatu nahi du ermita. Sastiñara hurbiltzen direnek *Emakume kirolariak* izeneko erakusketaz gozatzeko aukera izango dute.

**Maider Unda** > Borrokalaria

## "Lana eginez gero emakumeok ere lor ditzakegu sariak "

**A.B.** > ARAMAIO

**Borrokalari oletarra hunkituta ikusi genuen atzo; ekitaldiaren amaieran berarekin izan ginen.**

**Errekonozimendu asko jaso dituzu aspaldian. Azken hau herritarrena...**

Bai. Hunkigarria izan da. Hurbilekoen eta ezagutzen zaituztenen errekonozimendua beti da politagoa, berezia.

**Aramaioko lehenengo alaba kutuna zara. Hori ere beste lorpen bat da, ezta?**

Betidanik gizonak izan dira famatuak eta errekonozituak. Gaur berriro ere ikusi da emakumeok ere lana eginez gero, sariak lor ditzakegula.

**Momentu oso onean ikusten zaitugu...**

Bai, eta gainera esparru guztietan; esango nuke bizitzako momentu onenean nagoela. 32 urterekin nork esango zidan nagoen tokira iritsiko nintzenik...



A.B.

**EGURALDIA** > ELURRA ETA IZOTZA PROTAGONISTA ASTE BUKAERAN

# Negua tenperatura goxoagoekin eta eu

## Asteon, tenperaturak 10 gradu igoko dira eta euria ekarriko dute izotza eta elurra albo batera utzita

**MAIDER ARREGI** > OÑATI

Gaur, abenduak 21, sartuko gara neguan ofizialki, baina, barikuan etorri zitzaigula negu gordina bete-betean esan genezake.

Elurrak, zorionez, aste bukaeran bere aurpegi onena erakutsi digu. Benetako protagonista, bai barikuan eta baita aste bukaeran ere, izotza izan da. Tenperaturak dezente egin du behera eta, zapatuan, goizeko bostak aldera, zero azpitik bost gradu markatzen zuen merkurioak.

Aipatu behar da aste bukaeran, errepidean ez dela aparteko arazorik izan eta Kurtzetako mendatea egon dela itxita soilik. Elosuan kateak beharrezkoak izan dira ibilgailuendako.

Esan ere, zapatu goizean ibarreko herri asko zuri-zuri esnatu zirela. Baina, zapaturako ondo prestatuta zeuden brigadetako langileak eta bezperan botatako gatzari esker, izotz plakak ez ziren horren sendoak izan. Oñatin, esaterako, goizean goizetik elurra eta izotza garbitzeko lanetan aritu ziren herriko espaloi, kale eta errepideetan.

Botatako izotzak eta elurteak Leintz Gatzagako zenbait baserri argi gabe utzi zituen zapatu goizean. Elektrizitateko kable batek matxura izan zuen. Arratsalderako argia bueltan zen argi gabe zeuden baserri eta etxeetara.

Bestalde, zenbait kirol ekintza ere bertan behera geratu ziren Debagoienean. Zapatu goizean eskola kirola gabe geratu ziren makina bat gaztetxo. Futbolari dagokionez, Preferente mailako eta hortik beherako partiduak jokatu gabe geratu ziren.

**BARIKUAN KAOSA**

Barikuan, ordea, ustekabez harrapatu gintuen elurrak eta baita izotzak ere. Lanera zihoazen asko errepidean harrapatuta, orduak eman zituzten auto ilaratan zain.

Goizeko lehen orduetan arazoak izan ziren Debagoieneko errepide eta mendateetan. Istripu arinez gain, Elgeta eta Kurtzetako mendateak itxi egin zituzten eta gainontzekoetan kateak behar ziren. Elgetan Izarrako bueltan, Arantzeta auzorako bidegurutzean, kamioiak eta autobus bat gurutzatuta gelditu ziren.

Elorriorako igoeran, berriz, auto bat irauli zen eta Bergararako bidean bata bestearen segidan zihoazen hainbat autok elkar jo zuten. Eguerdira arte Elgetarako bideak itxita egon ziren.

AP-1 autobidean ere elurra mara-mara bota zuen eta elurra kentzeko makina pasa artean auto gidari bat baino gehiago geratu zen autobide hasieran bidea noiz libratuko zain.

Oñatiko irteeran kaosa bizi






Zapatuan jende mordoa gerturatu zen Gorlara elurretan jolas egiteko asmoz. Gaztetxo zein held



Oñatiko brigadako langileak zapatuan elurra kentzeko lanetan ibili ziren. M.A

# uriaz hasiko dugu

izan zuten gidari askok bariku goizean. Kamioak eta autobusak ez aurrera eta ez atzera geratu ziren Elorregira bidean izotz plakak mardulak zeudelako. Auto bat baino gehiago gainera, errepidetik irten egin zen. Lanera bizikletaz edota oinez joateko erabakia hartu zuenik ere izan zen barikuan.

Aretxabaleta-Bergara ibilbidea egiteko ere arazoak izan zituzten autobusek. Norabide guztietan ikusi genituen auto ilarak bariku goizean.

Bestalde, Elgetako gaztetxoek pozik jardun zuten elurrarekin gozatzen; izan ere, Herri Eskolara ezin izan zen irakaslerik igo eta eskola gabe geratu ziren neska mutikoak.

ESANAK

**"Hego haizea sartuko da astelehenean eta tenperaturak gorako bidea hartuko du giroa epelduz"**

**Pello Zabala** > Eguraldi gizona

**HOTZ GALANTA ASTE BUKAERAN**

Zalantza gabe hotza izan da aste bukaeran protagonista. Pello Zabalak esan digunez, Arantzazun zapatuan 21:30ean -6ºC markatzen zuen merkurioak.

Hala ere, espero baino gutxiago jaitsi da termometroa. Izan ere, Pello Zabalak azaldu moduan, lainotuta zegoen zerua eta horrek frenatu egin du jaitsiera. Gainera, mendiek ere babes funtzioa egin dutela kontatu digu.

Oñatiko herrian, aldiz, gradu bateko aldea izan zen domekan 05:00ak inguruan. Merkurioak bost gradu zero azpitik markatzen zuen. Esan ere, Arrasaten, zapatu iluntzean bi gradu zero azpitik zeudela.

**TERMOMETROAK GORAKA**

Gaurko eguraldia asko aldatuko da. Hego-mendebaldeko haizea sartuko da eta merkurioak 10 gradu egingo du gora. Tarteka haizea zakar ibiliko da gainera. Euria ere arin botako du. Elur-kota goizean goiz nahiko baxu kokatuko da, 500 metro inguruan; baina, azkar 1.000 metrotik gora baino ez du zurituko.

Tenperatura maximoak 13 ºC-ren bueltan ibiliko dira kostaldean eta 6 ºC-ren inguruan barnealdean.

Martitzenean, berriz, Santamas egunean, euri arina egingo duela iragarrita dago, batez ere arratsalde partean. Tenperaturak igotzen jarraituko du, eta jada ez du izotzik egingo.

DATUA

**-6**

**SEI GRADU ZERO AZPITIK**

Tenperatura ez da iragarri bezain beste jaitsi gurean. Arantzazun 21:30ean -6ºC markatzen zuen merkurioak. Pello Zabalak azaldu moduan, lainotuta zegoen zerua eta horrek frenatu du jaitsiera.

**-5**

**BOST GRADU ZERO AZPITIK**

Domekan, 05:00etan, merkurioak -5ºC markatzen zuen Oñatin. Debagoienean zerua nahiko estalita izan da eta mendi inguruko lainoek babestu gaituzte.



duek primeran igaro zuten eguna hotz galantari hausardiaz aurre eginez. JOSETXO ARANTZABAL



Elgetako gaztetxoek elur panpin ederra egin zuten barikuan. ZIORTZA MARTIN



Gatzetxoek elurraz gozatzeko aukera ezin hobea izan dute aste bukaeran. J.A



Oñatiko San Lorentzo eta Ugarkalde auzoak zuri eta izoztuta esnatu ziren zapatu goizean. MAIDER ARREGI



Gizonezko bat, Arbolapetako arkuko argia duen haria seinalatzen. U.M.

**JENDARTEA** > APAINGARRIAK

# Aurten sekula baino argi gutxiago Gabonetan

Alde zaharreko hiru sarreretako arkuetan ipini dituzte argi apaingarriak eta udal agintariek ez dute "gehiago ipintzeko asmorik"

**UBANE MADERA**> ARRASATE

Kexu eta protesta bat baino gehiago entzun behar izan dute udal agintariek Gabonetako argiak direla-eta: "Gutxiegi" ipini dituztela, ea "non gastatzen duten herriko zergadunen artean batutako dirua" eta halakoak.

**IPINITA ETA MARTXAN**

Kontuak kontu, Udalak ez du amorerik eman eta, iragarritako moduan, sekula baino Gabonetako argi gutxiago ipini dituzte Arrasateko kaleetan: "Joan den astean ipini genituen, alde zaharreko hiru sarreren arkupeetan, eta ez dugu gehiago jartzeko asmorik", esan du Patxi Arburuak, Obra eta Zerbitzu Saileko arduradunak.

**"MURRIZKETA HANDIAK"**

Hori egiteko arrazoiak ere azaldu ditu udal zinegotziak: "Murrizketa oso handiak ditugu aurten diru sarreretan; beraz, nonbaitetik kendu egin behar dugu eta erabaki genuen Gabonetako argiak, beste gauza batzuen moduan, ez direla beharrezkoak. Badakigu batzuendako oso inportanteak direla, baina lehentasunak finkatu behar dira". Arburuak hau gaineratu du: "Iaz baino askoz ere okerrago gaude egoera ekonomikoari dagokionez; hori horrela, ahalik eta gastu minimoena egin dugu kontu horretan: argiak Udalarenak dira, argi horien kontsumoa txikia da (bonbillak barik argia duen haria da-eta) eta ahalegindu gara udal langileek ahalik eta lan gutxien egin dezaten argiak ipintzen", adierazi du udal agintariak.

**6.000 EUROTIK BEHERA**

Egindako gastuari berari dagokion datua eskatuta, berriz, 6.000 eurotik "askoz beherago" dagoela jakinarazi du Arburuak.

Aurten, beraz, farolen lana izango da Gabonetan Arrasateko kaleak argiztatzea, Ibai Arte elkarteak euren saltokietan ipinitako argi-bolatxoekin batera, jakina.

**KULTURA** > BONUAK

# Jaurlaritzaren kultura bonuak Arrasaten ere bai

25 euroko bonua hartu eta 40 gastatu ahal izango dute herritarrek Elkar dendan

**OIHANA ELORTZA** > ARRASATE

Eusko Jaurlaritzak kulturan gastatzeko bonu batzuk jarri ditu herritarren eskura. Bonu horiek hainbat denda edo kultura aretotan gasta daitezke. Arrasaten, Elkar dendan bakarrik erabil daitezke.

**PRODUKTU ZEHATZETAN**

Elkar argitaletxeko marketin saileko Eli Beteluren azalpenen arabera, produktu zehatz batzuetan bakarrik gasta daitezke bonu horiek Elkarren. "Liburu teknikoetan, hiztegietan, jokoetan eta papertegian, adibidez, ezin daitezke erabili", zehaztu du. Bestalde, bonua denda edo kultura zerbitzu bakarrean gastatu behar da eta dena batera; hau da, kopuru guztia kolpean gastatu behar da.

Dagoneko erabiltzaile bat baino gehiago joan da kultura bonu horrekin Elkar dendara. "Zaila da esatea erabiltzailearen profila zein den, baina egia da mugimedu handia nabaritu dugula. Lehenengo urtea da bonu hau atera dutena, eta, egia esan, ondo funtzionatu du; gu gustura gaude, behintzat", zehaztu du Beteluk. Elkar dendako txartelaren baldintzak mantendu egingo direla ere argitu du Beteluk.

**KUTXAZAINEAN**

Kultura bonu hori Kutxa, BBK edo Vital Kutxako kutxazainetan atera behar da. Berez, 25 euro ordaindu beharko da bonuagatik, baina 40 euro gastatu ahal izango dira kultura produktuetan. Txartelaren titular bakoitzak bonu bat eskuratu ahal izango du. Bonu horiek kultura produktuak dituzten denda, antzoki, museo edo aretoetan gastatu ahal dira. Kanpaina astelehenean hasi zen, abenduak 14, eta urtarrilaren 15a arte iraungo du.




Herritar bat, kultura bonua eskuetan duela. GOIENKARIA



UBANE MADERA

# Askok erabili dute dagoeneko igogailu berria

Udal ordezkariek estreinatu zuten Ferixalekua eta Altamira arteko igogailua (barikuan), herritar bat baino gehiago tartean zutela, hura erabiltzeko irrikan. Orain, beraz, edozeinek erabili ahalko du. 13 lagun kabitzen dira, eta egunean 24 orduan funtzionatuko du. 2008ko abenduaren 18an hasi zituzten obrak; beraz, justu urtebetera estreinatu dute. Aurrekontua: 1.885.013,13 euro pasa.

> GABONAK

## Goikobalu eta Ibai Arte elkarrekin kaleak girotzen

Ibai Artek hainbat hitzordu antolatu ditu Gabon egunetarako, herriko kaleak girotzeko; hala nola Goikobalu abesbatzarekin, Kataburu perkusio taldearekin eta Arrasate Musikaletik sortu den Dragoialde txarangarekin lotu ditu hitzorduak Ibai Artek. Goikobaluk, esaterako, herenegun, abenduak 19, eta urtarrilaren 4an girotuko ditu kaleak; Kataburuk urtarrilaren 2an eta Dragoialdek abenduaren 23an. 18:00etatik 20:00etara bitartean izango dira kale animazio guztiak.



Irudian, elkarteko bazkide batzuk duela 20 urte inguru. DANOK BAT

**JENDARTEA** > ELKARTE GASTRONOMIKOAK

# Danok Bat elkarteak, 75 urte 2010ean

Urteurren berezirako ospakizunei begira dirua lortu guran, zozketa berezia abiatu du elkarteak

**JOKIN BEREZIARTUA** > ARRASATE

1935eko martxoan eratu zen Danok Bat elkarte gastronomiko kulturala. Beraz, 2010ean 75 urte beteko ditu elkarteak.

Urteurren berezia da, behar den moduan ospatzea merezi duena. Hala, elkarteko zuzendaritza dagoeneko prestatzen ari da urteurrena ospatzeko ekitaldi sorta. Baina ospakizun ekitaldiok hainbat gastu izaten dituzte eta gastuok finantzatzeko asmoz zozketa berezia abiarazi zuten duela hilabete batzuk.

**TXARTEL GUZTIAK SALDU DIRA**

Txartel bakoitza bi euro eta erditan saldu dute eta guztiak saldu dira. Izan ere, irabazle bakarra egon arren, sekulako saria irabaziko du. Guztira hamar sari eskuratuko ditu: 900 euro herriko saltoki ezberdinetan gastatzeko, 500 euro esku dirutan, ordenagailu mini eramangarri bat, telebista bat, Wii kontsola bat, hotel berezi baten aste bukaera bat...

Zozketa joan den egubakoitzean egin zen; ONCEko zozketaren azken lau zenbakiekin bat datorrena da irabazlea. Antolatzaileek txartelak erosi dituztenei adi egoteko gogorarazi diete.

## Saridunaren opari sorta

- > Forum kirol dendan 500 euro kirol arropetan
- > Eguren arraindegian 200 euro
- > Otamendi harategian 200 euro
- > Ordenagailu mini eramangarria
- > 22 hazbeteko LDT-HD Samsung telebista
- > Wii kontsola
- > 500 euro esku dirutan
- > Hiru dezimo *El Niño*-rako
- > Asteburu bat *Hoteles con encanto* delakoetan
- > Gabonetako otzara berezia

**OBRAK** > SANTA MARINA KALEA

# Otsailean lanak amaitu, eta martxorako kalea zabalik

Lanik zailena eginda dago baina oraindik espaloiak jartzea eta kale osoa egokitzea falta da

**J.B.** > ARRASATE

Obra zaila izaten ari da Santa Marina kalekoa. Madrilgo gobernuaren E planaren bitartez ari da lanok finantzatzen. Udalak proiektua onartu eta Madrilera eskaera bidali zuen eta bertan baiezkoa jaso zuten, baldintza batekin: urte amaierarako lanak amaituta egotea.

Hala ere, ez da posible izan lanak urte amaierarako amaitzea. Atzerapenaren arrazoi nagusia udan izan ziren lur jausiek eragin dute. Izan ere, udan lanak geldiarazi behar izan zituzten eta udatik bueltan erabaki zuten lanokin nola jarraitu.

Hori horrela Udalak Madrilgo gobernuari eskatu zion obren amaiera epea luzatzea. Erantzuna, beste behin baiezkoa izan zen: 2010eko lehen seihilekoan amaitu behar dira obrak.

**LAN ZAILENA, EGINDA**

Olaia Etxenausia Udaleko Hirigintza saileko teknikariak jakinarazi duenez, lan zailena egindа dago. Hau da, maila ezberdinetan zeuden bi kale maila berean jarrita daude dagoeneko. Hala ere, espaloiak jarri, kale osoa egokitu eta bestelako lanak falta dira. Finean, guneari kale itxura eman behar zaio.

Etxenausiak adierazi duenez, otsailaren 28rako obra guztia amaituta egongo da eta martxorako zabalduko dute; egun batzuk izango dituzte azken errematеak emateko.


Irudian atzeman daitekeenez, obra handia egiten ari dira Santa Marina kalean. J.B.

**GAZTE TXOKOAK**

# Denetariko ekintzak Gabonetara begira

12 eta 17 urte arteko gaztetxoendako egitarau oparoa dute Gazte Txokoek

**J.B.** > ARRASATE

Txatxilipurdiren aisialdi eskaintzak ez du etenik. Gabonetarako ere egitarau oparoa prestatu dute Gazte Txokoetan ibili ohi diren 12 eta 17 urte arteko gaztetxoendako.

**IA EGUNERO ZEOZER**

Abenduaren 26an Gazte Txokoek ohiko moduan irekiko dituzte ateak. Egun horretan Gazte Txoko bakoitzak Gabonetarako ekintzak aurkeztu, izena emateko aukera eman eta egoitza bakoitzeko urteko azken festa egingo dute. Hau da, askaria eta jokoak.

Abenduaren 27tik aurrera hamaika ekintza prestatu dituzte: hilaren 27an futbol txapelketa Mojategin –16:00etan kiroldegi kanpoan–, 28an gaztetxera bisitaldia –11:00etan Txatxilipurdiko bulegoan–, 29an Gasteizko izotz pistara irteera –9:30ean Garibaien, bost euro– eta abenduaren 30ean Paintball eguna –10:00etan Garibaien, hamar euro–.

Azkenik, urtarrilaren 2, 3 eta 4ean irteera egingo dute Elosuko aterpetxera.

> DEIALDIAK

### Erregeen kabalgatan parte hartu gura dutenek urtarrilaren 4an eman beharko dute izena

Erregeen kabalgata berriz ari da indarra hartzen arrasatearren artean. Duela urte batzuk argizuzidunen faltak kabalgata bera bertan behera gelditzear utzi zuen. Antolatzaileak, baina, egin dute kabalgatan parte hartzeko deialdia, diotenez, "orotariko laguntza" behar dutela "edozein delarik adina". Hala, interesatuek urtarrilaren 4an eman beharko dute izena San Viatorren eraikin handian (19:00). Orduan egingo dute entsegu orokorra.

Bestalde, koroaren parte izan gura dutenek honako egun hauetan izango dituzte entseguak: abenduaren 21 eta 23an 17:00etatik 18:00etara, abenduaren 28an 18:00etatik 18:45era, abenduaren 29 eta 30ean 18:30etik 19:30era eta urtarrilaren 4an –entsegu orokorraren egunean, hain zuzen– 18:30etik 19:30era.

> MUSIKA

### Ekon taldearen agurra suposatuko du 'Ekonfestak'; hainbat taldek joko dute arrasatearrekin batera

Datorren urtarrilaren 16an eskainiko du Ekon talde arrasatearrak *Zirikatzen jarraituz* birako azken emanaldia. Azken saio berezirako Durangoko Plateruena antzokia aukeratu dute. Plateruena ez da edozein areto eta talde arrasatearraren emanaldi ikusgarriendako aproposa da oso. Emanaldia jai bihurtu dute eta *Ekonfest* moduan bataiatu. Jai berezian talde ezagun askok hartuko du parte eta taula gainean izango dira protagonistekin batera: Sharon Stoner, Sexty Sexers, Eraso, Anger eta Stricalla.

Sarrerei dagokienez aurrez erosiz gero 16 eurotan eskura daitezke. Lehiatilan bertan erosiz gero 19 euro ordaindu beharko dira. Hauexek dira sarrerak salgai dituzten lekuak: Arrasateko Lazkano musika denda, Durangoko Plateruena Kafe antzokia, Bilboko Arise denda, Gasteizko Gora taberna eta Iruñako El infierno guitar shop denda.

## oharrak

AUTOBUS ZERBITZUA

**> Garibaiko geltokiaren lekualdaketa**

Bihar, martitzena, Santamasetako azoka dela-eta zirkulazioa eten egingo dute, 6:00etatik 15:00etara.

Autobusak Nafarroa etorbidetik pasako dira eta Garibaiko geltokian Zerrajerako erlojuaren eraikiaren parean jarriko dute.

GABONETAKO KANTALDIA

**> Bedoñako Batu kultur elkartea**

Gabonetako kantaldia egingo dute Santa Eulalia elizan; abenduraren 26an, 19:30ean.

**JENDARTEA** > KOMERTZIOA

# Musika ekitaldiak, merkataritza dinamizatzeko

Abendua eta urtarrila bitartean musika ekitaldiak egingo dira, kalean, giroa alaitu eta herriguneko merkataritza bultzatzeko asmoz



Zapatuan izandako emanaldietako bat. JOSETXO ARANTZABAL

**MONIKA BELASTEGI** > BERGARA
Bedelkarrek beste ekimen bat jarri du martxan, Xpressionk!!! elkartearen eta Udalaren laguntzarekin. Hain justu ere, herriguneko merkataritza dinamizatzea da asmoa, bitartekari moduan kultura ekitaldiak erabili. Ekimen hori Eusko Jaurlaritzaren *Merkaguneak* egitasmoaren barruan dago; hala, Jaurlaritzak diruz lagundutako ekimena da, betiere, "gune urbanoetako merkataritza dinamizatzeko" helburuarekin, "horrek dakarren ondorio positiboekin", ekimenaren bultzatzaileen esanetan.

**MUSIKA BITARTEKARI**
Kultura ekitaldiez baliatuko dira kaleko giroa suspertzeko. Hain zuzen ere, Xpressionk!!! elkartearen jarduera nagusia da kultura sustatzea eta hura da horretaz arduratuko dena. Gainera, artista ez profesionalei lekua egiten saiatzen da elkarte hori; musikan, antzerkian, arte plastikoan... jarduten dutenei.

Horrekin guztiarekin, kaleko giroa suspertzeko, herriko lau gunetan ordu berean zuzeneko musika emanaldiak egongo dira datozen egunotan. Herriko lau gune horiek dira: Munibe plaza, Domingo Irala kalea, Fraiskozuri eta Simon Arrieta plaza, hain justu ere. Lehenengo saioa zapatuan izan zen eta jardun zuten honako lau taldeek: The Covers, Haritz Elizegi, Underdidge eta Tabula Rasak. Hurrengo hitzorduak izango dira abenduaren 23an eta 26an eta urtarrilaren 2an eta 4an. Egun horietan ere, esandako lau guneetako bakoitzean musika talde batek emanaldia egingo du.

Guztiak ala guztiak 18:00etan izango dira.

**JAIAK** > INAUTERIAK

# Udalak Aratusteetako kartela aukeratzeko lehiaketa deitu du

Herrian bizi edo erroldatutako edonork har dezake parte; lanak aurkezteko azken eguna da urtarrilaren 19a, kultura etxean



Aratusteetako irudi bat. GOIENKARIA

**M.B.** > BERGARA
Aratusteak iragartzeko kartel lehiaketa deitu du Udalak. Bergaran bizi edo erroldatutako edonork har dezake parte. Teknika eta koloreak norberak aukeratuko ditu, baina aurkeztu beharko da 40x60 cm-ko oinarri baten gainean eta formatu bertikalean. Era berean, informatika diskete batean ere aurkeztu beharko da. Horrez gain, testuak eroan beharko du honako esaldi hau: *Aratusteak 2010, Bergara*.

Lanak aurkezteko azken eguna da urtarrilaren 19a (13:00etan), kultura etxean. Sariari dagokionez, 350 euro jasoko ditu irabazleak, eta epaimahaiak erabakiz gero lanek ez dutela gutxieneko kalitaterik, sariketa hutsik gera daiteke. Epaia aditzera ematen den egunean jakinaraziko dute epaimahaia nork osatu duen.

**LANAK NOIZ BATU**
Udalak egoki ikusiz gero, aurkeztutako kartelekin erakusketa antola dezake. Saritu gabe geratzen diren lanei dagokienez, erakusketa egiten bada, erakusketaren azkeneko egunetik hasi eta 30 eguneko epean jaso ahal izango dira. Epea amaitu ondoren egileek jaso ez badituzte, antolatzaileek pentsatuko dute ez dituztela aintzakotzat hartzen, eta Udalak baliatu ahal izango ditu nahi duenerako. Era berean, ez dute erreklamazio edo kalteordain eskubiderik onartuko.

## oharrak

LOTERIA
**> 1943an jaiotakoek Gabonetako Loterian jokatu dute**
Azaroaren 21ean Azpeitxi jatetxean bazkaria egin zutenek jokatu dute. Bi zenbaki jokatu dituzte: 05344 eta 38921.

LOKATZA ESKOLA
**> Ziklismo eskolak urteko batzarra deitu du datorren asterako**
Hilaren 23an egingo dute, 19:00etan, kultura etxean.

MERKATARITZA
**> Gabonetako zozketa txartelak banatzen hasi da Bedelkar**
Erosketa Bedelkarko dendetan egiten dutenei eman eta zozkatuko dituzte –urtarrilaren 8a da zozketa eguna– 500 euroko bi sari eta 250 euroko lau. Bestetik, erosketak Bedelkar txartelarekin ordainduz gero, bestelako sariak ere irabaz daitezke abenduan barrena.

MUSIKA ESKOLA
**> 'Miserableak' DVDa Musika Eskolan dago**
Dagoeneko iritsi dira DVDak eta argazki bildumak. DVDaren prezioa da 15 euro; CDarena, 7. Jasotzeko, jo idazkaritzara astelehenetik egubakoitzera, 15:30-19:30 ordutegian.

DEIALDIA
**> Aritzetak gonbita egiten die herritarrei taldean parte hartzeko**
Entseguak egiten dituzte astelehen eta eguaztenetan, 21:00etan, Mizpirualde egoitzako elizan, eta abesbatzan parte hartzeko interesa duenak bertaratu baino ez du. Informazio gehiagorako deitu 660 98 32 78 zenbakira edo idatzi *aritzetaabesbatza@gmail.com* helbidera.

UDALA
**> 2010eko egutegia kaleratu dute**
Hormarako egutegi handia kaleratu du Udalak. Egutegiok herri osoan banatuko dira. Herriko etxe, denda eta taberna guztietara bidaltzeko ahalegina egingo dute, baita baserrietara ere. Postontzietan sartzeko egutegia tolestu beharra dagoen kasuetan, alboan lagako dituzte. Jasotzen ez duenak hilaren 28tik aurrera eska dezake Udaltzaingoan.

AGORROSIN
**> 2010eko tasei buruzko informazio orriak eskuragarri daude**
Agorrosin Ekintza Guneko sarreran daude informazio eskuorriok. Kirol zerbitzutik azaldu dutenez, 2010eko aldaketa nagusia da kirol zerbitzuko tasak ezartzeko orduan aintzat hartu dela herrian erroldatuta egotea. Hala, Bergaran erroldatuta ez dagoenak %50 gehiago ordainduko du abonua; erroldatutakoak, berriz, 2009an bezala ordainduko du.

**Juantxo Urbieta** > Dantza solteko irakaslea

# "Ikastaroa egiten duten guztiek ikasten dute soltean"

MONIKA BELASTEGI > BERGARA

**Lau urte daramate Abarka dantza taldeko Janirek eta haren aita Juantxo Urbietak dantza solte eskolak ematen. Urtarrilean beste ikastaro bati ekingo diote eta Juantxok horren gaineko nondik norakoak azaldu dizkigu. Gizonezkoei deialdi berezia egiteko ere aprobetxatu du, "gutxik ematen dutelako izena". Baita Udalari "laguntasun handiagoa" eskatzeko ere, "batik bat entsegurako lokalekin".**

**Ze dantza irakatsiko dituzue?**

Fandangoa eta arin-arina, eta horiek irakatsiko ditugu Abarka taldeko Jon Arrillagak, Janire alabak eta nik neuk. Eta porrusalda eta trikitia ere irakatsiko ditugu. Pausoak berdinak dira, baina doinua aldatu egiten da.

Bestelako erromeria dantzen ikastaroa ere badago, larraindantza eta halakoena, eta hori emango du Patxi Monterok.

**Beti entzun izan da fandangoa eta arin-arina ikasteko zailak direla.**

Ez dira zailak, eta esan dezaket ikastarora etortzen diren guztiek ikasten dutela, plazan defendatzeko moduan behintzat, nahiz eta batzuei gehiago kostatu eta beste batzuei gutxiago.

Plaza baten defendatzeko moduan zortzi pauso ikastea nahikoa da: lau fandangoan eta lau arin-arinean. Hori dakiena plazan ondo aritzeko moduan dago.

**Betiko pausoak irakasten dituzue.**

Bai, Gipuzkoako ohikoak. Hainbat urte daramagu irakasten eta esperientziak erakutsi digu pauso berriekin ikasleak gehiago nahasten direla. Askotan esaten dute: "Lehengo pausoak irakatsi guri. Berria polita da ikusteko, baina...". Gainera, berriak zailagoak dira.



Juantxo Urbieta, alaba Janirerekin. JOSETXO ARANTZABAL

**"Gure nahia da ahalik eta jende gehienak ikastea soltean, plazetako giroa pizteko"**

**Nori zuzenduta dago ikastaroa?**

Guztiei. Iaz, 16 urtetik hasi eta 61era arteko ikasleak izan genituen. Baina adinarekin kontuz ibili behar da: batzuen eta besteen artean ezberdintasuna handia dago, guztiek ezin dute erritmo bera jarraitu, eta kontuan izaten dugu hori eskolak emateko orduan.

Bestalde, beroketa ariketak ere egiten ditugu hasi aurretik, eta baita luzatze ariketak ere. Korrika pixka bat ere egiten dugu. Hori guztia kontuan izanda, ikasleek aintzat hartu behar dute arropa erosoa eraman behar dutela, zapatilak eta aldatzeko kamiseta bat.

Horrez gain, ikasleak dakiena ere kontuan hartzen dugu. Hau da, ikastarora etortzen direnetako batzuk hutsetik hasten dira eta beste batzuek, berriz, badakite zerbait. Hortaz, ezberdintasun handirik egon ez dadin, urtarrilean hastapen maila egiten dugu eta otsailean ikastaroari betean ekin. Iaz hasi ginen, hastapen mailarekin, eta asmatu egin genuela uste dut.

**Zaletasuna badago.**

Bai, eta erromeriak ikusi besterik ez dago. Hain justu, gure helburua da ahalik eta jende gehienak ikastea dantza soltean, plazetan giroa egon dadin.

**Ikastaroaren jarraipen moduan-edo antolatzen dituzue erromeriak.**

Bai, ikasleek praktikan jar dezaten ikasitakoa. Maiatzean erromeria sorta antolatzen dugu, azkenekoa afariarekin, eta oso polita izaten da.

**Nola eman daiteke izena?**

Jardunera deituta (943 76 36 61) edo niri (685 79 78 65). Hastapen eskolak hasiko dira urtarrilaren 7an eta sakontzekoa, otsailaren 4an. Eskolak izango dira eguenetan, 19:30ean, Ipintzako gimnasioan eta prezioa dira 12 euro (10 Jarduneko bazkideentzat).

---

**JENDARTEA** > TEKNOLOGIA BERRIAK

# Urtarrilean emango dituzten ikastaroen zerrenda kaleratu berri du Bizikasik

## Sukaldaritza begetarianoa eta arrisku handiko elikagaiak nola manipulatu ikasi ahal izango dira

M.B. > BERGARA

Urtarrilerako hainbat ikastaro antolatu ditu Bizikasik. Horietako bat da sukaldaritza begetarianoa. Eskolak izango dira urtarrilaren 12an, 14an, 19an, 21ean, 26an eta 28an, goizez, eta irakaslea izango da Sabrina Pato.

Horrez gainera, arrisku handiko elikagaien manipulazioari buruzko bi ikastaro ere egongo dira: bata izango da urtarrilaren 13an eta 14an, 16:00-19:00 ordutegian. Bestea izango da urtarrilaren 27an eta 28an, 16:00-19:00 ordutegian. Biak ala biak izango dira Miguel Altuna institutuan eta, besteak beste, landuko dituzte: elikadura eta nutrizioa, infekzioak eta elikagaietako intoxikazioak, tresneria erabiltzeko arauak eta elikagaiak kontserbatzeko era desberdinak.

**IZENEMATEA ZABALIK**

Ikastaro horiek guztiak doan dira eta izena emateko edo informazio gehiagorako deitu behar da 943 76 93 94 zenbakira (Miren) edo *infor@bizikasi.com* helbidera idatzi. Bizikasitik jakinarazi dute ikastarook plaza mugatuak dituztela.

**HITZALDIA ERE BAI**

Ikastaro horiez gainera, hitzaldia ere antolatu du Bizikasik urtarrilaren 13rako. *Komunikatzen ikasi eta erlazioak hobetu* gaiari buruz jardungo dute Miguel Altuna institutuan, 18:00etan.

---

**JENDARTEA** > IKASTAROAK

# Beste hamaika ikastaro urtarrilean KZgunean

## Izenematea dagoeneko zabalik dago eta ikastaroak doan dira

M.B. > BERGARA

Dagoeneko iragarri dituzte KZguneak urtarrilean emango dituen ikastaroak. Hamaika ikastaro eskainiko dituzte: *Internet+e-Administrazioa*, urtarrilaren 11tik 22ra, astelehenetik egubakoitzera, 11:00-13:00 ordutegian; *Ebay*, urtarrilaren 11n, 09:00-11:00; foro bat sortzea, urtarrilaren 12an, 09:00-11:00; *Softonic* librea, urtarrilaren 15ean, 16:00-18:00; *Linkedin*, urtarrilaren 18an, 16:00-18:00; LDT, 19an, 16:00-18:00; sinadura elektronikoa, 20an, 16:00-18:00; *Google calendar*, 22an, 09:00-11:00; jarri zure iragarkiak Interneten, 26an, 16:00-18:0; *Google sites*, 27an, 16:00-18:00 eta *Paypal*, 28an, 09:00-11:00.

KZguneko ikastarook doan dira eta dagoeneko eman daiteke izena.

OGIZUN
koop. elk.
okindegia




Ibargarai 44-46 BERGARA
943 76 45 53
Ibargarai 17 behea BERGARA
943 76 21 37
Obradorea. Zubillaga 10 OÑATI
943 78 24 13



Azkoagain futbol zelai inguruan errepide bazterrean aparkatzen dute autoek. JOSETXO ARANTZABAL

**ERREPIDEAK** > ZIRKULAZIOA

# Azkoagaingo iturritik hasita, abiadura moteltzeko elementuak

Partiduak daudenean errepidean aparkatzen dituzten autoek sortzen duten arazoari irtenbidea emateko, Udalak eskaera egingo dio Aldundiari

**MIREIA BIKUÑA** > OÑATI

Azkoagainen belar artifiziala jarri zutenetik asko gehitu da futbol zelaiaren erabilera –besteak beste, Aloñakoen partiduak eta entrenanenduak, herriko futbol txapelketakoak eta eskola kirolekoak–, eta bertara doazenek bide bazterrean aparkatzen dute. Horrek guztiorrek arriskua areagotu du Lezesarri auzoan, eta bizilagunek abiadura moteltzeko neurriak eskatu dituzte Udalera bidalitako idatzian. Horren harira, Udalak Azkoagaingo iturritik hasita abiadura moteltzeko elementuak jartzeko eskaera egingo dio Aldundiari, errepidea Aldundiarena da-eta.

Lezesarriko bizilagunek bidalitako eskaeran, autoak beste gune batzuetan aparkatzeko eskaera egiten dute. Udal ordezkariek diote Azkoagainera doazenek badutela non aparkatu; besteak beste, Berezao industrialdean.

**HIRIGUNE IZAERA**

Azkenik, futbol zelaiaren aurretik doan errepide inguruari hirigune izaera ematea eskatu dute Lezesarrikoek, eta, besteak beste, seinale eta argiztapen egokiak eta udaltzainen presentzia. Dena den, Udalak aldaketa ez onartzea erabaki du, horrek arau subsidiarioen aldaketa ekarriko lukeelako. Baina egokiak diren aldaketak egitea onartu dute.

**KULTURA** > ABESBATZA

# Broadwayko kantuak eta 'Beltza' musikala Ganbara Txikikoekin

Hiru emanaldi egingo dituzte Santa Ana aretoan 27an eta 28an

Sarrerak salgai jarri dituzte kultura etxean bost eurotan

**M.B.** > OÑATI

Ganbara Txiki abesbatzak *Beltza* ipuin musikala egingo du datorren astean. Hain zuzen ere, hiru emanaldi egingo dituzte: hilaren 27an 19:30ean eta 28an 17:00etan eta 19:30ean. Sarrerak salgai daude kultura etxean bost eurotan.

**IZAR BATEN ISTORIOA**

*Beltza* ipuin musikala Josu Alberdin konpositoreak idatzi du, eta izar baten istorioa kontatzen du. Zeruan distirarik ez duenez, lurrera jaistea erabaki du, eta askotariko gorabeherak bizi izango ditu.

Ganbara Txikikoen ahotsekin batera, jazz laukote batek jarriko du zuzeneko musika. Gainera, hogei bat lagun ibiliko dira antzezle lanak egiten txotxongiloekin.

Emanaldiaren hasieran, Broadwayn arrakasta izan duten lau musikaletako potpourria eskainiko dute; hain zuzen ere, *Mamma mia*, *You raise me up*, *The lion king* eta *Sister Act*.

> UMEAK

### Gabonetako haur parkea eta ur-jokoak hilaren 28an, 29an eta 30ean Zubikoa kiroldegian

Hurrengo astean jarriko dituzte umeendako Gabonetako haur parkea eta ur-jokoak kiroldegian. Hilaren 28an igerilekuan egingo dituzte jokoak, 10:00etatik 12:00etara eta 16:00etatik 18:00etara. Bestalde, haur parkea kiroldegiko kantxan jarriko dute hilaren 29an eta 30ean, 11:00etatik 14:00etara eta 16:30etik 20:00etara. Egun osoko sarrera 4 eurotan salduko dute eta egun erdikoa, 2,50 eurotan.

> GABONAK

### Olentzerok azken gutunak jasoko ditu eguenean plazan, umeen artean gozokiak banatu ondoren

Olentzero herriko kaleetan ibiliko da eguenean, hilaren 24an. Otadui zuhaiztitik abiatuko da, 18:00etan, Jose de Azpiazu musika eskolako triki-pandero taldekoen eta Martiñola kultura taldearen laguntzarekin. Kalerik kale ibiliko da umeei eta helduei gozokiak banatzen. Ibilbidea herriko plazan bukatu du eta bertan jasoko ditu azken gutunak.

> DEIALDIA

### Futbol sailak Gabonetako saskiaren zozketa egingo du Aloñak eguenean jokatuko duten partiduan

Futbol sailekoek Gabonetako sakiaren zozketa Aloña Mendik Oiartzunen kontra eguenean, 16:00etan, jokatuko duten partiduaren atsedenaldian egingo dute. Hiru sari zozketatuko dituzte futbol sailekoek: lehen saria Gabonetako saskia izango da; bigarren saria, marisko-jan ederra; eta hirugarrena, Zelai Zabal jatetxean bi lagunendako afaria.

> DEIALDIA

### Aloña-Urbiako edo Artia-Aitzgaineko larreetara ganadua eroateko izenematea hilaren 31ra arte

2010ean Aloñara, Urbiara eta Oltzara ganadua eroan gura dutenek baimena eskatu beharko dute udal bulegoetan, abenduaren 31 baino lehen. Epea bukatuta ez dute baimenik emango. Baimena eskatzeko hainbat datu eman behar dituzte: nekazaritza ustiaketaren titularraren izen-abizenak; ardi eta bildots kopurua; behor eta behi kopurua; eta erabiltzen dituen txabolen izenak.



ALBERTO GALDOS

## Mus txapelketako irabazleak

Hilaren 12an jokatu zuten Kale Zaharra elkartearen VI. mus txapelketako finala. Carlos Martinek eta Jesus Bellidok irabazi zuten. Txapelak, gazta eta ardoa jaso zituzten opari. Finalean Tomas Gomezen eta Txema Gomezen kontra jokatu zuten. Sei bikotek parte hartu dute Kale Zaharra elkarteko txapelketan.



Espainiako Estatuaren Tokian Tokiko Inbertsioen Fondoarekin zine zaharra, gaztetxea ere izan zena, egonkortu nahi dute. ARTXIBOA

**ESKORIATZA** > UDALA

# Datorren urtean Santa Ana antzokia egokitzeko lanekin hasi nahi dute

Argiteria publikoa hobetzeko azterketa agindu dio enpresa bati; emaitzak datorren hilerako espero ditu

**MIRIAN BITERI** > ESKORIATZA

Datorren urtean zine zaharrean Santa Ana antzokia egiten hasteko asmoa du Eskoriatzako Udalak. Erabilera anitzeko aretoa bi fasetan egitea aurreikusita du. Lehenengoan, lokala egonkortuko lukete; hain justu ere, teilatua eta egitura berritzea; eta bigarren batean, gainerakoa.

Iragarpen hori Eskoriatzako alkate Pedro Lasagabasterrek egin zuen joan den eguenean, *Goiena magazinea*-n. Jakinarazi zuenez, lehenengo fasea Espainiako Estatuaren Tokian Tokiko Inbertsioen Fondoaren bidez lortutako diruarekin egingo da; eta bigarrena, Foru Aldundiaren laguntzekin gauzatzea da asmoa. Alkateak areto horren garrantzia azpimarratu zuen: "Eskoriatzak tamaina horretako aretoa behar duela uste dugu, unibertsitatea hor daukagulako. Teknikoek eta planoek esaten digute gutxienez 150 eserleku sartzen direla han".

**ARGITERIA PUBLIKOA**

Eskoriatzako Udalak 440.000 euro inguru jasoko ditu E-Planaren bidez. Santa Ana egokitzen hasteaz gain, diru horrekin argiteri publikoa hobetzea nahi du Udalak. Horren harira, Lasagabasterrek azaldu zuen dagoeneko horren gaineko azterketa egitea eman diola enpresa bati eta datorren hilerako horren emaitzak jasotzea espero duela.

**IRAUNKORTASUNA**

Bestalde, jakinarazi zuen iraunkortasunaren bidean "pauso trinkoak" ematea nahi dutela eta horretarako, eredua "zeharo" aldatu beharra dagoela. Gogorarazi zuen dagoeneko ingurumenarekin lotuta hainbat neurri hartu dituztela horren harira; hala nola, uraren ordenantzaren eraketa edo, kultura etxean, biomasa galdara jartzea.

Gaineratu zuen datorren urteko aurrekontuak ere ildo horretatik joango direla. Aipatu zuen Eskoriatzako Industrialdearen salmenta dela-eta, kontuak "beste lasaitasun batekin" egingo dituztela. Azken horren harira, gaineratu zuen azkenean asteon egingo dutela Industrialdearen salerosketaren bigarren zatia.

**ESKORIATZA**

## Alokairuzko garajeen zozketa dago bihar

Onartutakoen zerrendaren aurkako erreklamazioak gaur arte aurkez daitezke

**M.B.** >ESKORIATZA

Eskoriatzako Udalaren jabetzakoak diren Intxaurtxuetako kiroldegi azpiko 18 garaje alokairuan jarri dituzte eta dagoneneko izena eman dutenen artean, onartutakoen eta baztertutakoen zerrenda jarrita dago herriko udaletxeko iragarki oholean. Interesatuek gaur, astelehena, arte izango dute epea zerrenda horren aurkako erreklamazioak aurkezteko.

Udaletik azaldu digutenez, bihar, martitzena, garaje horien zozketa egingo dute udaletxean. Zozketa publikoa izango da eta interesa duen edonork parte hartu ahal izango du horretan. Hitzordua 17:30ean jarrita dago.

> ESKORIATZA

### Aurten 50 urte bete dituzten kintoek loteria erosi dute

Aurten 50 urte bete dituzten Eskoriatzako kintoek urrian egindako ospakizunean loteria erostekotan geratu ziren (izena eman zutenak bakarrik). Egunotan jakinarazi digute Umearen loteriako bi dezimo erosi dituztela eta zenbakia honako hau dela: 42.859.

> ARETXABALETA

### Etxerik etxeko zerbitzua esleituko dute osoko bilkuran

Gaur, astelehena, arratsaldean osoko bilkura dago Aretxabaletako udaletxeko aretoan. Eztabaidatuko dituzten gaien artean, etxerik etxeko zerbitzuaren esleipena eta Jakion enpresaren kapitala handitzearena daude.

Horretaz gain, aurkeztutako hiru mozioetaz jardungo dute. AHTren gaineko galdeketa egin izanagatik Aramaioko alkate Asier Agirreri egingo dioten epaiketaren gainekoa da horietako bat; eta gainontzekoak Aminatou Haidar sahararra eta Segiko kideen azken atxiloketen gainekoak. Betiko moduan, 18:00etan hasiko da bilkura.

## Hirugarren geratu dira Elortondo eta Vazquez

Aretxabaletako UDAko karateko sailekoek bi txapelketetan parte hartu zuten hilaren 12an eta 13an. Zapatuan, Donostiako borrokaarteen gunean, elbarritasunak dituztenen txapelketa egin zuten. Kata modalitatean, Alex Elortondo hirugarrena izan zen. Domekan, selekzioen nazioarteko txapelketa izan zen Kantabrian. Odei Vazquezek Euskadiko selekzioarekin parte hartu zuen, hirugarren geratuz.





UDA



Erretiratuek kinan jolastuko dute martitzenean, baina karta joko txapelketak izan zituzten joan zen astean. IRATI AGIRREAZALDEGI

**ANTZUOLA** > SANTO TOMAS

# Umeek eta erretiratuek txistorra jana egingo dute

## Herri Eskolako umeek azoka egingo dute gaur arratsaldean frontoian; erretiratuek Landatxopen merienda izango dute martitzenean

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > ANTZUOLA

Santo Tomas egunaren bueltan hainbat ospakizun izaten da eta Antzuolako erretiratuek ere egingo dute eurena. Bihar, martitzena, merienda izango dute eta txistorrarik ez da faltako. Gero, erretiratuek gogoko duten kina jolasa izango da.

Kina gogoko dute, baita karta jokoa ere, eta joan zen astean txapelketak egin zituzten. Puntuan eta briskan Carmen Egaña eta Sabina Agirre izan ziren irabazle; tutean Tomas Bakaikoa eta Gerardo Muñoz; eta musean Antonio Larrea eta Luis Mari Jauregi. Sariak bihar banatuko dituzte.

**ANIMALIAK ETA GOZOAK**

Erretiratuek bihar, baina Herri Eskolako neska-mutikoek gaur, astelehena, azoka egingo dute arratsaldean frontoian. 14:00etatik 14:30era bitartean ikasleek azokara eramango dituzte han erakusgai ipini beharrekoak. Ondoren, bigarren mailatik seigarrenera bitartekoek azoka bisitatu eta jolasak egingo dituzte bosgarren mailara artekoek eskolako gimnasioan. Bigarren mailatik beherako ikasleek, 15.30ean hasiko dute azokara bisita.

Azokan ikasleek etxetik edo baserritik ekarritako animaliak baino ez dira izaten orain: katuak, oiloak, txakurrak…

Santo Tomas azokan ezin txistorrarik falta. Hortaz, 16:00etan eskolako neska-mutikoei txistorra banatuko diete, baita txokolatea ere.

Bide batez, umeek ekarritako jatekoak zatituko dituzte. Izan ere, etxean egindako gozoak eramaten dituzte orain: pastelak, tartak, gailetak… Umeak eurak izango dira gozo horiek probatzen lehenak eta ondoren, 16:30etik aurrera, azokara joaten direnen artean banatuko dituzte.

Udal Pilotalekuan, azokan, seigarren mailako ikasleek txerriki loteen zozketarako txartelak salduko dituzte eta 17:00etan egingo dute zozketa.

**ARAMAIO** > UDALA

# Olioa birziklatzeko poteak banatuko ditu Udalak orain hasi eta urtarrilaren 10era arte

## Poteetan jasotako sukaldeko olioa Udalak hiltegi zaharrean ipini duen deposituan hustu beharko dute herritarrek

**ARRITXU BARRUSO** > ARAMAIO

Aramaioko Udalak olioa birziklatzeko sentsibilizazio kanpaina ipini berri du martxan. Gaur egun ez zaio beste erabilpenik ematen Aramaioko sukaldeetan erabiltzen den olioari, eta hori aldatzea gura du Udalak kanpaina honen bitartez. Azken baten, herritarrak sukaldean erabiltzen den eta ingurumenarendako horren kaltegarria den olioa birziklatzera animatu nahi dituzte herritarrak. Hori horrela, urtarrilaren 10era bitartean olioa birziklatzeko poteak banatuko dituzte; etxe bakoitzeko edukiontzi bat emango dute. Auzoetako bizilagunei auzo alkateek banatuko dizkie poteak; hau da, Altzaga, Arexola, Arraga, Arriola, Azkoaga, Barajuen, Etxaguen, Gantzaga, Oleta, Untzilla eta Uribarriko auzo alkateek etxez-etxe banatuko dituzte edukiontziak. Ibarrako bizilagunek, berriz, udaletxean bertan jaso ahalko dituzte urtarrilaren 10era bitartean.

Erabilitako olioa pote horietan gorde beharko dute eta Udalak hiltegi zaharrean ipini duen depositoan hustu beharko dituzte gero.

**ELGETA** > PILOTA

# Hamaika egun txapelketako finala prestatzeko

## Finalean Anjel Ibarluzea-Alberto Telleria; Koldo Goenaga-Alex Arantzabal, Jon Irazabal-Mikel Ormaetxea; eta David Peñalver-Txomin de Vega

**LARRAITZ ZEBERIO** > ELGETA

Ikusmina handia zen eta udal pilotalekura jende ugari hurbilden zen bariku iluntzean. Karteleran, lau norgehiagoka, guztiak ere lau t'erdiaren barruan herri mailan egiten den pilota txapelketako finalerdiak.

Gazteetan lehenengoak finalerako txartela lortzen Jon Irazabal eta Mikel Ormaetxea izan ziren. Finalean izango den beste bikotea, David Peñalver eta Txomin de Vega izango da. Bi bikote finalistak sailkapen ligaxka berean aritu dira, eta dagoeneko aurrez aurre ikusi ditugu kantxan. Iazko txapeldunak, Peñalver eta De Vega nagusitu ziren partidu hartan.

**PUTZUA GARBITU DUTE**

40 urtetik gorakoen txapelketan, berriz, finalean sartzea eta txapela janztea zer den dagoeneko ezagutzen duen pilotari bat baino gehiago egongo da aurten. Alex Arantzabalen eta Alberto Telleriaren kasua da. Bikote moduan lortutako garaipenak dira ordea, eta aurrez aurre ikusiko ditugu 31ko finalean. Esan, txapelketa barruko norgehiagokan Ibarluzea eta Telleria nagusitu zitzaiela Goenagari eta Arantzabali.

### Finalerdietako emaitzak

| | |
|---|---|
| **40 URTETIK GORAKOAK** | |
| **1.** Koldo Goenaga-Alex Arantzabal/Asier Morales-Fernando Zenitagoia | 22-14 |
| **3.** Anjel Ibarluzea-Alberto Telleria/Jose Mari Zubiaurre-Iñaki Ugarteburu | 22-11 |
| **40 URTETIK BEHERAKOAK** | |
| **1.** Unai Alkorta-Etor Garate/Jon Irazabal-Mikel Ormaetxea | 11-22 |
| **2.** David Peñalver-Txomin de Vega/Iban Retolaza-Jabier Larrañaga | 22-9 |
| **FINALAK, HILAREN 31N** | |
| **1.** Koldo Goenaga-Alex Arantzabal/Anjel Ibarluzea-Alberto Telleria | |
| **2.** Jon Irazabal-Mikel Ormaetxea/David Peñalver-Txomin de Vega | |

**LEINTZ GATZAGA** > AISIALDIA

# Ekitaldiz betetako egunak antolatu ditu Gurelek

## Irteerak, ikastaroak, eta txapelketa egingo dituzte abenduaren 28tik urtarrilaren 5era

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA

Gurel guraso elkarteak ekitaldiz betetako oporrak antolatu gura dizkie herriko neska-mutikoei eta inoiz baino ekintza gehiago egingo dituzte abenduaren 28tik urtarrilaren 5era bitartean.

**IZOTZ PISTARA IRTEERA**

Ekitaldiok zapatuan hasi zituzten, Gabonetako apaingarriak jarrita plazako aterpean. Eta eguenean, Gabon eguna, kantuan joango dira umeak eta gurasoak baserriz baserri.

Jarduerak, baina, ez dira hor bukatuko: abenduaren 28an, astelehena, korapilo ikastaroa egingo dute kultur etxean. Herritar batek erakutsiko die umeei zelan egiten dituzten korapiloak marinelek. Martitzenean, hilak 29, txikienek kaxak apaintzen ikasiko dute eta gazteak Gasteizko izotz pistara joango dira. Eguaztenean, ostera, patin festa egingo dute pilotalekuan; umeak eta helduak patinekin gora eta behera.

Urtarrilaren 2rako Donostiako Kutxagunera irteera pentsatu dute. Horretarako, baina, aurrez eman behar dute izena Labidean interesa duten familiek. Urtarrilaren 4an, frontenis txapelketa izango dute gaztetxoek eta 5ean, berriro patinekin jardungo dute pilotalekuan.

**POZIK JARDUEROKIN**

Gureleko kideak pozik daude antolatutako jarduerekin: "Kanpoko inori ezer eskatu barik herrikoen artean egingo ditugu guztiak. Ekitaldi politak dira, gainera, ume eta gaztetxoak ez daitezen aspertu opor egunetan".




**> DKS**
Debagoieneko kirol sariak banatu zituzten barikuan Oñatin > 24-25



**> KROSA**
Zuhaitz Ezpeleta izan azkarrena Santamasetako proban > 23



**> ELKARRIZKETA**
Aretxabaletak Amurrioren kontra berdindu zuen atzo Ibarran. Partiduaren aurretik Haritz Igartua kapitainarekin berba egin genuen hirugarren mailari eta taldeari buruz> 21

**ESKALADA** > SANTAMASETAKO 8. BOULDER TXAPELKETA ETA EUSKAL HERRIKO TXAPELKETA

# Aranbarri eta Odriozola, Euskal Herriko txapeldunak

**PAREKATUTA**
Maila ezin hobea erakutsi zuten eskalatzaileek finalean

**TXAPELKETA**
Guztira, 92 eskalatzailek hartu zuten parte zapatuan

**ARRAKASTA**
Aurten, inoiz baino ikusle eta jarraitzaile gehiago batu zen Uarkape pilotalekuan

**MAIDER ARREGI** > ARRASATE

Hotz galantari aurre eginez, final ikusgarria jokatu zen zapatu arratsaldean Uarkapeko pilotalekuan. Ikusmin handia piztu zuen, izan ere, bertan zeuden Euskal Herriko eskalatzaile onenak. Eskalatzaileek ez zuten hutsik egin eta ikuskizun aparta eskaini zuten. Euskal Herriko elite mailako bi txapelak Azpeitiko eskalatzaile taldearendako izan ziren.

Emakumezkoen elite mailako txapel, Leire Aranbarrirendako izan zen. Oso gustura azaldu zen 24 urteko azpeitiarra egindako lanarekin: "Nahiko urduri egon naiz hasieran, baina nerbioak kontrolatu ditut eta egindako lanarekin pozik nago. Gogorrak izan dira boulderrak". Aranbarrik orain txapelarekin eta eskaladarekin disfrutatzen jarraituko duela gaineratu digu eta txapelketaren bat badago, bertan parte-hartzeko asmoa ere azaldu du.

Gizonezkoen elite mailako txapela Mikel Odriozola eskalatzailearendako izan zen. 26 urteko zestoarrak bere burua ondo ikusi du txapelketan eta aurkariak oso indartsu. "Egindako pausu guztietan lehenengo *pegeak* ongi egin ditut eta hori izan da giltza. Azkenekorako, ordea, nekatuta eta indargabe nengoen. Aurkariak ere indartsu ikusi ditut, baina azken boulderra ez du inork egiterik izan. *Pege*-tara erabaki zen Euskal Herriko txapelketa, "egindako blokeak ondo irakurrita egin ditut eta indarrarekin hasi ditut. Saiakera guztiak ongi atera zaizkit".

**HARROBI BIKAINA**

Mikel Castillo antolatzaileak balorazio oso positiboa egin du: "Lortutako emaitzekin eta jendearen erantzunarekin oso pozik gaude. Euskal Herriko eskalatzaile onenak izan dira Uarkapen. Hemengo harrobia oso ona da". Guztira, 92 eskalatzailek hartu du parte. Euskal Herriko txapelketan 21 eskalatzaile lehiatu ziren.

Harrobi bikainaren eredua, Mikel Velasko arrasatearra da. Datorren urtean, Velasko gaztea, elite mailan arituko da. "Oso ondo ikusi dut nire burua, nahiz eta bigarren postuan geratu 20 urtez azpikoen mailan. Txapelketan maila ezin hobea izan da, baina indarra eta erresistentzia ezinbestekoak dira aurrera egiteko". Kategoria berrian, gogor egin beharko duela lan dio Velaskok.

Datorren urtean, Santamasetako boulder txapelketa ere egiteko asmoa dutela kontatu zigun Castillok; dena den, urte berrian zehar zehaztuko dute aurtengo harrera bikaina ikusita. Izan ere, Euskal Herriko Txapelketako Federazioaren helburua da herriz herri antolatzea txapelketak.

**emaitzak**

MAILAZ MAILA

**ELITE NESKAK**
1. Leire Aranbarri

**ELITE MUTILAK**
1.Mikel Odriozola

**20 URTEZ AZPIKO NESKAK**
1.Itziar Zabala

**20 URTEZ AZPIKO MUTILAK**
1.Haritz Dominguez

**HERRIKOIA MUTILAK**
1.Xabier Derteano



**NORGEHIAGOKA** Mikel Odriozola eta Leire Aranbarri Euskal Herriko txapeldunak eskalada lanetan fin. MAIDER ARREGI



**IRABAZLEAK** Kategoria guztietako irabazleak elkarrekin; gustura azaldu ziren egindako lanarekin. MAIDER ARREGI

ASTELEHENEKO
# Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

# Harpidedunen txokoa
## Abenduko sari nagusia

Sariak irabazteko
**HARPIDETU!**

**Tel.: 943 08 10 50**
***kluba@goiena.com***

## ORDENAGAILU ERAMANGARRIA
**zorionak!**

### Itziar Baltzategi
Saria jasotzera bere alaba Irati etorri zen.

**Zuk ere hurrengo sari nagusian parte hartzea nahi baduzu, harpidetu!**


Laskar Informatikako Mikel Askargorta saria ematen eta Itziar Baltzategi irabazlearen alaba Irati saria jasotzen.

## Urtarrileko sariak

**UMEENTZAKO JOSTAILUAK**


Umeentzako euskarazko jostailuak

**UMEENTZAKO LIBURUAK**

PAMIELA


Pamiela etxearen umeentzako liburuak.

**SASKIBALOIRAKO SARRERAK**


Lagun Aro GBC - CB Murcia saskibaloi partidurako sarrerak.

**PENDRIVE BAT**

Goiena


Goienako pendrive bat.

# SARI NAGUSIA
**URTARRILETIK MARTXORA ARTEKO PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOZKETATUKO DA**



**JOCCA RACLETTE**
- Grill-plantxa estaldura itsasgaitzarekin eta ateragarria, erraz garbitzeko.
- Oinarria plaka herdoilgaitzarekin.
- Janariak gertatzeko gainaldearen diametroa: 22 zm
- Eta 6 zartagin itsasgaitz, beroaren kontrako kirtenarekin
- Ez du oliorik behar.

**LASTERKETAK** > KROSA

# 131 korrikalariren artean Ezpeleta izan zen azkarrena Santamasetako proban

## Raquel Rodriguez izan zen emakumerik azkarrena

## Mutiletan Antxintxiketan, eta nesketan Udaletxeko Lamiak izan ziren kodrila onenak



Zuhaitz Ezpeleta Herriko Plazako helmugara iristen zaleen txalo artean. JOSETXO ARANTZABAL

**MIREIA BIKUÑA** > ARRASATE
Hotzari aurre eginez 131 korrikalari zeuden Monte tabernaren ondoko irteeran; eta, hotzari aurre eginez, Zuhaitz Ezpeletak irabazi zuen atzo Santamasetako krosa. Emakume azkarrena Raquel Rodriguez izan zen. Bestalde, mutiletan Antxintxiketan taldeak, eta nesketan Udaletxeko Lamiak taldeak eroan zituzten koadrilendako sariak. Gustura jango dituzte bildotsak bi koadriletako kideek.

**ERRITMO GOGORRA**
12:30ean hartu zuten irteera korrikalariek Monte tabernaren alboan zaleen txalo zaparradaren laguntzarekin. Lehen metroetan Herriko Plaza aldera hartu zuten. Ondoren, Arrasate pasealekua, Zerkaosteta, Garibai, Abaroa, Garibai, Maalako biribilgunea, Maalako Errabala, Seber Altube, Arbolapeta, Portaloia eta Herriko plaza ibilbideari lau itzuli eman behar zioten.

Antolatzaileen pistola-tiroa entzun orduko, guztiek batera egin zituzten lehen metroak, baina, berehala, azkarrenak aurrean jarri ziren. Lehen itzulia egin orduko, Zuhaitz Ezpeletak eta Beñat Arnaizek erritmo bizia jarri zioten lasterketari. Biek elkarrekin egin zuten ia ibilbidea guztia. Atzetik, gainerako partaideak banaka, binaka edo koadrilaka banatu ziren.

Azken itzuliaren hasieran Ezpeletak atzean utzi zuen Arnaiz, eta helmugara bakarrik heldu zen ikusleen txalo artean. Atzetik sartu ziren Beñat Arnaiz eta Gaizka Romero.

**EMAKUMEAK ETA KOADRILAK**
Emakumeen artean Raquel Rodriguez izan zen azkarrena. Atzetik aurrera egin zuen proba, eta azken metroetan emakume guztiak aurreratu zituen. Bigarren Ane Zabala sailkatu zen.

Koadrilen arteko azkarrenak erabakitzerako orduan, talde bakoitzeko lehen bost sailkatuen denborak hartu zituzten kontuan. Hala, mutiletan, Antxintxiketan, Egunkaria libre!, eta Elorriokoa taldeak izan ziren lehen hiru sailkatuak.

Nesketan aldiz, Udaletxeko Lamiak, Mabel eta Arkupekoak izan ziren azkarrenak. Sari banaketa ekitaldian sari berbera jaso zuten mutilek eta neskek: lehenarendako bildotsa, bigarrenarendako untxia, eta hirugarrenarendako oilaskoa.

Antolatzaileek pozik zeuden lasterketaren zenbakiekin: "19 koadrila ibili dira – lau neskenak eta 15 mutilenak–, eta 131 korrikalari –iaz baino zazpi gutxiago–. Dena den, gustura gaude, sendotzen doan proba da-eta".



Parte-hartzaile batzuek elkarrekin egin zuten korrika. JOSETXO ARANTZABAL


Irabazle guztiak sari banaketa ekitaldiaren ondoren. JOSETXO ARANTZABAL


Emakume talde bat Herriko Plazatik korrika, zaleen txalo artean. JOSETXO ARANTZABAL


131 korrikalarik hartu zuten irteera Monte tabernaren alboan. JOSETXO ARANTZABAL

**emaitzak**

**MAILAZ MAILA**

**LEHEN 5 MUTILAK**
- Zuhaitz Ezpeleta
- Beñat Arnaiz
- Gaizka Romero

**LEHEN 5 NESKAK**
- Rakel Rodriguez
- Ane Zabala

**MUTILETAN LEHEN 5 KOADRILAK**
- Antxintxiketan
- Egunkaria Libre!
- Elorriokoa

**NESKATAN LEHEN 5 KOADRILAK**
- Udaletxeko Lamiak
- Mabel
- Arkupekoak

# 16 kirol sari, mila zorion




Ganbara Txiki abesbatzakoek eman zioten sari banaketari amaiera, musikarekin eta koloretako konfetiekin. JOSETXO ARANTZABAL



Xabi Urtzelai eta Itxaro Zubillaga aurkezleak. JOSETXO ARANTZABAL



Oihana Kortazar, Oxel Erostarbe eta Rebeka Ubera. JOSETXO ARANTZABAL

## Hamabost sari banatu zituzten Oñatin Debagoieneko kirolari eta kirol bultzatzaileen artean

## Ekainen hil zen Jose Luis Agirreri omenaldia egin zioten Aloña futbol sailaren alde egindako lanagatik

**MIREIA BIKUÑA** > OÑATI

Kirolak eta festak bat egin zuten egubakoitzean Oñatin, Debagoieneko II. kirol sarien banaketa ekitaldian. Saria jaso zutenek jarri zuten kirol usaina Santa Ana Aretoan, eta Ganbara Txiki abesbatzakoek ipini zuten festa giroa. Ekitaldiko unerik hunkigarriena, eta, aretoan zeuden batzuei negar malkoak sorrarazi ziena, Aloña Mendiko kide izan eta ekainean hil zen Jose Luis Agirreri egindako omenaldia izan zen. Haren alargun Manttoni Iraolak eta bi semeek ikusleen txalo zaparrada, eta Oñatiko alkatearen eskutik oroigarria jaso zuten.

**UDALEK EMANDAKO SARIAK**

Ekitaldia Xabier Urtzelai eta Itxaro Zubillaga kazetariek aurkeztu zuten, eta babesleei (La Caixa, Goiena Komunikazio Zerbitzuak, Mondragon Unibertsitatea, Kanpanzar-Kobate harrobiak, Arteman Komunikazio enpresa eta Oñatiko, Aretxabaletako, Aramaioko, Elgetako eta Leintz-Gatzagako Udalak) eskerrak eman ondoren, sariak banatzen hasi ziren.

Lehen-lehenik udalek emandako sariak banatu zituzten: Leintz-Gatzagako Udalak txirrindularitzaren alde egindako lanagatik Alberto Altube eta Pedro Mari Elkorobarrutia omendu zituzten; Elgetako Udalak Oihana Kortazar omendu zuen mendi lasterketatan erakutsi duen mailarengatik; orain dela 30 urteko Aramaioko sokatira taldeak jaso zuen euren udalaren saria; eta Marisol Ramos korrikalariak, Josune Odriozola igerilariak eta Aloñako eskubaloiko senior mailako nesken taldeak Oñatiko Udalak emandako sariak.

**JOKO OLINPIKOAK**

2009ko kirolari onenen sariak Jonathan Perez pertika-jauzitzaileak eta Maider Unda borrokalariak eroan zituzten. Biek ala biek urte berrirako asmoen gainean egin zuten berba. Perezek Valentzian jokatuko den Espainiako txapelketarako sailkatu gura zuela esan zuen. Aldiz, Undaren helburua 2012ko Olinpiar Jokoetarako sailkatzea da.

Kirol ibilbidearen saria Jone Muxika elgetarrak jaso zuen; kirolaren alde egindako lanaren sariak saskibaloiari bultzada eman dion Manolo Muñozek, eta Joxe Eskibel korrikalariak jaso zituzten; teknikari onenaren saria Reyes Azkotiak eroan zuen; talde onenaren saria UDArendako izan zen; eta babeslearen saria Soraluze Kooperatibarendako.

### "Musu truk lan egiten dugunok geroz eta gutxiago gara"

Manolo Muñozek eskaera berezia egin zien udalei kirolaren alde egindako lanari zegokion saria jaso ondoren: "Ezer kobratu barik kirolaren alde egiten dugunok, geroz eta gutxiago gara. Boluntario gutxi daude, horregatik udalen eta erakundeen laguntza behar dugu kirol jarduerekin aurrera egin ahal izateko".



Ganbara Txiki abesbatzako kide batzuk. JOSETXO ARANTZABAL



Luis Mari Gutierrez eta Julian Dorado. J.A.



Sari banaketan egondakoak lunchean parte hartu z

ESANAK

**"Motibazioa topatzea da denboraldi berrirako dudan helburu nagusia; dena den, ohorea da orain arte egindako lanagatik saria jasotzea"**

**Jone Muxika** > Txirrindularia

**"Nik ez dut halako saririk merezi, baina esker onez jaso dut. Ez dut txapelketatan parte hartzen, baina astean hiru bat aldiz irteten naiz korrika egitera lagunekin"**

**Joxe Eskibel** > Korrikalaria

**"Lesioen baimenarekin, hurrengo urtean mendi lasterketetako Espainiako kopan parte hartuko dut Euskadiko selekzioarekin"**

**Oihana Kortazar** > Mendi lasterkaria

**"Aurrekontuarekin zailtasunak ditugu baina, hurrengo urtean Gatzagan txirrindulari eta mountain bike probak egiteko asmoa dugu"**

**Alberto Altube** > Antolatzailea

**"Urte borobila izan da Bergarako pilotarendako; beste behin esango dut eskuartean dudan saria pilotariena ere badela"**

**Reyes Azkoitia** > Pilota entrenatza.

SARITUAK



**Alberto Altube**
Antolatzailea.
Leintz-Gatzagako Udalak emandako saria.



**Sokatira taldea**
Suitzan lehiatu ziren.
Aramaioko Udalak emandako saria.



**Oihana Kortazar**
Mendi lasterkaria.
Elgetako Udalak emandako saria.



**Jose San Miguel**
Pilota entrenatzailea.
Aretxabaletako Udalak emandako saria.



**Marisol Ramos**
Korrikalaria.
Oñatiko Udalak emandako saria.



**Josune Odriozola**
Igerilaria.
Oñatiko Udalak emandako saria.



**Miren Zubeldia**
Aloñako eskubaloi taldea.
Oñatiko Udalak emandako saria.



**Manttoni Iraola**
Jose Luis Agirreren alarguna.
Oñatiko Udalaren omenaldia.



**Txus Altzaga**
Soraluze Kooperatiba.
Babesle onenaren saria.



**Jone Muxika**
Txirrindularia.
Kirol ibilbidearen saria.



**Joxe Eskibel**
Korrikalaria.
Kirolaren alde egindako lanari saria.



**Manolo Muñoz**
Eskoriatza saskibaloi elkartea.
Kirolaren alde egindako lanari saria.



**Eduardo Altube**
UDAko presidentea.
Kirol talde onenaren saria.



**Reyes Azkoitia**
Pilota entrenatzailea.
Teknikari onenaren saria.



**Maider Unda**
Borrokalaria.
2009ko kirolari onenaren saria.



**Jonathan Perez**
Pertika-jaurtitzailea.
2009ko kirolari onenaren saria.



uten. JOSETXO ARANTZABAL

## "Jose Luisi ez zitzaizkion omenaldiak gustatzen, baina guk esker onez jaso dugu gaurkoa; oso polita eta hunkigarria izan da"

Ekitaldiko unerik hunkigarriena izan zen. Oñatiko Udalak omenaldi berezia egin zion Jose Luis Agirre zenari, hainbat urtetan Aloña Mendiren alde, eta, bereziki, futbolaren alde egindako lanagatik. Haren emazte Manttoni Iraola eta bi semeak igo ziren oholtza gainera Lourdes Idoiagaren eskutik oroigarriak jasotzera. Une hartan, Santa Aretoan zeudenek txalo zaparrada beroa eskaini zieten etxekoei, eta askok eta askok negar egin zuten Jose Luisen hainbat argazkiekin egindako bideoa ikustean. Aloña Mendiren himnoaz lagunduta, bertsoa bota zuten Agirrek egindako lana gogora ekarriaz.

Sari banaketa ekitaldiaren bukaeran pozik zeuden etxekoak. "Jose Luisi ez zitzaizkion omenaldiak gustatzen, baina guk esker onez jaso dugu gaurkoa. Badakigu zenbat maite zuten. Egia esan, oso polita eta hunkigarria izan da ekitaldia. Era berean, gogorra izan da bideoko argazkiak ikusi, eta Aloñaren himnoa eta bertsoa entzutea", esan zigun Jose Luis Agirreren alargun Manttoni Iraolak.



Jose Luis Agirre. ARATZ LOSADA

**ESKUBALOIA** > EUSKADIKO TXAPELKETA

# Arazo barik irabazi zion Verkol Aloñak sailkapeneko azkenari

Oñatiarrek 25-10 irabazi zuten Petronor Muskiz taldearen kontra

Atsedenerako partidua erabakita utzi zuten etxekoek; hamar goleko errenta zuten



Aloñako jokalari Nagore Goñi sei metroko lerrotik jaurtiketa egiten. JOSETXO ARANTZABAL

VERKOL ALOÑA
**25-10**
PETRONOR MUSKIZ

**Verkol Aloña** > Olatz, Arantzazu (2), Ixone (2), Nagore (3), Jone (3), Ane, Miren (5), Rebeka (2), Idurre, Erika (5), Nerea, Itziar eta Ainhoa (3).

**Petronor Muskiz** > Gartzia, Ulanga (3), Rios (4), Valencia, Modo, Perez, Rangil, Bilbao (2), Rodriguez, Helguera eta Gomez.

**Golak bost minuturo** > 3-0, 5-2, 10-3, 11-4, 13-4, 14-4. Atsedena. 17-6, 19-6, 19-7, 22-8, 24-10, 25-10.

**MIREIA BIKUÑA** > OÑATI

Ia izerdi egin barik irabazi zuen zapatuan Verkol Aloñak Euskadiko txapelketako partidua Petronor Muskiz taldearen kontra. Bizkaitarrek talde eskasa dute, eta sailkapeneko azken tokian zergatik dauden erakutsi zuten, erasoan ideia garbi barik eta defentsan oso motel. Aloñakoek aldiz jaurtitzaile onak dituzte bederatzi metrotatik, eta kontraerasoan ondo moldatzen dira.

**HASIERATIK, AURRETIK**

Hasieratik bukaerara agindu zuten markagailuan oñatiarrek. Bosgarren minuturako 3-0 aurreratu ziren. Muskizek seigarren minutuan egin zuen lehen gola. Ainhoa Unamumoren taldea erasoan fin ibili zen, eta abantaila handitzen joan zen lehen zatiak aurrera egin ahala. 12.minutuan 8-3 ziren aurretik; 14.ean 10-3; eta 22.ean 12-4. Handik aurrera, eta atsedenera arte, ez zuten golik egin bizkaitarrek, eta Aloñak lehia erabakita utzi zuen. Izan ere, hamar goleko errentarekin joan ziren aldagelara: 14-4.

**ERRITMO MOTELA**

Bigarren zatia lehena baino motelagoa eta aspergarriagoa izan zen. Etxeko jokalariak bizkaitarren joko motelarekin kutsatu eta erritmoa jaitsi egin zuten. Lehen 15 minutuetako partziala 5-3koa izan zen etxekoendako. Gainera, epaileak bi taldetako jokalari asko egotzi zituen, eta horrek partiduaren erritmoa apurtu zuen. Azken lau minutuetan ez zuten golik egin bi taldeek.

**SASKIBALOIA**

## MUk galdu egin zuen Goierriren kontra

**M.B.** > ARRASATE

Mondragon Unibertsitateak 72-79 galdu zuen Goierriren kontra zapatuan, Iturripen.

Gaizki hasi zuten partidua etxekoek, eta 1-15 galtzen hasi ziren. Entrenatzailearen aholkuak entzun ondoren, hobeto jokatu zuten atsedena baino lehen. Dena den, hamar puntuko desabantailarekin heldu ziren arrasatearrak aldageletara: 29-39.

**EZINEAN**

Hirugarren tartearen hasieran, 18-5eko partzialarekin, lehen aldiz jarri zen aurretik MU, baina ez zen partiduari erabateko buelta emateko nahikoa izan. Azken tartean Goierri izan zen hobea.

> FUTBOLA

## Preferentetik beherako partidu guztiak bertan behera

Gipuzkoako Futbol Federazioaren erabakiz, Preferente eta beherako mailetako futbol partidu guztiak bertan behera geratu dira aste bukaeran eguraldiaren erruz.

Hala, Mondrak eta Aloñak jokatu beharreko derbia eta Bergararen partidua atzeratu egin dituzte.



JOSETXO ARANTZABAL

## Hamarrekin, bi aldiz berdindu zuen markagailua UDAk Amurrioren kontra

UDAk eta Amurriok jokatutako partidua binako berdinketarekin bukatu zen. Arabarrak aurreratu ziren markagailuan lehen minutuan, baina etxekoek 17.ean berdindu zuten Imanol Rodriguezek egindako golari esker. Gainera, 33. minutuan UDA jokalari bat gutxiagorekin geratu zen.

Bigarren zatiaren hasieran Amurrio aurreratu zen berriro. Etxekoek ez zuten etsi, eta puntu bat lortzeko gai izan ziren. Iker Oruetak egin zuen berdinketa 70. minutuan.



ELENA GOIRIZELAIA

## Kadete mailako sariak Debagoienera

Euskal Herriko Txirrindulari Federazioak mountain bike-ko Euskadiko Openeko sariak banatu ditu. Iker Eskibel eskoriatzarrak –goiko argazkian eskuinean–, Alex Aranburu arrasatearrak –ezkerrean–, eta Lizarralde Kirolak-Dorletako Ama taldeek kadete mailako lehen hiru sariak jaso zituzten Donostiako sari banaketa ekitaldian.

ARANTZAZU EZKIBEL > ARETXABALETA

Aritz Igartua > UDA futbol taldeko kapitaina

# "Hirugarren mailan dena ematera irten behar da, bestela ez dago zer eginik"

**Aritz Igartua hirugarren mailako UDA taldeko kapitaina da. Denboraldia uste baino hobeto hasi dutela esan digu; batez ere, talde giroa azpimarratu du Igartuak. Bi partidu geratzen zaizkio UDAri lehen itzulia amaitu eta bigarrena hasteko.**



Aritz Igartua, Ibarra futbol zelaian; atzean, elkarteko txikienak entrenamenduan. A.E.

**Denboraldia nahiko txukun hasi duzuela esan daiteke. Nola baloratzen duzu taldeak lehen itzuli honetan egindako lana?**

Ona dela esango nuke. Esan daiteke jendeak uste zuena baino askoz ere hobeto hasi dugula denboraldia. Beste maila bat da, baina taldea antzerakoa.

**Non uste duzu dagoela taldea ondo ibiltzearen gakoa?**

Ez dakit, taldean giro ona dago, eta hori garrantzitsua da. Bestalde, entrenamenduak ere aldatu egin ditugu eta horrek ere badu eragina.

Partidu guztietan dena ematera irteten gara; eta hirugarren mailan horrela irten behar da; bestela, ez dago zer eginik.

**Denboraldi hasierako helburua zein zen? Eta orain, erritmoa hartu duzuenean, zein da helburua?**

Hasierako helburua mailari eustea zen; orain, denboraldia aurrera doan heinean, ahalik eta urrunen iristea da asmoa. Hiru talde atzean geratu dira. Partiduz partidu joango gara, ahal den neurrian denak irabaztera.

**Zuk zeuk orain dela urte batzuk hirugarren mailan jokatu zenuen Aurrera de Vitoria taldearekin. Gogoratzen zenuen modukoa da hirugarren maila?**

Bai, ez da askorik aldatu. Preferentearekin alderatuta bizkorragoa eta indartsuagoa da hirugarren maila. Jokatu gutxi egiten da, baina, batez ere, fisikoan eta erritmoan dago ezberdintasuna.

Kategoriak igo ahala erritmoa da aldatzen dena, futbolean azkarrago egiten da.

**Ezberdina da kanpoko talde batean jokatzea edo etxekoan jokatzea?**

Bai; etxeko taldean ilusio handiagoa egoten da.

**Sailkapenari begira zeintzuk dira zuen aurkari zuzenak izango direnak?**

Agurain zortzi punturekin atzean utzi dugu. Retuerto dago, Lagun Onak...; adibidez, iaz Lagun Onak lehenengo geratu zen eta aurten azken hirugarren doa. Bi talde goian daude, Reala eta Amorebieta; beste guztiak, bosgarrenetik hasi eta gure postura arte –11– bost punturen artean gaude.

**Atzera begira jarrita, nola gogoratzen duzu hirugarren mailarako txartela lortu zenuten partidua?**

Polita izan zen. Azkeneko partiduetan tentsio handia izan genuen. Gainera, emaitza oso onak lortu genituen; azkeneko 12 partiduetatik 11 irabazi eta bat berdindu genuen. Hor egon zen hirugarren mailara igotzeko txartela lortzeko gakoa. Izan ere, lehenengo itzulian ez ginen oso fin ibili.

**Herritarren aldetik jasotako harrera izugarria izan zen!**

Bai, oso polita izan zen. Kamioian etorri ginen eta herritarrak itxaroten zeuden plazan. Udaletxera igo ginen, eta oso polita izan zen.

**Zaleez ezin zarete kexatu, ezta? Ikusten dituzue horrenbeste zale beste zelai batzuetan?**

Ez, horrenbeste jende ez da ikusten beste zelai batzuetan. Adibidez, Laudion egon berri gara, eta, herri askoz ere handiagoa izan arren, han 100 lagun ere ez zeuden.

Aurrekoan, esaterako, Elgoibarren aurka jokatu genuen Ibarran, eta esan ziguten eurek gustura hartuko zituztela hemengo zale batzuk.

**Hirugarren mailan jokatzeko taldea egokitu egin behar izan zenuten. Zer indartu behar izan duzue?**

Bi atzelari etorri dira, baita atezain bi ere. Aurreko aldea ere indartu dugu. Izan ere, azken finean, lerro guztiak hobetu behar izan ditugu.

**Nola hartu dituzue jokalari berriak?**

Ondo; esan bezala, aldageletan giro ona daukagu. Gainera, denok jokatu dugu hasierako hamaikakoan.

**Kritikak ere entzun dira: batzuek diote diruz egindako taldea dela eta etxeko gutxi dituzuela.**

Zer da etxekoa izatea? Aretxabaletako zortzi gaude taldean; beste batzuk Aramaiokoak edo Arrasatekoak izan arren betidanik ibili izan dira Aretxabaletan jokatzen. Nik uste dut horiek etxeko jokalariak direla.

**"Denboraldi hasiera ona izan du taldeak; askok uste zutena baino hobea"**

**"Hirugarren mailan, batez ere, fisikoa eta erritmoa aldatzen da jokatzerakoan"**

**"Ezin gara kexatu zaleez; beste zelai batzuetan ez dira horrenbeste zale ikusten"**

**"Zer da etxekoa izatea? Betidanik Aretxabaletan ibili direnak etxekoak direla uste dut"**



Katarroa harrapatu duen mutiko baten argazkia. PARISNIETO

**PEDIATRIA** > ARNAS INFEKZIOAK

# Tenperaturen jaitsierarekin datoz umeen katarroak

Arropa nahikoa janztea, giro kargatuetatik urrun egotea eta hezetasun maila %70ekoa izatea dira gutxiagotan hozteko trikimailuak

**OIHANA ELORTZA** > ARRASATE
Adituek egindako kalkuluen arabera, 15 urtetik beherako haur eta gazteek urtean batez beste 2,6 arnas infekzio jasaten dituzte.

**ZERGATIA**
Umeak txikiak direnean ez dute oraindik euren sistema immunologikoa behar bezala osatua. Lehen hilabeteetan, amak haurdunaldian eta ondoren pasatu dizkien antigorputzei esker babesten dira gaixotasun infekziosoetatik. Baina zortzi hilabetetik aurrera, defentsa horiek agortu egiten dira eta umeak bere defentsa propioak sortzen hasi beharra dauka. Garrantzitsua da defentsa horiek hasieratik bizkortzea. Hori lortzeko modurik onenak dira: amak bularra ematea, elikadura osatua ematea urtebete egiten dutenetik aurrera eta ohitura egokiak errespetatzea, hala nola, beharrezkoak diren orduak lo egitea edo jarduera fisikoa modu erregularrean egitea.

**ANTIBIOTIKOAK**
Beharrezkoak direnean bakarrik hartu behar dira antibiotikoak; bestela, gerta liteke botika horrek eraginkortasuna galtzea. Hartu beharra dagoenean, baina: saihestu automedikazioa, errespetatu tratamenduaren iraupena, ez egin kasurik senide edo auzokoei; eta ez erabili berriro medikuak aurreko baten errezetatuko antibiotikorik.

**GAZTEAK** > GAZTEEN BIZIMODUA

## Gazte europarren datu berriak atera dituzte

Neskak mutilak baino lehenago joaten dira gurasoen etxetik Europako herrialde guztietan

**O.E.** > ARRASATE
Batez besteko zein adinekin alde egiten duten gazteek gurasoen etxetik, gazteen ehuneko zenbatek sinatu duen aldi baterako lan kontratua, zein maiztasunekin joaten diren zinemara edo kultura ekitaldietara eta antzerako datuak jaso ditu Europako Estatistika Bulegoak kaleratu berri duen txosten batek.

Gazteei buruzko estatistika horrek dio oraingoek aurreko belaunaldikoen aldean berariazko ezaugarriak dituztela, baina portaera ezberdinak azaltzen dira Europako estatu kide ezberdinetan.

**GURASOEN ETXETIK JOAN**
Europako gazteek gurasoen etxetik zein adinekin alde egiten duten jakiteko jasotako datuek diote gizonezkoak emakumezkoak baino beranduagora arte gelditzen direla gurasoen etxean. Estatu kide bakoitzean datu ezberdinak batu dituzte, baina orokorrean, Finlandia, Frantzia eta Holandako gazteak dira gurasoen etxeetatik azkarren joaten direnak. Emakumeak, esaterako, 30 urtetik beherakoa da batez besteko adina estatu kide guztietan.

**KONTRATUAK**
Lan esparruko datuak ere jasotzen ditu Europako Batasuneko Estatistika Bulegoak. Datu horiek diote 2009ko bigarren hiruhilekoan 25 eta 34 urte arteko gazte europarren langabezia tasa %19,2 izan dela ikasketa maila txikia dutenen artean, %9,1ekoa erdi-mailako ikasketak dituztenen artean, eta %5,9koa goi-mailako hezkuntza maila dutenen artean. Joan den urtean, berriz, 15 eta 24 urte arteko hamarretik ia lauk zituzten aldi baterako kontratuak, eta 25 eta 29 urte artekoen hamarretik bik. Kultura kontsumoari dagokionez, 2006an, 16 eta 29 urte artekoen %77, gutxienez, behin joan ziren zinemara eta kopurua %37ra jaitsi zen 30 urtetik gorakoen artean.



Gazte koadrila bat panderoa jotzen. UKBERRI NET



Ama bat bere seme-alabekin. GOIENKARIA

**JAIBERRIAK** > ESTATISTIKAK

## Jaiotza kopurua jaitsi egin da EAEn

2009ko bigarren hiruhilekoan joan den urteko aldi berean baino %2,1 jaiotza gutxiago izan dira

**O.E.** > ARRASATE
Euskal estatistika agentziak (Eustat) kaleratu dituen datuen arabera, jaiotza kopurua jaitsi egin da 2009ko bigarren hiruhilekoan. Datuen arabera, 2009ko apiriletik ekainera 5.347 ume jaio dira Euskal Autonomia Erkidegoan, aurreko urteko aldi berean baino %2,1 gutxiago. Jaio ziren umeen %54, gainera, etxeko lehen seme-alabak izan dira.

Datu horiek lurraldeka aztertuz gero, Araban 844 ume jaio ziren, Bizkaian 2.650 eta Gipuzkoan, berriz, 1.853.

**AMAK, 30 URTETIK GORA**
Jaiotza kopuruaren datuarekin batera, beste bi datu esanguratsu ere jaso ditu Eustatek: batetik, 2009ko bigarren hiruhilekoan jaiotakoen erdia baino gehiago, 2.887 ume, lehenengo seme-alabak zirela; eta bestetik, jaiotako ume kopuruaren ia erdiaren amak 30 eta 34 urte arteko emakumeak zirela ere badio Eustatek jaso duen txosten horrek.

Testu hauek osorik irakurtzeko eta erantzuteko,
**zatoz gure webgunera**
guraso.com



**> BERGARAKO BANDA**
Udal Banda, 100 urtez Gonzaleztarren batutapean **> 30**



**> GOSE**
Hirukoteak kontzertua egingo du zapatuan Arrasaten **> 30**



**> ROCKA**
Iruñeako Basque Country Pharaons taldea Bergaran izan zen **> 32**



# Tradizioa eta abangoardia ttakun kolpearekin bat eginda

**IBILBIDEA**

Juan Mari Beltranen taldeak gonbidatuta, 'bidaia' egin genuen

**NON:** Arrasateko Amaia antzokian.
**EGUNA:** Zapatua, abenduak 19.
**ZENBAT JENDE:** 100 lagun inguru.
**IRAUPENA:** Ordu eta laurden.

**IKER BARANDIARAN** > ARRASATE

Txalaparta gure herriaren historiaren soinu-banda izan da eta da, nahiz eta askotan ez konturatu, nahiz eta askotan ez aintzat hartu, baina kolpe lehor eta sakon horiek gurekin batera egon dira mendeak eta mendeak atzera eginda.

Egia esanda, oso gutxi da batzuk txalapartaren gainean dakiguna. Baina badu txalapartak zerbait berezia, belarrian eta barruan ere eragiten duena; hain zuzen ere, perkusio doinu hain bereziak diren horien bitartez trantze antzeko batera hel zaitezke eta, zergatik ez, beste sasoi batzuetara bidaiatu. Halako zerbait gertatu zitzaidan zapatu iluntzean, Amaia Antzokian. Ilunetan, bero, eta agertokian argiztapenez oso ondo zaindutako ikus-entzunezkoaz gozatzen nengoela. Juan Mari Beltran musikari eta ikertzailea eta haren taldea maisuak dira txalaparta jotzen eta egurrari, burdinari eta beste material batzuei soinua ateratzen.

Horri, gainera, gehitu behar zaio eszenaratze zaindua: neurriduna, sofistikazio handi barik, baina aldi berean txukuna, zurigune eta beltzguneekin jokatuz. Txalaparta eta antzeko perkusio instrumentuak, agerian gelditzen ez direnak; dantzari bi eta tarteka bideo proiekzioak.

**IRAGANETIK GAUR EGUNGORA**

Juan Mari Beltranek txalapartaren gainean asko ikertu du; hala, *Txalaparta* izeneko CD, DVD eta liburua kaleratu berri ditu. Lan horietan oinarrituta dago Arrasatera eraman zuen emanaldia.

Bertan entzun eta ikusi ahal izan genituen gure usadioekin lotutako hainbat pieza: ahotsa eta sagarra jotzeko lan-tresnekin eragindako Kirikoketa; negualdean animaliak elikatzeko egiten zen ote-jotzea (Jon Maya eta Vanessa Castaño dantzariekin); Elorrioko kanpaijoleen antzeko metal-jotzea; palanka kolpatuz jotzen den Ttinbilin-ttanbalana; sagardoarekin bustitako txalaparta jotzea eta beste asko. Asko ikasi genuen, duda barik.

Horrez gain, oso bitxia izan zen txalaparta jotzeko erabili zitutzen dozenaka teknika, txandatze, bariante eta tonalitateak. Zur eta lur utzi gintuzten. Zer esanik ez, *Aurreskua* txalapartarekin... Tradizioa eta abangoardia.



Jose, Patricia, Miguel eta Alfredo Gonzalez. J.A.



Bergarako Orfeoiak ikuskizun koloretsua eta alaia eskaini zuen; argazkian, *Fame* abestia kantatzen. J.A



Udal Musika Bandak, Aritzeta abesbatzak, Orkestra Sinfonikoak eta Orfeoiak hiru abesti jo zituzten batera. J.A.



Biolin-jotzaileak kontzertuaren momentu batean. J.A.

**MUSIKA** > GABONETAKO KONTZERTUA

# Bergarako Udal Banda 100 urtez Gonzaleztarren batutapean

Bergarako instrumentuak eta ahotsak batuta, doinu politak entzun ziren zapatuan kiroldegian

Gonzaleztarrek merezitako omenaldia jaso zuten 100 urtean Udal Banda zuzendu izanagatik

**ARRITXU BARRUSO** > BERGARA

Zapatu gauean elurra zen kanpoan eta sekulako hotza; pilotalekuko ateak pasata, baina, ez zen hotzik. Udal Bandak, Orkestra Sinfonikoak, Aritzeta Abesbatzak eta Orfeoiak ederki berotu zuten giroa eta gustura asko egon ginen Bergarako musikarien berotasunean.

Udal Musika Bandaren *Around the world in 80 days* eta Orkestra Sinfonikoaren *Robin Hood* itzelak izan ziren; maisutasuna, indarra, gozotasuna eta sekulako zehaztasuna erakutsi zuten bi taldeek ere. Abesbatzek ere lan bikaina egin zuten. Aritzeta abesbatzak lau kantu abestu zituen eta Mikel Laboak ezagun egin zuen *Nerea izango zen* abestia gustura hartu zuten entzuleek. Orfeoiaren emanaldia koloretsua eta alaia izan zen; benetan dibertigarria. *Fama* telesaileko *Fame* abestiarekin dantzari lanetan ere ikusi genituen Orfeoiko abeslariak. Amaiera, borobila: Bergarako musikari eta abeslari guztiak elkarrekin entzuteko aukera. Freddie Mercuriren *Bohemian Rapsody*, *Hator, hator* eta *Adeste Fideles* jo zituzten elkarrekin.

**GONZALEZTARREI OMENALDIA**

Sorpresarik ere izan zen zapatuko kontzertuan eta sorpresa horrek ezustean harrapatu zituen protagonistak eurak: Miguel eta Alfredo Gonzalez aita-semeak. Merezitako omenaldia jaso zuten. Azken 100 urteotan Gonzalez familiak zuzendu du Udal Musika Banda; 1909an Ingnacio Gonzalezek hartu zuen Udal Bandaren batuta; 1957an bere seme Migelek hartu zuen erreleboa eta azken 12 urteotan Alfredo Gonzalez Chirlaquek jardun du zuzendari lanetan. Udal Bandako kideek opari bana eman zieten eta hori ere familian geratu zen. Migeli bere iloba Josek eman zion oparia eta Alfredori bere alaba Patriciak. Bandako kideek Gonzaleztarrek euskal konposatzaileen obrak jotzeko egin izan duten ahalegina azpimarratu zuten. Bergarako alkateak, berriz, Patricia, aurrerago, aitaren errelebua hartzera animatu zuen "laugarren Gonzaleztar zuzendaria emakumea izatea", polita izango litzatekeelako.

**MUSIKA** > GAZTEMANIAK

## Zapatuan, Gose eta Mery May Arrasaten

Aldundiaren 'Gaztemaniak' programako azken kontzertua izango da Arrasaten egingo dutena

**IKER BARANDIARAN** > ARRASATE

Zapatuan kontzertu berezia egingo dute Arrasateko gaztetxean, 22:00etan. Berezia, bi arrazoigatik: bata, herriko Gose eta Mery May taldeak arituko direlako; eta bestea, kontzertua Gipuzkoako Aldundiaren *Gaztemaniak* programak antolatu duelako.

Gose taldeak *Gorria* diskoa kaleratu berri du, eta gero eta arrakasta handiagoa lortzen dabil, triki, elektronika eta rock nahasketa probokatzailearekin. Mery May, berriz, talentu handiko bakarlaria da.

**AGUR GAZTEMANIAK**

Aldundiak, krisiagatik, *Gaztemaniak* kentzea erabaki du, eta Arrasatekoa izango da egingo duten azkeneko kontzertua.



Gose taldekoak aurtengo Durangoko Azokan. I.BARANDIARAN

GureGipuzkoa
www.guregipuzkoa.net

**“ Lehengo eta oraingo Gipuzkoa irudietan. Ikusi, gozatu, komentatu, zureak gehitu. Gipuzkoako irudiak, denon esku.”**

“ La Gipuzkoa de ayer y hoy en imágenes. Míralas, disfrútalas, coméntalas, añade las tuyas. Nuestras imágenes de Gipuzkoa.”

*“ La province du Gipuzkoa d’hier et d’aujourd’hui en images. Découvrez-les, contemplez-les, commentez-les, ajoutez les vôtres. Nos images de la province du Gipuzkoa.”*

Gipuzkoa2.0
KULTURA KOLOREZTATUZ, ZUREKIN AURRERA
www.gipuzkoa2.net

**“ Euskal kulturaren erabilera guztion ohitura izatea helburu duen bide orria.”**

“La hoja de ruta que quiere convertir en costumbre cotidiana el uso de la cultura vasca.”

*“La feuille de route qui veut changer en coutume quotidienne l’usage de la culture basque.”*




**zure, gure, denon argazkiak.**

www.guregipuzkoa.net

GIPUZKOA
zurekin, aurrera
KULTURA ETA EUSKARA DEPARTAMENTUA

**MUSIKA** > TURBOSHIT ETA BASQUE COUNTRY PHARAONS

# 'Hit!'-ak eta umorea, ez da gehiago behar




Iñigo 'Firehead' abeslari eta 'frontman' paregabea Bergarako emanaldiko une intentsu batean. JOSETXO ARANTZABAL

**NON:** Bergarako gaztetxean.
**EGUNA:** Zapatua, abenduak 19.
**ZENBAT JENDE:** 100 lagunetik gora.
**IRAUPENA:** Bi ordu.

**IKER BARANDIARAN** > BERGARA

Zer pentsa Euskal Herriko Faraoiak izena daukan talde baten gainean? Lehenengo gauza izena asmatzeko buruhausteak dauzkaten musikariei lezio bat ematen dietela; eta taldekideei umorea ez zaiela inondik inora falta.

BCP Iruñean sortu zen Mermaid taldearen atsedenaldi baten; eta mozkorrak hartu eta barre egitea zen helburua. Poliki-poliki, taldeak harrera ona jaso eta kontzertu gero eta gehiago ematen hasi ziren.

**HIRUETATIK BAT BERGARAN**

Taldea osatzen duten *pertsonaiek* ehunka proiektu dituzte (Royal Canal, Atom Rhumba, Big Member, Bizardunak, Black Lagun...); taldea geldi izan dute 2007tik.

Hala ere, aurten bizpahiru kontzertu egiteko elkartu dira eta horietako bat Bergaran, Txapa Irratiari esker. Izotzari desafio eginda, gaztetxeko agertokian izan genituen iruindarrak. Horien aurretik, baina, Bergarako Turboshit taldeak punk-rock erasokorra egin zuen, une batzuetan melodia nabarmena ere baduena. Are gehiago, La Perrera ere bertsioneatu zuten, besteak beste.

**ENTZULEEKIN KONEXIOA**

Iñigo *Firehead* moduko *frontman* batekin ezinezkoa da barreari eustea, horretarako jaioa da-eta, izugarria da haren *txispa*. Hitzak ere halakoak dira: *Ese es mi coche y yo vivo en el, (Soy un) Faraon, Quiero andar solo, Pelo largo y actitud*...

Baina musikari moduan ere handiak dira eta ikuskizuna itzela da. Are gehiago, bertsio dotoreak eskaini zituzten: Grand Funk Railroad, The Pogues, Creedence, Dictators... Eta, baita, punkaren eta heavyaren arteko pasabidean dauden kantuak ere, soul ukituekin...

Musika ona, *hit!*-ak, umorea barra-barra, gitarra gogorrak, entzuleekin etengabeko konexioa eta, batez ere, jaia, parranda. Zer gehiago eskatu diezaiokegu talde bati kontzertuan? Pena bakarra, ordu pasatxo baino gehiago ez zutela jo. BCPren Bergarako kondaira ez da eten...




Marije Ugalde, Manu Diaz eta Enara Mingez liburuaren aurkezpenean. J.A.


Musika Eskolako ikasle eta irakasleek bi pieza eskaini zituzten. J.A.

**MUSIKA** > 'BIHOTZ ALAIA DUGULAKO' LIBURUA

# 'Bost lerro' eta jende asko Musika Eskolako liburuaren aurkezpen ekitaldian

Manu Diazen 'Bihotz alaia dugulako' liburuak Musika Eskolaren 25 urteak jasotzen ditu

Liburua Musika Eskolan eros daiteke eta abenduaren 24an kalean ere ipiniko dute salgai

**ARRITXU BARRUSO** > BERGARA

Triptiko bat izan behar zena 192 orriko liburu mardula bilakatu da; Bergarako Musika Eskolaren 25 urteko historia jasotzen duen liburu mardula. "25. urteurrena ospatzeko triptiko edo kartel moduko bat egitea zen lehenengo gure asmoa, baina, informazioa batzen hasi eta berehala ikusi genuen triptiko bat ez zela nahikoa; liburu bat idatzi behar genuen", azaldu zigun Manu Diaz liburuaren egileak zapatuko aurkezpen ekitaldian.

Liburuak oso interesgarriak izan arren, horien aurkezpenak batzuetan aspergarri xamarrak izaten dira edo egiten zaizkigu kazetarioi. *Bihotz alaia dugulako* liburuaren aurkezpenean ezin horrelakorik esan. Bergarako Musika Eskolako kideek beste behin ere erakutsi zuten bihotz alaia dutela eta gauza guztiak maitasun, alaitasun eta gogo handiz egiten dituztela.



Liburuaren azala GOIENKARIA

Bergarako Kultura zinegotzi Enara Mingezek, Musika Eskolako lehendakari Leo Juaristik eta Musika Eskolako zuzendari Marije Ugaldek hartu zuten parte liburuaren aurkezpen ekitaldian. Horien ostean eguneko protagonistaren hitzak etorri ziren, liburuaren egilearenak. Inprobisatu egin behar izan zuen; aurkezpenerako idatzi zituen 15 orriak galdu egin zituela azaldu zuen Diazek. Inprobisazio lan bikaina egin zuen eta argi geratu zen Musika Eskolak 25 urte hauetan gauza asko eman dizkiola. Berak, orain, liburu bat eman dio Musika Eskolari.

Ekitaldia, nola ez, musikarekin amaitu zen. Ikasleek eta irakasleek osatutako instrumentu taldeak eta gaztetxoen abesbatzak bi abesti jo zituzten: Musika Eskolako martxa, *Bihotz alaia dugulako* eta *Bost lerro*, urteurrenerako propio gertatua. Azken hau bi bider entzuteko aukera izan zen eta bietan ere osoko bilkuren aretoa txaloka ipintzea lortu zuten. Zergatik? Kantu horrek ere bihotz alaia daukalako.

Salneurri gomendatua Ford Kuga Trend 4x2 TDCi 136ZP. BEZa, garraioa, sustapeneko deskontua, matrikulazio zerga, 2000E plana eta kontzesionarioaren ekarpena barne. Hilabete bukaera arte baliagarria izakinak agortu arte. Ikusten den modeloa ez dauka zertan izan eskaintzen dena. Ford Kuga Trend 4x4 TDCi 136ZP: 25.300 eurotik aurrera . Kuga gama, batez besteko kontsumoa: 6,3-6,4 l/100km. $CO_2$ igorpenak: 165-169 g/km.



# iragarkilaburrak.com

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Olazti.** 4 urteko duplexa salgai Olaztiko erdialdean. 3 logela, 2 komun, egongela, sukaldea, bajera propioa, trastelekua eta igogailua. Harrizko eta egurrezko fatxada. Interesatuek deitu 620 21 58 31 edo 616 48 06 29 telefonoetara.

**Antzuola.** Sagasti auzoan etxebizitza salgai. Egongela, hiru logela, sukaldea, bi komun, terraza, trastelekua eta garajea. Deitu 626 89 15 94 telefono zenbakira.

**Arbizu.** Eraberritutako pisua salgai Arbizun. Lau gela, bainu bat, egongela eta bajerara jaisteko eskailerak. Jantzita. Deitu 948 46 09 08 telefonora.

**Arrasate.** Etxebizitza salgai Jose Luis Iñarran. Lau logela, bi komun, egongela, sukaldea, trastelekua eta garajea. Deitu 630 03 41 65 edo 669 05 80 33 telefono zenbakietara.

**Beasain.** Pisu oso zentrikoa Beasainen; 105m2, 4 logela, 2 bainugela, balkoi eta terraza. Ia berria, materiala eta eraikuntza kalitate handikoa. La Salle ikastetxetik oso gertu.Armairu eta altzariak, berogailua, parketa, sukaldeko elektrogailu guztiak, garbigailua. Garaje itxia aukeran. Argazki eta informazio gehiago nahi baduzu: *www.ttiki.com/66609*. Harremanetan jartzeko telefono zenbakia: 656 73 11 43

**Bergara.** Etxebizitza salgai Bolun. Egongela, hiru logela, sukaldea, bi komun, trastelekua eta garajea. Aukera ona. Deitu 688 67 10 31 telefono zenbakira.

**Eibar.** Eibar erdialdean, txokoa berriztua, sukalde eta bainuakin, saltzen edo alokatzen da. 90 metro karratu. Egoera ezin hobea. Interesatuak deitu 669 29 34 27 telefono zenbakira eta Sandrarengatik galdetu.

**Marina D'Or.** Apartamentua salgai. Hondartzatik 50 metrora. Deitu 617 77 90 18 telefono zenbakira.

### 102. EROSI

**Ataun.** Baserri bila gabiltza Goierri inguruan. Zurea saltzekotan bazara deitu 635 20 21 46 telefono zenbakira.

**Iruñea.** Nafarroako herri txiki batean etxea erosiko genuke. Iruñetik Iparraldera. Deitu 695 13 83 10 telefonora.

**Oñati.** Lau logelako etxebizitza erosiko nuke. Deitu 677 42 52 05 telefono zenbakira.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan Jose Luis Iñarran. Hiru logela, bi komun eta trastelekuarekin. Txaro. Deitu 653 71 22 42 telefonora.

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan Uriburu kalean. Egoera onean. Merke. Gauetan deitu 667 03 10 42 edo 943 79 25 16 telefono zenbakira.

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan. Bi logela, egongela, sukaldea eta komuna. Berogailuarekin. Prezio onean. 666 40 65 58 edo 690 79 78 00

**Barañain.** Barañainen (Nafarroan) etxea alokatzen dut. Idoia Erdozain. Telefono zenbakia: 647 50 35 69 (arratsaldeko (15:30etik aurrera). Posta elektronikoa: *idoia.erdozain.lakunza@cfnavarra.es* edo *idoiaerdozain@yahoo.es*

**Bergara.** Bi logela eta bi komuneko etxebizitza ematen da errentan, Ibargarai 15ean.Interesa duenak dei dezala 659 44 58 06 telefonora.

**Elgeta.** Etxebizitza ematen da errentan Salbador kalean. Bi logela, egongela, sukaldea eta komuna. Deitu 650 23 10 19 telefonora.

**Oñati.** Hiru logelako etxebizitza. Bi komun, sukaldea eta egongela. Guztiz jantzita. Deitu 645 71 98 84 telefono zenbakira.

**Uharte Arakil.** 165 m2ko adosatua alokatzen da Uharte Arakilen. 3 logela, 2 komun, sukaldea, tximinia duen egongela eta 50 m²ko garajea. 550 euro. Deitu 615 74 34 90 telefonora.

Egueneko 18:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

**943 25 05 05**

**sailkatuak@goiena.com**
**www.goiena.net-en**

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK ORDAINDUTAKO ATALAK:**
**- ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU.**
**- LOKALA SALDU/ALOKATU.**
**- GARAJEA SALDU/ALOKATU.**
**- MOTORRA SALDU/ALOKATU.**
**GOIENKARIA-N + ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N 18 € (BEZ BARNE).**

**PROFESIONALEN IRAGARKIAK (MODULOA)**
**MODULU 1: GOIENKARIA-N EDO ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N 23 € (BEZ BARNE).**
**GOIENKARIA-N + ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N 31 € (BEZ BARNE).**

Iragarki partikularretan astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.
GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

### 104. ERRENTAN HARTU

**Aramaio.** Bikote langile eta arduratsuak etxebizitza alokatuko luke errentan Ibarra edo Aramaion. 699 40 73 35 edo 669 15 36 58

**Arrasate.** Hiru gazte langilek etxebizitza errentan hartuko lukete. 665 75 40 36

**Bergara.** Etxebizitza errentan hartuko nuke, bi edo hiru logelarekin. 636 80 87 68

**Bergara.** Etxebizitza hartuko nuke errentan. 600 25 98 54 edo 687 61 63 00

**Bergara.** Bergarako neska batek etxebizitza hartuko luke errentan, merke. 649 40 72 49

**Bergara.** Etxea errentan hartuko nuke. Deitu 691 03 25 02 telefono zenbakira.

**Iruñea.** Nafarroako herri txiki batean etxea errentan hartuko genuke. Iruñetik iparraldera. 695 13 83 10.

### 105. ETXEAK OSATU

**Antzuola.** Sagasti auzoan pertsona bat behar da etxea osatzeko. Beheko solairua da eta terraza dauka. Deitu 618 12 08 01 telefonora.

**Arrasate.** Erdigunean logela ematen da errentan. Deitu 619 78 63 41 telefonora.

**Arrasate.** Gela bila nabil. Mutil arduratsua naiz eta lan finkoa daukat. MiguelBarrios. Deitu 943 79 74 13 edo 647 28 82 41 telefono zenbaira.

**Arrasate.** Pertsona bat behar da etxea osatzeko. Deitu 670 59 73 62 telefono zenbakira.

**Arrasate.** Logela ematen da errentan Musakolan. Deitu 610 82 02 17 telefonora.

**Arrasate.** Gelak errentan Makatzenan, sukaldea erabiltzeko eskubidearekin. Telebista, DVDa, kafe makina... erosotasun guztiekin. Bista polit eta giro ezin hobea. Interesatuok deitu zenbaki honetara eta Alexandragatik galdetu. 690 61 08 26

**Bergara.** Gela ematen da errentan Irizar pasealekuan. Bikote batentzat edo pertsona bakarrarentzat. 943 03 62 00 edo 696 03 80 07

**Bergara.** Logela ematen da errentan. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 655 71 41 24

**Bergara.** Logela bat behar da urtarriletik 1etik eta bost hilabetez, australiar mutil gazte batentzat. 943 76 31 42

**Donostia.** Gela errentan Donostian. Oso ondo kokatutako etxebizitza batean. Etxean pertsona bakarra bizi da. Ohe bikoitza, ikasteko mahaia eta armarioa. Ekainera arte, besterik ez. Deitu 20:30etik aurrera 669 96 23 55.

**Gasteiz.** Urtarriletik aurrera pertsona bat behar da Gasteizen pisuakonpartitzeko. *aratz2009@euskalerria.org*

**Iruñea.** 160 euro.Deitu 687 03 17 76 edo 616 71 69 66 telefonotara.

**INMOBILIARIA**
**Ibargarai 3 • BERGARA**
**Tel. / Faxa: 943 76 97 97**
**www.inmokorosti.com**

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**Bergara:**
- Matxiategi 82 m². Eguzkitsua.
- Zubiaurre 230 m². Berritua.
- Aranerreka 85 m². Berritua.
- Elusu baserria. Berritua. Oso ondo.
- Alkabieta 88 m². Eguzkitsua.
- Zubiaurre 67 m². Berritua. Eguzkitsua.
- Zabalotegi 60m². Oso ondo
- Barrenkale 82 m². Berritua.
- San Antonio, 46 m². Berritua.
- Masterreka. 46 m². Eraikuntza berria. Oso ondo.
- Bidekurutzeta 103 m². Duplexa. Oso ondo.
- Boni Laskurain 90 m². Oso ondo.
- Azkarruntz 69 m². Prezio ona.
- San Pedro 65 m². Ganbararekin.
- Osintxu 64 m². Berritua. 114.192 €.
- Aranerreka 80 m². Terrazarekin.
- Zubiaurre 58 m². Eguzkitsua.
- Aranerreka 90 m². Oso ondo.
- Osintxu 62 m². Prezio ona.
- San Lorentzo 68 m². Berritua.
- Zubiaurre 52 m². Berritua.
- **Etxebizitza berrien eraikuntza Martokon, 196.200€.**
- Artekale. Logela bat. Berritua.

**Antzuola:**
- Buztinzuri, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Beheko auzoa Etxe onak.
- Errekalde 70 m². Garajearekin.
- Beheko auzoa. Berritua. 135. 000 €.

**Elgeta:**
- San Roke 72 m². Berritua.
- San Roke 80 m². 80 m²-ko ganbara eta lokalarekin.
- Salbador 90 m². Berritua.

**Soraluze:**
- Atxuri 49 m2. 117.618 €.

DEBA
**GARAIA**
**INMOBILIARIA**
**Telesforo Aranzadi 2**
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**BERGARA**
- Arrizuri, 97 m², garajearekin.
- Aranerreka, 80 m², oso ondo.
- Matxiategi, 88 m², eguzkitsua, oso ondo.
- Zabalotegi, 54 m², eguzkitsua, oso ondo.
- Bolu, 103 m², oso eguzkitsua.
- Zubieta 65 m², ondo, hortuarekin.
- Ibargarai, apartamentua, 40 m², berria, garajea aukeran.
- Bidekurutzeta, duplexa, oso ondo.
- Iparragirre, apartamentua, 40 m², berria, garajea eta trastelekua.
- Martoko, 87 m², ondo, garajearekin.
- San Pedro, 88 m², ondo.
- Ibargarai, 80 m² oso ondo eta eguzkitsua.
- Koldo Eleizalde, 87 m² oso ondo.
- Urdangarin pasealekua,132 m², berritzeko.
- Zabalotegi 80 m², eguzkitsua, berritua.
- Elorregi 70 m², terrazarekin, eguzkitsua, oso ondo.
- Matxiategi, 73 m², berritzeko.
- Simon Arrieta, 57 m², terrazarekin.
- Zurradero, 81 m², oso ondo.
- Zubieta, 125 m², terraza eta ortuarekin.
- Zabalotegi, 50 m², berritua. Oso eguzkitsua.
- Iparragirre, 190 m².
- San Antonio, 65 m², eguzkitsua.
- Masterreka, 46 m², eraikuntza berria.
- **Etxebizitza berrien erainkuntza Maduran, San Pedron, Masterrekan, Zubiaurren, Bidekurutzetan, Zubietan, Martokon eta San Lorentzon.**
- Jatetxea erdialdean bezeroekin. Salgai edo errentan ematen da.

**SORALUZE**
- Baltegieta, 83 m², berria.
- Sagarerreka, 58 m², aukera ona.

**ANTZUOLA**
- Eguzki auzoa, Antigua auzoa eta Sagasti auzoa.

**ELGETA**
- San Roke, 75 m², ia berria.

**DEBA**
- Txalet bateko etxebizitza, hondartzako lehenengo ilaran

## 2/ GARAJEAK

### 202. EROSI

**Bergara.** Garaje itxia erosi nahi dut erdialdean. Deitu 635 20 81 22 telefono zenbakira.

### 203. ERRENTAN EMAN

**Etxarri Aranatz.** Garajea alokatzen da Etxarri Aranatzen. Erdisotoa eta itxia. Interesatuek deitu 647 776 821 telefono zenbakira.

## 3/ LOKALAK

### 303. ERRENTAN EMAN

**ARETXABALETA**

**Taberna-jatetxea errentan.**
**Bezero fidelak.**
**80 pertsonarendako.**
**943 77 21 24**
**696 02 42 10**

**Oñati.** Lokala ematen da errentan Bidebarrietan. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 610 54 91 21

### 304. ERRENTAN HARTU

**Debagoiena.** Taberna hartuko nuke errentan. 638 10 29 63

**Debagoiena.** Taberna hartuko nuke errentan. 677 05 39 06

**Oñati.** Lokal txikia, etxabea (baxua) edo garajea hartuko nuke errentan San Lorentzon. 665 73 51 59

## 4/ LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Debagoiena.** Astean bi egunez, etxea garbitu eta plantxa egiteko pertsona arduratsua behar da. 625 70 92 05

**Gasteiz.** Ume bat zaintzeko neska euskalduna behar da, astean 6 ordu.

**Segura.** Haurrak zaintzeko pertsona bat behar da. Autoa izatea beharrezkoa da. Deitu: 695 73 40 32

### 402. ESKAERAK

**Altsasu.** Adin ertaineko emakume altsasuarra naiz eta haurrak edo adinduak zaindu edo etxeko lanak eginen nituzke. Deitu 654 23 08 66 telefonora.

**Altsasu.** Esperientzia duen pertsona, oso arduratsua, haurrak zaintzeko prest, larunbatak barne. Plantxatzeko prest ere nengoke. Orduko 10 euro kobratuko nituzke. 651 47 27 21.

**Altsasu.** Txakurrak gustuko ditudanez prest egongo nintzake Sakanako txakurtegiren batean lanean aritzeko. Deitu: 635 74 04 39

**Aretxabaleta.** Goizetan atari edota etxeak garbituko nituzke, orduka. 943 79 96 25 edo 647 10 58 72

**Aretxabaleta.** Emakume arduratsua gertu adinekoak zaindu, etxeko garbitasun lanak egin edo umeak zaintzeko. Esperientzia adinekoekin. Mari. 943 53 33 92

**Arrasate.** Emakumea gertu nagusi edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. 636 25 56 68 edo 943 25 02 94

**Arrasate.** Emakumea gertu nagusiak zaindu edo garbiketa lanak egiteko. 619 78 63 41

**Arrasate.** Emakumea gertu umeak zaintzeko. Urte askoko esperientzia. 662 70 31 68

**Arrasate.** Neska euskalduna arratsaldez nagusiak zaintzeko gertu. Kotxe propioa. 696 37 92 29

**Arrasate.** Bergara eta Arrasate. Emakumea garbitasun lanak egin eta pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Eguneko edozein ordutan egin dezake lan. 650 62 12 94

**Arrasate.** Etxeak garbitu edo umeak zainduko nituzke. Mari. 649 30 13 60

**Arrasate.** Neska euskalduna eguerdietan etxe zein atariak garbitzeko prest. 663 04 53 99

**Arrasate.** Bergara eta Arrasate. Emakumea garbiketa lanak egin eta pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Eguneko edozein ordutan egin dezake lan. 650 62 12 94

**Arrasate.** Etxeak garbitu edo umeak zainduko nituzke. Mari. 649 30 13 60

**Arrasate.** Emakumea gertu zerbitzari lanetarako. Esperientziaduna. 679 04 42 68

**Arrasate.** Umeak zaindu edo garbiketak egingo nituzke. 649 30 13 60

**Arrasate,** Aretxabaleta edo Eskoriatza. Mutila gertu edozein garbiketa egiteko: atariak, bulegoak... 650 14 69 10

**Arrasate,** Aretxabaleta edo Eskoriatza. Neska gertu garbiketa lanetarako (10 euro orduko) edo nagusi zein umeak zaintzeko (9 euro orduko). 618 00 08 28 edo 943 79 82 43

**Azpeitia.** 20 urteko neska euskalduna, haurrekin lanean esperientzia duena bai begirale moduan, zaintzaile moduan... Arratsaldez haurrak zaintzeko prest egongo nintzateke. 606 42 64 14

**Beasain.** Irakasle diplomatua, lehen hezkuntza eta bigarren hezkuntzako ikasleei edozein ikasgairi buruzko klase partikularrak emateko prest. Interesatuek deitu telefono honetara: 615 00 20 44

**Bergara.** Ingeleseko eskola partikularrak ematen dira. Maila guztiak. Elkarrizketa lantzeko ere bai. Telefonoa: 637 52 89 83

**Bergara.** Lehen Hezkuntza, DBH, batxilergo eta ingeleseko eskolak emango nituzke. Harremanetarako telefonoa: 675 00 59 48

**Bergara.** Neska euskalduna Lehen Hezkuntzako eskola partikularrak emateko prest. Eguerdietan deitu. Telefonoa: 663 04 53 99

**Bergara** Umeendako ingeles eskolak ematen ditut. Aitor. Telefonoa: 671 76 22 28 edo 943 76 01 99

**Bergara.** Urte askoko esperientzia duen neska gertu sukalde laguntzaile lan egin edota etxez etxe nagusiak zaintzeko. Telefonoa: 637 18 07 23

**Bergara.** Emakume gaztea gertu garbiketa lanak egiteko. Orduka lan egingo nuke. Deitu 671 33 75 54 telefonora.

**Bergara.** Esperientziadun emakumea gertu orduka etxeko lanak egiteko. 622 60 84 68

**Bergara.** Neska euskaldun arduratsua orduka etxeko garbiketak egiteko gertu. Telefonoa 680 99 68 94

**Bergara.** Emakumea gertu edozein lan egiteko. Pertsona nagusiak gustura zainduko nituzke. Ordutegia: 09:00etatik 14:00etara. Deitu 669 98 46 47 telefonora.

**Bergara.** Esperientziadun neska nagusiak zaintzeko prest. Astebukaeretan,jaiegunetan eta gauetan lan egingo nuke. Telefonoa: 630 88 54 46

**Bergara.** Paperak dituen emakumea gertu pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko. Deitu 696 19 05 15 telefonora.

**Bergara.** Tabernan, garbitasun lanak egiten edo pertsona nagusiak zaintzen lan egingo nuke. 671 71 90 03

**Bilbo.** Sukaldaritzako ikaslea, janari manipulatzaile karnetarekin, prest nago sukalde laguntzaile, pintxoak egiteko, zerbitzari edota tabernari lanak egiteko. Asteburuetan libre nago. 625 11 20 71

**Bergara.** Etxeko lanak egiteko edo pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Esperientziadun mutila etxeko lanak egin edo pertsona nagusiak zaintzeko gertu. 650 17 74 87

**Bergara.** Neska bergararra gertu etxeak garbitu, nagusiak zaindu edo bestelako lanetarako. Telefonoa: 943 53 29 18

**Deba.** Emakume euskalduna ospitalean jendea orduka zaintzeko prest. Telefono zenbakia 665 74 18 66. Marian.

**Debagoiena.** Emakumea gertu etxeko lanak egiteko, etxean bertan bizi izaten. Telefonoa: 650 70 98 76

**Debagoiena.** Emakume esperientziadunak etxean bertan bizi izaten lan egingo luke. Legezko paperak ditut. 689 50 61 24

**Debagoiena.** Neska ukrainarra etxeko lanak egiteko gertu. Etxean bertan bizi izateko edo orduka lan egiteko gertu. 690 13 13 99

**Debagoiena.** Nagusiak edo umeak zainduko nituzke, orduka edo etxean bertan bizi izaten. Telefonoa: 680 30 24 64

**Debagoiena.** Neska esperientziaduna gertu nagusiak zaintzeko orduka edo etxean bertan bizi izaten. Gauez ere bai. Baserrietara joateko arazo barik. Telefonoa: 660 37 20 47

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak edo umeak zaindu eta etxeak garbituko nituzke. Harremanetarako deitu 669 98 46 47 telefonora.

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak zaindu edo garbitasun lanak egingo nituzke. Harremanetarako telefonoa: 943 75 22 30 edo 636 17 27 65

**Debagoiena.** Emakumea gertu pertsona edadetuen zein haurren zainketa lanak egiteko. Etxean bizi izateko prest. 663 65 78 43

**Debagoiena.** Emakumea gertu pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko, edota garbiketa lanak egiteko. Orduka edo gauez. Telefonoa: 678 23 54 93

**Debagoiena.** Mutila gertu zerbitzari, sukalde laguntzaile edo furgoneta gidari lanetarako. Legezko paperak dauzkat. Telefonoa: 628 48 05 41

**Debagoiena.** Esperientziadun neska gertu sukalde laguntzaile edo zerbitzari lanetarako. 610 82 02 17

**Debagoiena.** Esperientziadun neska euskalduna gertu nagusi zein umeak zaindu edo etxeko lanak egiteko. Baita zerbitzari jarduteko ere. Informeak ditut. Telefonoa: 671 35 22 60

**Debagoiena.** Garbiketa lanak edo nagusiak zaintzeko gertu. Eli Cerezo. 630 20 12 03

**Debagoiena.** Gertu nago pertsona edadetuen zein haurren zainketa lanak egiteko. Garbiketa lanak ere egingo nituzke, egunez zein gauez, eta orduka. Telefonoa: 638 54 75 93

**Debagoiena.** Lau urteko esperientziadun neska nagusiak zaintzeko gertu. Etxean bizi izaten ere bai. 626 78 22 95

**Debagoiena.** Bergara Arrasate. Emakumea gertu edozein lan egiteko, 09:00etatik 14:00etara. Pertsona nagusiak gustura zainduko nituzke. 669 98 46 47

**Debagoiena.** Emakume esperientziaduna gertu nagusiak zaintzeko, egunez zein etxean bertan bizi izaten. Legezko paperak dauzkat. Ana. 648 60 27 87

**Debagoiena.** Emakume gaztea gertu nagusi zein umeak zaindu edo garbiketa lanak egiteko: etxeak, atariak, tabernak edo bestelakoak. Sukaldean ere ariko nintzateke. 676 28 87 84

**Debagoiena.** Bergara edo Arrasate. Nagusiak zainduko nituzke, egunez. 943 53 28 18 edo 696 84 19 51

**Debagoiena.** Pertsona esperientziaduna etxeko lanak egiteko edo nagusiak zaintzeko gertu (Maite). 943 53 27 11 edo 650 17 74 87

**Debagoiena.** Bergara eta Arrasate. Pertsona nagusiak zaindu edo garbitasun lanak egingo nituzke. 691 03 25 02

**Debagoiena.** Arrasate edo Bergara. Emakumea gertu arratsaldeetan edo asteburuetan nagusi eta umeak zaintzeko. 697 93 73 32

**Debagoiena.** Emakumea gertu umeak edo nagusiak zaintzeko. Lana egiteko baimena. 618 98 31 50

**Debagoiena.** Emakumea gertu nagusiak edo umeak zaintzeko, edota garbiketa lanak egiteko, egunez zein etxean bertan bizi izaten. 619 92 40 86

**Debagoiena.** Neska gertu zerbitzari, garbiketa edo ume zein nagusiak zaintzen lan egiteko. Legezko paperak dauzkat.: 628 48 05 41 edo 943 71 21 15

**Debagoiena.** Neska langile eta esperientziduna garbiketak egiteko prest, orduka. 669 20 57 98 edo 665 70 00 63

**Debagoiena.** Mutilalanerako gertu. Telefonoa: 638 10 29 63

**Debagoiena.** Mutila lanerako gertu: tabernan, garbiketak lanetan, baserriko lanetan... Telefonoa: 671 45 96 26

**Debagoiena.** Neska arduratsu esperientziaduna gertu garbiketa, dendari, azafata edo bestelako lanetarako. Telefonoa: 639 86 96 76

**Debagoiena.** Neska gaztea zerbitzari lanak egiteko, garbiketa lanak orokorrean egiteko edota pertsona nagusiak zaintzeko gertu. 671 71 90 03

**Debagoiena.** Neska gertu edozein lanetarako. Telefonoa: 679 17 11 35

**Debagoiena.** Neska gertu garbiketan, ume edo nagusiak zaintzen zein zerbitzari lanetan aritzeko. Telefonoa: 660 56 65 58

**Debagoiena.** Neska gertu zerbitzari, garbiketa edo ume zein nagusiak zaintzen lan egiteko. Legezko paperak dauzkat. Telefonoa: 628 48 05 41 edo 943 71 21 15

**Debagoiena.** Paperak eguneratuta dauzkan mutil gaztea gertu zerbitzari, lorezain edo garbiketa lanak egiteko gertu. 647 19 36 95

**Debagoiena.** Pertsona edadetuen eta umeen zaintza lanak egiteko gertu nago. Esperientziaduna naiz gaian eta baita oso arduratsua ere. Etxean zein kanpoan egingo nuke lan. Luis Marina. 606 85 67 08

**Debagoiena.** Emakumea gertu edozein tokitan lan egiteko, baita baserriko lanak egiteko ere. Telefonoa: 639 88 64 13

**Debagoiena.** Esperientziadun emakumea garbiketa lanak egin, nagusiak zaindu edo supermerkatuetan lan egiteko gertu. Paperak ditu. Telefonoa: 636 01 91 12

**Debagoiena.** Gazte arrasatearra edozein lan egitek prest. Esperientziaduna zerbitzari lanetan eta makina muntaketa lanetan. Telefonoa: 605 76 05 59

**Debagoiena.** Elektrikaria naiz, teknikari komertziala. Javi. Telegonoa: 669 49 83 24 edo 680 30 30 52

**Debagoiena.** Mutil gaztea edozein lan egiteko gertu. Gidabaimena daukat. Jhony. telefonoa: 943 75 22 30 edo 636 17 27 65

**Debagoiena.** 27 urteko mutila gertu arotz edo soldatzaile lanetarako. Baita publizitatea banatzeko ere. Autoa daukat. 691 79 53 34

**Debagoiena.** Edozein lan egiteko gertu mutil gaztea. Manuel. Telefonoa: 943 75 22 30 edo 636 17 27 65

**Debagoiena.** Aretxabaleta, Arrasate edo Eskoriatza. Lan egingo nuke garbiketa lanetan: elkarteak, tabernak, bulegoak eta abar. Astean zehar zein asteburuetan. Erreferentzia onak. 648 19 10 38

**Debagoiena.** Neska gertu edozein lanetarako. 679 17 11 35

**Debagoiena.** Neska gertu garbiketan, ume edo nagusiak zaintzen zein zerbitzari lanetan aritzeko. Telefonoa: 660 56 65 58

**Debagoiena.** Kamioi gidari baimena ateratzen ari naiz eta horretan lan egin gura nuke. Praktiketan ere bai. C+E baimena, ADR, zisterna edota lehengaiekin lan egiteko. 610 67 18 60

**Debagoiena.** Emakumea gertu sukalde laguntzaile edo lisatze lanak egiteko. Hiru urteko esperientzia. 647 16 40 49

**Debagoiena.** Ile apaintzaile lanetan jardungo nuke. 639 00 35 57

**Debagoiena.** Manikura eta pedikura egiten dut etxez etxe. Azazkaletan marrazkiak ere bai. Kolonbiako produktuekin. 10 euro. 654 79 07 58

**Donostia.** Panderoa, kainabera eta txaramelak. Asteazkenero 19:30etik 20:30era, Donostiako Arrano Beltza Euskal Tokian (Ikatz kalea, 10) Informazio gehiago: *arranokoikastaroak@gmail.com*

**Donostia.** Nikaraguako mutil bat naiz eta Donostian bizi naiz. Bertan edo inguruko herrietan lanen bat egiteko prest nago, adineko pertsonak zaintzen edota beste edozertan. 943 65 40 57

**Donostia.** Neska euskalduna, haur hezitzailea, haurrak zaintzeko prest. Donostia eta inguruko herrietan, edozein ordutegitan. Edozein gauzatarako deitu inongo konpromisorik gabe. 616 38 31 64

**Durango.** 4. mailako Telekomunikazio Ingenieritzako ikasle euskalduna Batxilergo eta DBHko klaseak Durangon emateko prest. Espezialitatea, Matematikako klaseetan.

**Eibar.** LH, DBH eta Batxillergoko partikularrak emateko mutila prest.630 81 77 87

**Gernika Lumo.** Neskaeuskalduna umeak zaintzeko prest. Edozein gauzarako deitu inolako konpromiso barik zenbaki honetara: 680 538442

**Gernika Lumo.** Klase partilularrak emango nituzte Gernika zein inguruko herrietan, oro har, Busturialdean. Edozein gauzatarako deitu inolako konpromiso barik zenbaki honetara: 680 53 84 82

**Gernika Lumo.** Esperientziadun irakasleak talde txikitako klase partikularrak eskaintzen ditu Gernikanlehen hezkuntza eta DBHko ikasleentzako. Kontaktua: 656 77 20 12 (Nahia)

**Gernika Lumo.** Erizain laguntzailea geriatrian lan bila dabil Gernika Lumo aldean. Eskarmentu handia zaintze lanetan. Orduka zein egun osorako. Telefonoa: 645 70 40 20 (Marisa)

**Irun.** Bidasoaldea. Emakume arduratsuak, haurrak zainduko lituzke, baita etxeko lanak egin ere. Goizez zein arratsaldez. 622 06 33 48. Posta elektronikoa: *itziar101@hotmail.com*

**Irun.** Bidasoaldea Oarsoaldea Donostialdea: Emakume arduratsuak, adineko pertsonak zaindu eta lagunduko lituzke. Goizez zein arratsaldez. Autoa badut. 622 06 33 48 *itziar101@hotmail.com*

**Tolosa.** Neska senegaldarra, adinekoak zaintzen lan egingo nuke, eragozpenik ez interna sartzeko. Haurrak zaintzeko edota etxeko lanak egiteko ere prest nago.Interesatuek deitu 943 65 40 57 telefonora.

**Lakuntza.** Lakuntzan edo inguruan lan egiteko prest nago goizetan. 653 99 80 35.

**Ordizia.** Garbiketa edoplantxa lanak eginez gustura ariko nintzateke orduka Ordizian edota inguruko herriren batean. Iragarkiak interesik pizten badizu, bidali mezu bat posta elektronikora edo eta dei egizu honako mugikorrera: 660 02 85 52 656 76 13 66. *fvpodpej@ehu.es*

**Oñati.** Neska portugaldarra (gaztelera dakit), oso arduratsua, zaharrak nahiz umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko edota edozein motatako garbiketa lanak egiteko prest. Esperientziaduna. 697 50 41 90

**Zarautz.** Gizon euskalduna gertu lanerako,asteburuetan ere lan egiteko prest edozein lan: jardinero, mahastietan eta abar. 658 73 08 08.

**Zumaia.** 30 urteko neska lizentziatuak Lehen Hezkuntza, DBH1 eta DBH2 mailatako haurrei klasepartikularrak ematen dizkie, materia guztiak. 615 71 24 32 (Alaitz) Posta: *izur@hotmail.com.*

## 5/ IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

**Eskoriatza.** DBHko eskola partikularrak etxean emango dizkidan norbait behar dut. Deitu 668 69 00 08 telefonora.

**Bergara.** Batxilergoko bigarren mailako eskolak jasoko nituzke. 686 51 07 86

**Bergara.** DBHko 4. maila. 18:00etatik aurrera deitu. Pilar. 943 76 16 42

**Eskoriatza.** DBHko eskola partikularrak etxean emango dizkidan norbait behar dut. 668 69 00 08

**Oñati.** Gaztelera eta literaturako eskolak jasoko nituzke Oñatin. Telefonoa: 688 63 82 28

**Debagoiena.** Bergara, Arrasate edo Eibarren. Ordubete edo pare bat ordu astean. Nerea. 652 71 74 96.

### 502. EMAN

**Arrasate.** Eskola partikularrak ematen ditut Musakola eta Santa Marina inguruan. Deitu 696 37 92 29 telefonora.

**Arrasate.** Goi Ingeniaritzako ikasle arduratsua eskola partikularrak emateko prest. Deitu 625 74 91 50 zenbakira.

**Bergara.** Ingeleseko eskolak ematen ditut. Maila guztiak. Azterketak gertatzeko ere bai. 618 91 32 89.

**Ingelesezko elkarrizketak.** Bergaran ingelesezko elkarrizketak eskaintzen ditut, 'one to one'. 654 94 87 26.

## 6/ MOTORRA

### 601. SALDU

**Kawasaki Z750 salgai.** Kawasaki Z750 Salgai 2007koa. Kolore beltza. Oso egoera onean. 12.000 km, azterketa denak etxe ofizialean eginak. 5.500 euro. Deitu 660 33 77 16 telefono zebakira.

## 7/ ANIMALIAK

### 701. SALDU

**Ardiak** salgai. Hamar, hogei... kopuru desberdinak aukeran. Deitu 943 79 62 63 telefono zenbakira.

**Bi cocker salgai.** Gorriak. Arrak. 2009ko urriaren 10ean jaiotakoak. Deitu 696 54 24 20 telefono zenbakira.

**Kanarioak** salgai. Anilladunak. Interesatuok deitu zenbaki honetara eta galdetu Mikelengatik. 635 75 54 53.

**Untxi nanoak.** Untxi nanoak salgai. Gabonetarako opari aproposa, eskaiozu Olentzerori! Telefonoa. 676 90 05 47. Posta: *olatzinmo@olatzinmo.com.*

### 703. EMAN

**Txakurkumeak.** Arratoi txakur arrazako txakurkumeak oparitzen dira. Deitu 682 74 41 telefono zenbakira.

### 704. BESTELAKOAK

**Setter gordon zuri beltza.** Setter gordon zuri beltza galdu zen azaroaren 17an, Makatzenan. Galdu zenean katea zeraman arrastaka. Zurea bada deitu 699 18 13 34 telefono zenbakira.

**Setter ingele**s txakurra aurkitu genuen, Eskoriatzan, abenduaren 15ean. Marroia eta zuria da. Zurea bada deitu telefono honetara: 646 47 58 84

## 8/ DENETARIK

### 801. SALDU

**Banku-billeteak** eta txanponak saldu eta erosiko nituzke. 688 61 85 02.

**Baserritar arropa.** 6-8 urteko mutikoarendako alkandora, 6 eurotan; eta gomazko abarka beltzak, 10 eurotan. Artilezko galtzerdiak opari. 656 78 64 64.

**Bergara.** Tronpeta salgai. 638 89 78 76

**Biolina salgai.** Egoera onean. Osagai guztiekin: arkoa, erretxina, almoadila eta kutxa gogorrarekin. Gara SV100 1/2 neurrikoa. Prezio negoziagarria. 665 16 09 76

**Bikiendako** Arrue etxeko karrokapazoa salgai. 2008koa. Oso praktikoa eta egoera bikainean. Lasai deitu. 649 00 53 42

**Bikiendako** EasyWalker markako karroa salgai. Deitu 943 03 66 80 zenbakira.

**Eski alpinoko** ekipoa salgai. Egoera onean eta gutxi erabilia. Eskiak: Salomon, 1,60 m neurrikoak (250 euro). Botak: Atomic, 41 neurrikoak (130 euro). Makilak eta funda opari. Deitu 690 83 98 53 zenbakira.

**Eskiak.** Eski alpinoko pare bi eski salgai. Rossigol, 1,75 m neurrikoak: 60 euro. Dynastar (Look fijazioak), 1,85m neurrikoak: 60 euro. Deitu 690 83 98 53 telefonora.

**Eskiatzeko materiala.** Buzoa, 10 neurrikoa, 15 eurotan; botak, 6-7 urteko umeentzat, 20 eurotan; 1,40 neurriko eskiak, 15 eurotan; eta metro bateko bastoiak, 6 eurotan. Gore-Tex eskularruak opari. Deitu 656 78 64 64 zenbakira.

**Debagoiena.** Dendarako altzariak saltzen ditut: mostradorea, erdiko mahai handia, bitrinak eta esekitzekoak. 627 96 19 22

**Ibiltzeko zinta** elektrikoa salgai. Domyos etxekoa. Lau programa ezberdinekin. Berria. 270 euro. 652 76 25 41

**Nokia 6124** telefonoa salgai. Vodafone etxekoa. 30 euro. 617 13 17 51

**Ordenagailua.** Pentium 3. Windows 98. 256 MB RAM. Word, Excel, Access, Publisher teklatua, sagua, CD irakurgailua eta bozgorailuak. 60 euro. 666 24 86 40.

**Pedalera.** Gitarra akustikorako pedalera salgai. Erdi prezioan. 943 77 19 20

**Patinetea.** Umeen karrorako patinete unibertsala salgai. 650 96 23 08

**Routerra.** Haririk gabeko routerra salgai. Telefonicako Amper Zyxelarekin batera. 608 36 26 07

**Samsung J700** poltsikoko telefonoa salgai. Oso ondo dago. 30 euro. 615 49 09 36.

**Snow-taula** salgai. Fijazio eta guzti, 85 eurotan; eta taula bakarrik, 50 euro. Egoera onean. 671 92 06 49.

**Soinua.** Zero Sette markako soinua salgai. Ia berria. Deitu 647 51 52 80 telefonora.

**Umeendako motxila.** Salewa etxekoa. Aulkia, motxila, eguzkitik babestekoa eta ez bustitzeko zakua. 60 euro. Deitu 645 72 08 11 zenbakira.

**Ehizarako hiru eskopeta salgai.** Hirurak 300 euroren truke. Interesatuek 677 30 40 56 telefonora hots egin.

**Txalupa salgai (txipironera arrunt bat).** 4,20 eslora dituen txipironera bat saltzen da. Yamaha f9.9 CMHL motorra darama 7.28/9.90 kw/cv potentziaduna. Gehienez ere 3 lagunentzako homologatua. Txapularekin batera ere berau garraiatzeko karro homologatu berria eta txapularekin bat datozen osagarri guztiak opari. Harremanetan jartzeko telefonoz edota email bidez. 626 63 61 38. *muribe@inmouribe.com.*

**Ebanozko klarinetea salgai.** Oso aproposa hasten direnendako. 360 euro. 948 150 547 edo 646 167 474.

### 802. EROSI

**Akordeoi pianoa erosiko nuke.** 120 baxukoa. 699 10 74 45

**Bergara.** Lursaila erosiko nuke Bergara inguruan. Sarrera onekin ahal bada. 669 17 09 51

**Iruñea.** Nafarroako herri txiki batean lursaila erosiko genuke. Iruñetik iparraldera. 695 13 83 10

**Oñati.** Oñatin lur saila erosi edo alokatuko nuke. 609 11 72 96.

### 803. EMAN

**Egongelako mahaia** oparitzen dut. Baxua, kristalezkoa eta altzairuzkoa. 635 72 58 14.

### 804. HARTU

**Bi sofa** hartuko nituzke. Botatzeko badituzu, deitu 679 09 33 34 telefono zenbakira.

### 806. GALDU

**Bandolera.** Bandolera beltza galdu nuen Arrasateko Iturripe frontoi inguruan. McMinley etxekoa. Barruan dokumentazioa eta argazki zahar batzuk daude. Balio sentimental handikoak dira. Aurkitu badituzu, mesedez, eraman itzazu BAZera. Eskerrik asko.

**Betaurrekoak.** Umearen betaurreko graduatu urdinak galdu genituen zapatuan, azaroaren 28an, Arrasaten, Iturriotz eta San Andres artean. 665 72 23 06

**Eraztuna galdu da Oñatin.** Urriaren 31n eraztuna galdu nuen Oñatiko Ugarkalde eta Euskadi etorbidea artean. 943 78 06 34 edo 656 74 53 90

**Giltzak Arbizun.** Giltza sorta bat galdu da Arbizun Nafarroa Oinezeko giltzari batekin. 650 43 97 11.

**Paparreko orratza.** Paparreko orratza galdu nuen Bergaran azaroaren 21ean; Espoloitik zaharren egoitzara bitartean. 676 36 64 12

**Poltsikoko telefonoa galdu.** Bergaran edo Elorrion, azaroaren 12an. Gorria eta beltza da eta Nokia etxekoa. Aurkitu baduzu, deitu, mesedez. 639 64 23 36

**PSPa** Bergaran. Joan zen abenduaren 13an Bergarako frontoian PSP bat desagertu zitzaidan. 630 60 39 34 edo 943 76 70 81

**Umearen jertsea.** Umearen jertsea galdu genuen azaroaren 1ean, Arientzan. Marraduna da, urdina eta marroia. Urtebete inguruko neurrikoa. 943 53 34 59

**Nintendo Ds grisa.** Urriaren 12an Nintendo Ds grisa galdu zen Zarautzen, bere babes poltsa urdinean zegoen, joko eta guzti. Aurkitu baduzue mesedez 685 71 75 62ra deitu.

### 807. AURKITU

**Betaurreko gorriak** aurkitu nituen Arrasateko Eroski inguruan, Musakolan, abendu hasieran. Graduatuak dira eta kaxa batean zeuden. 943 74 18 69

**Bizikleta Oñatin.** Bizikleta beltza agertu zen abenduko zubian, Lazarraga kalean. Nahiko berria da. Zure bada, deitu zenbaki honetara: 626 17 73 55

**Eskumuturrekoa aurkitu da Aretxabaletan.** Azaroaren 24an aurkitu nuen, Azbeko aparkalekuan. Zilar kolorekoa. 615 79 20 66

**Gurpildun aulki bat aurkitu da.** Gurpildun aulkia agertu zen azaroaren 21ean, Bergarako kiroldegiko taberna aldamenean. Galdu duena pasa dadila tabernatik.

**Kaskoa aurkitu nuen Oñatin.** Kaskoa aurkitu nuen Oñatiko plazan, azaroaren 15ean, domekan, iturri ondoan. Bizikletan ibiltzekoa. 658 75 64 65

### 808. BESTELAKOAK

**Bergaratik Gasteizera joan-etorria** egiten dut egunero, autobidetik. Bergaratik 09:00etan irten eta buelta Gasteiztik 17:00etan egiten dut. Norbaitek autoa osatzea nahi badu, dei diezadala 606 96 23 80 edo 943 76 32 23 telefono zenbakietara.

Unzueta sagardotegia



sagardoa txotxetik
•
sagardotegiko menua
•
karta

eguneko menua
•
ospakizunak
•
enpresako bazkariak

Zabola z/g. Aramaio Tel.: 945 44 50 95

## gazte zerbitzua

### BEKAK

**> Bibliografia.** Sancho el Sabio Fundazioa. *Jesus Olaizola* Bibliografia Beka 2010. Bekaren helburua datu-base bibliografikoa egitea da, gai librearekin, euskal kulturaren ezagutzaren esparruan. Epea: 2010eko urtarrilaren 29a.

**> Ikerketa.** Jose Miguel de Barandiaran Fundazioa. 2010. urteko ikerketa beka hau ikerketa arkologikora zuzenduta egongo da. Epea: abenduaren 31a.

### LANA

**> Gabonetan lan egin nahi al duzu?** Blog honetan ikus ditzakezu lan eskaintza guztiak. www.gipuzkoangazte.-info Adi, etengabe eguneratzen dira!

**> Haur parkea.** Ficoba erakustazoka. Irungo Ficoban egingo den Haur Parkean lan egiteko jendea behar da. Euskara ezinbestekoa da!

**> Zuzendaria.** San Markoseko Mankomunitatea. San Markoseko Mankomunitatean zuzendari-kudeatzailea hautatzeko lehiaketa-oposizioa. Epea: abenduaren 28a.

**> Mugikortasun agenteak.** Donostiako Udala. Donostiako udalean mugikortasun agenteen lan-poltsa osatzeko deialdia. Epea: abenduaren 24a.

### LEHIAKETAK

**> Kartelak.** Zarauzko Turismo Bulegoa. "Inauteriak 2010" Kartel Lehiaketa. Kartel saritua 2010eko inauterietako kartel eta egitarauen azala izango da. Epea: 2010eko urtarrilaren 12a.

**> Kartelak.** Irungo Inauteriak 2010 iragartzeko kartel lehiaketa. Epea: 2010eko urtarrilaren 12a.

**> Film laburrak.** Errenteriako Udala. Errenteria Hiria XV. Film Laburren Lehiaketa. 16 eta 30 urte bitarteko gazteei zuzendutako lehiaketa. Epea: 2010eko otsailaren 5a.

gazte informazioa

**ARRASATEKO GAZTE BULEGOA:**
Biteri etorbidea 3 • 943 77 00 65
gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net

**BERGARAKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:**
Kultura etxea • 943 77 91 57
gzerbitzua@euskalnet.net

**OÑATIKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:**
Foruen plaza 4 • 943 71 82 57
gazteinformazioa@oinati.net

## astea GOITBn

### Astelehena, 21




**> DKS Sariak 'Harmailatik' berezian**
**22:15**

2009ko Debagoieneko Kirol Sarien jaialdiari buruzko *Harmailatik* berezia aurkeztuko du Xabi Urtzelai kazetariak.

**13:15** Marrazki bizidunak .
**13:45** Kantari.
**14:15** Eltze beroa.
**14:45** Berriak.
**15:15** Sakonduz.
**15:45** Ikusmira.
**16:15** 28 Klipa.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**17:45** Kalekantoi.
**18:15** Ilunpean.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Kantari.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** DKS Sariak.
**23:15** Ikusmira.
**23:45** Magazinea
**00:45** Emisio amaiera.

### Martitzena, 22



**> Laura Mintegi 'Ilunpean' saioko gonbidatua**
**22:15**

Laura Mintegi idazle nafarra elkarrizketatuko du Jon Berezibar kazetari arrasatearrak aste honetako *Ilunpean* saioan.

**13:15** Marrazki bizidunak.
**13:45** Kantari.
**14:15** On Ein.
**14:45** Berriak.
**15:10** DKS Sariak.
**16:20** Itsasora begira.
**16:45** Berriak.
**17:10** Marrazki bizidunak.
**17:35** Wazemank.
**18:15** Gipuzkoa Kultura.
**18:45** Berriak
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Kantari.
**21:15** Magazinea.
**22:15** Ilunpean.
**23:00** Wazemank.
**23:45** Magazinea.
**00:45** Emisio amaiera.

### Eguaztena, 23



**> Txirritaren marrazki bizidunak**
**13:15**

Txirrita bertsolari hernaniarraren bizimoduko pasarteak kontatu eta kantatuko dituzten marrazki bizidunak dira hauek.

**13:15** Marrazki bizidunak.
**13:45** Kantari.
**14:15** Perretxikoak.
**14:45** Itsasoari begira.
**15:10** Ilunpean.
**15:50** On Ein.
**16:20** 28 Klipa.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**17:35** DKS Sariak.
**18:15** Ur eta Lur.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Berriak.
**20:15** Ikusmira.
**20:45** Kantari.
**21:15** Berriak
**21:45** Kalekantoi.
**22:15** Erreportajea
**23:00** Mugaz kanpo
**23:45** Ilunpean.
**00:45** Emisio amaiera.

### Eguena, 24



**> Olentzeroren filma etxeko txikiendako**
**15:30**

*Olentzero* filma botako dute gaur bazkal ostean etxeko txikienendako. ETBk eta Baleukok ekoiztutako lana da.

**08:00** Marrazki bizidunak.
**10:30** Barrebusa.
**11:30** On Ein.
**12:00** Perretxikoak.
**12:30** Mugaz kanpo.
**13:00** Eltze beroa.
**14:30** Barrebusa.
**15:30** Olentzero filma.
**16:30** Marrazki bizidunak.
**18:00** Erreportajea.
**19:00** 28. kanala.
**19:30** DKS Sariak.
**20:30** 28 Klip.
**21:00** Olentzero filma.
**22:15** Gipuzkoa Kultura.
**23:15** Eskolaniak.
**01:15** Ahotsenea.
**02:00** Emisio amaiera.

### Egubakoitza, 25



**> Fernando Amezketarraren istorioak**
**09:00**

Fernando Amezketarraren istorio eta esaerak kontatzen dituzten marrazki bizidunak barre egin gura dutenendako.

**08:00** Barrebusa.
**09:00** Marrazki bizidunak.
**11:30** Olentzero filma.
**12:30** Kantari.
**14:00** Eskolaniak.
**16:00** Marrazki bizidunak.
**18:00** Gipuzkoa Kultura.
**19:00** Barrebusa.
**19:45** Ikusmira.
**20:15** Ur eta Lur.
**21:00** Ilunpean.
**21:45** Ahotsenea.
**22:45** Gipuzkoa Kultura.
**23:45** Ahotsenea.
**00:00** 28 Klip.
**00:30** Emisio amaiera.

## arrasate irratia

**FM 107.7**

**> Arrasate Irratia, 'Igo autobusera'**
**10:00**

Santamas egunean, bihar, Uarkapen izango den pilota partidurako sarrerak dituzte Arrasate Irratiko *Igo autobusera* irratsaioan entzuleen arteaz zozketatzeko. Baita eguazteneko Gospel kontzerturako sarrerak ere. Parte hartzeko: deitu 943 25 05 05 zenbakira edo idatzi mezua *irratia@goiena.com* helbidera.

**Astelehenetik egubakoitzera**

**10:00-12:00** Uda Giroan
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Astelehenetan Kirolak
Ilunpean (elkarrizketa, Euskal Herriko pertsona ezagun batekin)
Sozioekonomia gaiak, Iñaki Azkoaga komunikazio arduradunarekin
Udal Gazte Bulegoa
Sexologia Zerbitzua
Azkeneko Geltokia: hileta oharrak; zorion agurrak; eguneko oharrak...
Astearen errepasoa (Goienkariarekin)
Eguneko eta asteko protagonistekin, elkarrizketak
Zozketak (egubakoitzean)
Zorion agurrak (parte hartzeko: 943 25 05 05 (*irratia@goiena.com* )
**12:05** Euskadi Irratiko albistegia
**12:10** Izarren ordua: abesti ezagunak
**13:00** Euskadi Irratiko albistegia.
**14:00** Uda Giroan
**17:00, 19:00, 21:00, 23:00** albistegi laburra.

**Zapatua**
**10:00** Asteko gainbegiratua.

**Domeka**
**10:00** Asteko gainbegiratua.

## telealbisteak

> ETB

### Txirri, Mirri eta Txiribiton pailazoek 25 urte egin dituzte ETBn

Txirri, Mirri eta Txiribiton pailazoek 25 urte bete dituzte ETBn. Joan den eguenean, abenduak 17, egin zituzten zilarrezko ezteiak. Hasierako urtetan, Donostiako San Miguel Patronatuko gimnasioan grabatzen zituzten programak, oraindik ETBk ez zuelako Miramonen egun duen egoitza. *Don Don Kikilikon* izan zen egin zuten lehen programa eta ondoren etorri ziren: *Funtzioa*, *Altza Porru!*, *Barrebusa* eta *Triki Traka Trikitron*.



Txirri, Mirri eta Txiribiton. ETB

> GOITB

### GOITBk bailarako albisteen berri emango du Gabonetan ere

GOITBk bailarako notizien berri emango du Gabonetako oporretan ere. Hilaren 24an, 25ean eta 31n hartuko du atseden Goiena Telebistako albistegiak, baina 28an, 29an eta 30ean ohiko orduan ikusi ahal izango du edonork. Baita urtarrileko lehen egunetan ere, 4an eta 5ean, hain zuzen ere. Bestalde, *Gipuzkoa Kultura* programak ere ez du oporrik hartuko Gabonetan ere saio bereziak egingo ditu, ordubeteko saioak hain zuzen ere.



'Berriak' albistegia. GOIENKARIA

**ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA**

**GAIA ERAKUSKETA IRAUNKOR BERRIA!** 1000 m² baino gehiago handitu berri dugun erakusketa. **Energia** eta **Natura** dira erakusketa honetako ardatz nagusiak. Energiaren kontsumo eraginkor batekin, gure Natura hobeto zaintzeko aholku eta konpromezuak, modulu interaktibo eta audiobisualen bitartez.

**PLANETARIUM**
**Erresoluzio handiko irudi ikusgarriak kupula osoan proiektatuta.**
12:00 (eusk.), 13:00 (gazt.), 15:30 (fran.), 17:00 (eusk.) eta 18:00 (gazt.)
**Donostiatik zerura begira:** Zuzeneko saioa.
**Itsua izar begiekin:** Itsu bat eta tirano bat protagonista dituen ipuin animatu bat.
**Biziaren jatorria:** Lurraren eta Eguzki Sistemaren jatorria erakusten digun saioa.
**Infinity Express:** Unibertsoa eta Eguzki Sisteman zehar bidaia Kartoizko suziriaren sekretua: Haurrei zuzendutako saioa .
**Eboluzioa:** Izakion historiako gertaera eta unerik garrantzitsuenek azaltzen dizkigu.

**JAIOTZA-ERAKUSKETA**
Abenduaren 12tik urtarrilaren 5era. Museko sarrerarekin ikusga.

**SIMULAGAILUEN BERRIREKITZEA**
Abenduaren 19tik aurrera, Errusiar Mendia eta Tranbia gidatzailea berriz ere frogatzeko aukera.

**GABONETAKO JARDUERAK**
"Zientziarekin entrena zaitez" ikuskizuna, "Egin ezazu zeure egutegia" eskulana eta "Altxorraren bila" jokoa..

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA
KUTXAESPACIO DE LA CIENCIA
Miramon-Donostia Tel.: 943 01 24 78
www.miramon.org
**Ordutegia**
Astelehenetan itxita.
Asteartetik ostiralera: 10:00-19:00
Asteburu eta jai-egunetan: 11:00-19:00

kutxa | www.kutxasocial.net

## zorion agurrak


BERGARA
**Paulo Garitano**
Abenduaren 13an, 12 urte. Hamabi mila zorion, mutil handi! Musu handi bat etxeko guztien partetik.


ARETXABALETA
**Anabel eta Joxe Aranzadi Martin**
Abenduaren 13an. Zorionak, bioi! Zuen egun berezi honetan, egun zoragarri bat pasatzea espero dugu familia guztiarekin! Muxu handi bat etxekoen partetik.


OÑATI
**Aitziber Arregi**
Abenduaren 15ean, 22 urte. Zorionak eta urte askotarako! Ondo-ondo pasa deizula eta 22 tirakada tea patxo handi-handi bat kuadrillian partetik!


BERGARA
**Itxaso Osorio Seco**
Abenduaren 16an, 6 urte. Zorionak, bihotza. Gurasoen eta familia artekoen partetik.


ARRASATE
**Jon Otxoa eta Marije Isasmendi**
Jonek abenduaren 16an, 5 urte eta Marijek 20an, urtebetetzea. Arizmendi Arimazubiko lagun eta Argitxoren partetik, mila kilo zorion!


ARRASATE
**Paulo Ferreira**
Abenduaren 16an, 11 urte. Baloiari gogor emun ostien hartu atsedena eta ospatu ganoraz hamaika urtiok eta domekan hamaika ez baina pare bat gol behintzet pareko atien seguru. Zorionak!


ARRASATE
**Joxemari Pildain Saizar**
Abenduaren 17an 60 urte. Zorionak, aiteita! Ondo-ondo pasatu zure urtebetze egunean, etxekoen partetik. Muxu handi bat, jubilautxu. Bereziki zure bi printzesak Naia eta Carla.


ESKORIATZA
**Espe Isasmendi**
Abenduaren 18an, 52 urte. Zorionak eta ondo-ondo pasatu zure eguna familia eta lagunen partetik! Pa!


ARETXABALETA
**Ander Jorge Zabala**
Abenduaren 18an, urtebetetzea. Zorionak, Ander! Ondo pasatu zure urtebetetze egunian. Muxu handi bat. Oinatz.


BERGARA
**Sara Landa**
Abenduaren 18an, 8 urte. Zorionak etxekoen partetik.


ELGETA
**Jon Irizar**
Abenduaren 18an, 5 urte. Zorionak, mutikote! Patxo handi bat aitatxo eta amatxoren partetik.


ARRASATE
**Naroa Urrutia Zubia**
Abenduaren 18an, 2 urte. Zorionak, sorgintxo! Oso ondo ospatu zure urtebetetze eguna! Patxo handi bat familia guztiaren partetik! Agertuko gare txokolatea txurroekin jatera.


ARRASATE
**Irati Gutierrez**
Abenduaren 18an, 11 urte. Etxekoen partetik, zorionak eta patxo handi bat gure printzesarentzat!


BERGARA
**Gorane Polanko**
Abenduaren 18an, 10 urte. Zorionak, aitatxoren partetik!


BERGARA
**Liher Eguren**
Abenduaren 19an, 5 urte. Zorionak, etxekoen partetik.


BERGARA
**Lide Albeniz**
Abenduaren 20an, 9 urte. Zorionak, erreportari! Muxu handi bat amatxo eta aitatxoren partetik.


BERGARA
**Igor Albeniz**
Abenduaren 20an, 6 urte. Zorionak,txapeldun! Muxu handi bat aitatxo eta amatxoren partetik.


ARRASATE
**Markel Lana Ibabe**
Abenduaren 21ean, 4 urte. Zorionak eta patxo handia etxekoen partetik.


OÑATI
**Tomas Ormazabal**
Abenduaren 21ean, urtebetetzea. Zorionak! Ondo pasatu zure egunean eta ea kafea noiz pagatzen duzun.


OÑATI
**Libe Iñurritegi Guridi**
Abenduaren 21ean. Zorionak Kaioko gure printzesatxuari! 3 tirakada belarritxo horreittatik eta laztan asko etxeko danon partetik. Zure merendolarako prest gauz. Muxuak.


ARETXABALETA
**Arkaitz Ibabe Sillero**
Abenduaren 21ean, 3 urte. Zorionak, Arkaitz! Oso ondo ospatu zure urtebetetze eguna! Muxu handi bat familia guztien partetik. Ainhize.


OÑATI
**Axier Lopez Kortabarria**
Abenduaren 21ean, 36 urte. Zorionak eta urte askotarako, Axi! Karteria gertu euki, eh? Bazkai eder bat pagaittiaz ez zara librauko eta. Muxuak danon, eta batez be, Elaia eta Uxueren partetik.


BERGARA
**Nora Alcaide Morillas**
Abenduaren 22an, 2 urte. Zorionak, preziosa! Ondo-ondo pasatu zure eguna. Muxu handi-handi bat zure lagunen partetik: Naia, Hugo, Andoni, Ander, Iago, Iker, Ekiñe eta Martin.


BERGARA
**Mikel Salinero Lopez**
Abenduaren 22an, urtebete. Zorionak, pottoko! Alain, zure guraso, aitita-amumek eta izeko osaben eta lehengusuen partetik. Asko maite zaitugu.


ESKORIATZA
**Mikel Cabeza Jorge**
Abenduaren 22an, 5 urte. Zorionak etxeko guztion partetik eta ondo pasatu eguna. Patxo handi bat.


BERGARA
**Nora Alcaide Morillas**
Abenduaren 22an, 2 urte. Zorionak, printzesa! Bi belarri tirakada eta muxu goxo-goxo bat etxeko denen partetik, bereziki Ander!


BERGARA
**Amaia Elortza Agirregabiria**
Abenduaren 22an, 11 urte. Zorionak eta musu handi-handi bat etxekoen, eta bereziki, Maddiren partetik.


OÑATI
**Nora Freire Arzamendi**
Abenduaren 22an, 9 urte. Zorionak, potxoli! Ondo pasatu eguna, baina parranda larregi egin barik e! Patxo handi bat amatxo eta Jonen partetik.


ARRASATE
**Ametz Zulueta Algorta**
Abenduaren 22an, urtebete. Geure Anbotoko sorginarentzako, zorionak!


ARRASATE
**Iban Toledo**
Abenduaren 22an, urtebetetzea. Zorionak eta urte askotarako. Aspaldiko look aldaketak on egiten dizu, goierritar. Lankideak.


BERGARA
**Ander Arriola**
Abenduaren 23an, 4 urte. Zorionak etxekoen partetik eta ondo pasatu eguna.


OÑATI
**Aimar Altube Cid**
Abenduaren 25ean, 5 urte. Zorionak! Mutiko handixa ein zara, e! Putz fuerte ein bost kandelei eta txokolatezko muxu asko etxeko guztien partetik. Ondo-ondo pasatu eguna!


ARRASATE
**Nati Mena Moya**
Abenduaren 25ean, 42 urte. Zorionak, tia Nati! Oso ongi pasatu eguna, txokomarrubizko muxu pila-pila patata tortila, etxekoen, eta bereziki, zure loba Beñat eta Marenen partetik. Patxitos, guapa.


ARRASATE
**Paula Barrionuevo**
Abenduaren 26an, 9 urte. Zorionak! Familia guztian partetik!


BERGARA
**Elene Larrañaga Agirre**
Abenduaren 28an, 3 urte. Zorionak, Elene. Muxu potolo bat aitatxo, amatxo eta anaiaren partetik. Ondo pasatu zure urtebetetzea.


ARRASATE
**Mikel Gonzalez Heriz**
Abenduaren 28an, 4 urte. Zorionak eta patxo handi bat!


ARETXABALETA
**Ino Isasmendi**
Abenduaren 28an, urtebetetzea. Zorionak eta urte askotarako etxeko danon partetik, amama! Patxo handi bana.


BERGARA
**Unax Murgizu Rodriguez**
Abenduaren 29an, 3 urte. Zorionak eta patxo handi bat familiakoen partetik. Bereziki Iraia eta Hodei.

ARRASATE
**Peru Rozas Lizarralde**
Abenduaren 29an, 10 urte. Zorionak, kirolari! 10 patxo erraldoi zure anai eta lehengusuen partetik: Mattin, Anje, Maialen, Xabier, Julen, Naia eta June. Egun on-ona pasatu eta paaa.


OÑATI
**Gaizka Maiztegi**
Abenduaren 30ean, 28 urte. Zorionak, guapo! Ondo-ondo pasatu zure lagun sorginen partetik eta zure kuadrilian partetik. Muxu handi bat!

OÑATI
**Iñaki Larrañaga Etxeberriarteun**
Abenduaren 30ean, 4 urte. Zorionak, Iñaki! Oso ondo pasatu zure urtebetetze egunean eta jaso muxu pila bat etxeko guztien partetik, bereziki, amatxo, aitatxo eta Oierren partetik.


ARRASATE
**Nora Justinne Sanchez Sanchez**
Abenduaren 31n, 6 urte. Zorionak aitatxo eta amatxoren partetik. Asko maite zaitugu. Muxu bat!

BERGARA
**Ane Arenaza**
Abenduaren 31n, 8 urte. Zorionak, printzesa kapritxosie! Eta patxo bat etxekoen partetik!

# ESKELAK

GOIENKARIAn eskela jarri nahi baduzu,
deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:

**943 25 05 05**

Edo zatoz ordezkaritza batera.

**Eskelaren prezioa: 110 euro.**
Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAn, bietan, argitaratuz gero, **150** euro.

**Goienkaria: astero, 39.000 irakurle (CIES).**




OROIGARRIA

## Jose Inazio Garaikoetxea Etxaniz

Bergaran hil zen 2009ko abenduaren 17an, 63 urte zituela.

*Eskerrik asko, egindako lana BKEko etorkizuneko bidea zabalduz*



BKEko bazkide, jokalari, tekniko eta zuzendaritza.
Bergaran, 2009ko abenduaren 21ean.

URTEURRENA

## Elisabeth Taapken Schellenberg

1921.06.03 / 2008.12.24

*Erraza izan zen zu maitatzea, ezinezkoa zu ahaztea.*



Etxekoak.
Bergaran, 2009ko abenduaren 21ean.

## asteburuko albuma

**Independentzia Eguna.** Antzuolako eta Aiherrako senidetzearen 25. urteurrenaren harira, bi herrietako gazteek Independentzia Eguna ospatu zuten zapatuan Antzuolan. Goizetik gauera arte hainbat ekitaldi egin zituzten. Gaztetxean elkartu ziren eguerdian salda edan eta txorizoa jateko. Ondoren, bazkal ordura arte, poteoa egin zuten. Pilotalekuan baba-jana egin ondoren, bi herrien arteko jolasak egin zituzten. Unai Gaztelumendi eta Aitzol Barandiaran bertsolariekin afaria egin zuten, eta ondoren Darling Shoes taldeak eta Unsain anaiek kontzertua egin zuten gaztetxean.





**Gabonetako jaialdia.** Mariaren Lagundia Ikastolako ikasleek eta irakasleek Gabonetako bi jaialdi egin dituzte. Alde batetik, 2 urtetik Lehen Hezkuntzako bigarren mailara arteko neska-mutikoak jardun zuten; eta beste alde batetik, Lehen Hezkuntzako hirugarren mailatik DBHko laugarren mailara artekoak. Antzerkiak egin eta kantuan abestu zituzten.



**Artisau tailerra Bergaran.** Gabonei ongietorria egiteko artisau feria egin dute aste bukaeran Bergaran. Munibe plazako karpan 12 artisau egon dira euren produktuak saltzen; besteak beste, oinetakoak, xaboiak, zilarra eta bitxigintza. Herritarren joan-etorria ere nabarmena izan da. Gainera, aurtengo berrikuntza moduan, ikusleendako tailerrak antolatu dituzte; hain zuzen ere, zapatuan zeramika hotza nola egin landu zuten; eta atzo, narruarekin eta zilarrerekin jardun zuten.

## jaiotakoak



**Unai Arana Barrutia**
Garagartza > 3,500 kilo. Abenduaren 15ean. Gurasoak: Josu (Garagartza) eta Nerea (Garagartza). Argazkian, Unai jaioberria, sehaskan lo.




ASTELEHENEKO Goienkaria
EGOITZA NAGUSIA
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12 • Posta-e: goienkaria@goiena.com
Harpidetza: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com
2009-12-21

**Maialen Lujanbio** > Bertsolaria

# "Ohean, sofan, lanparan zintzilik... dabil txapela"



Emozionalki oraindik ez du txapela barneratu. ARGAZKI PRESS

JON BEREZIBAR > ARRASATE

**Bertsozaleekin kunplitu eta gero, orain konpromisoak ezinbestean kazetariekin dauzka Euskal Herriko Bertsolari txapeldunak. Hala ere, plazetan kunplitzen ere segitzen du Lujanbiok. Atzo izan genuen distiratsu eta bikain Arrasateko Amaia antzokian.**

**Aurreko domekarako prestakuntza berezirik egin zenuen?**

Bai, baina zaila da azaltzen, ze nahiko gauza abstraktua izaten da eta intuizioaren arabera funtzionatzen dut. Gorputz-jarrera bat da: inguruari alerta egotea, detaileei, gertakizunei...

**Eta fisikoki?.**

Ba agian paradoxikoa da baina aurretiko prestakuntzarik onena mendi-buelta bat izan daiteke.Hobeto pentsatzen dut oinez banabil. Agian irudituko zaizu goiza galtzen zabiltzala baina hor ari zara prestatzen.

**Aurreko gauean lo lasai egin zenuela diozu. Egunean bertan erritualik egin zenuen?**

Aurkakoa; normalean egiten dudan horixe egiten saiatu nintzen. Orain lau urteko finalean bertsolari guztiak hotel berean geunden eta nahikoa aldrebestu nintzen. Aurten erabaki dut etxean lo egitea, gosaldu...

**Non daukazu txapela?**

Hementxe daukat, etxean. Oraindik toki batetik bestera dabil: siloian, ohean, lanparan zintzilik... Aurkituko du bere tokia.

**Nora begiratzen zeunuen bertsotan zenbiltzanean?**

Lagun batzuk lehen lerroetan gertu neuzkan. Haiekin begiradarekin komunikatzen saiatzen nintzen, baina kantatzen ni kontzentratuago egoten naiz inori ere begiratu gabe. Baina igandean pasatu zitzaidan momentu batzutan jendea gehiegi ikusten nuela eta hori seinale txarra da, ez nintzela kontzentratuegi egon.

**Zeu eta Arzallus agertzerakoan entzuten zen txalo gehien?**

Bertsolaritzaren gauza politenetako bat da jende guztia denen alde egon ohi dela, faboritoak faborito. Bertso on bat edonori estimatzen zaio. Halere, bazegoen berritasun gogo hori eta final aurretik Ametsen eta nire izenak ahoz aho ibili ziren.

**Espero zenuen txapela?**

Zaila da esaten, ze norbera oso kritikoa da bere buruarekin eta besteen saioa ere ez du entzuten. Zaila da esaten.

SOSLAIA

## Sinistu ezinik

"Arrazionaki" txapela barneratu badu ere, emozionalki oraindik ez duela bereganatu dio Lujanbiok. Txapelari ere ez dio lekurik aurkitu oraindik. Sinisteko txalo edo laudorik ez zaizkio falta gutxienez. Joan den domekako zortzi orduko maratoiaren ostean, leher eginda amaitu du.
Guztia noiz baretuko zain dago orain eta Amets Arzalusek esan ei dio orduantxe etorriko zaizkiola ezusteko zorion agurrak. Momentuz jaso dituenak kontaezinak dira dagoeneko.

### ai, ene!



**USBdun erlojua**

Memoria arazorik daukazula? Dagoeneko 1GB memoria duen erlojuak horren konponbidea emango dizu. Zerbait ahaztu baino lehen erlojuan sartu eta gogoratuko duzu. Erlojua alboratzear zegoela? Ez horixe!

http://www.taringa.net

### biharamuna

**Juan Kruz Mendizabal**

## Egurra (bi)

Orain hilabete justu idatzi nuen zutabe honetantxe hemen egurrik behar ez genuela adieraziz. Jose Ignazio Munilla Donostiako gotzainaren izendapenaren ondoren bide horretatik jarraitu nahi dut hauxe adieraziz: nahiko helduak gara eliza honetan. Ibilbide luze, aberasgarri eta oso interesgarria egin dugu Vaticano II.aren ondoren eta atzera bueltatzeko asmorik inolaz ere ez dugu nahi. Egurra eman nahi digutenek sua piztu besterik ez dute egiten. Gotzaina aukeratzeko bidea hau ez dela adierazteko Elizbarruti honetako parrokoen %77ak sinatu dugu eta egurra jasotzeko prest ez gaudela. Egindako bide luzeak nolabaiteko heldutasunera eraman gaitu. Ez gaude gotzain berriaren aurka. Ez gaude komunioa hausten, zintzo eta leial jokatzen badugu ebanjelioarekin, egunero etengabe lanean gabiltzan artadi honetan. Komunioak bi norabide ditu beti: fededunok gotzainarekiko eta honek herriarekiko. Eta bigarrena irabazi egin behar da. Leialtasunak eta kritikotasunak eskutik joan behar dute inoren morroi izan nahi ez badugu. Ez gara perfektuak, hutsune handiak ditugu, asko dago egiteko. Baina lan honetara datorrenak jakin behar du ardiak ez direla uxatu behar, bildu baizik. Lan honetarako hortxe izango gara. Bestela, bestaldean izango gara.



### eguraldia



| MAXIMOA | MINIMOA |
|---|---|
| +10 | +1 |

Hego-haize zakarra ibiliko da eta tenperatura igo egingo da. Goizaldean hotz handia egingo du. Zerua lainotuta egongo da.

www.euskalmet.net

